


A.T.V.  
1306

Aita P. Dourisburek egina

# Bahnar deithu Salbaiak



Jean Elissalde apezak, eskuararatua

BAYONNE

Imprimerie du « COURRIER » 11, Rue Jacques-Laffitte

1936



A.T.V.  
1306



M. - 4854

R. - 1248

A.T.U.  
1306

Aita P. Dourisburek egina



# Bahnar deithu Salbaiak



*AITA DOURISBOURE. BEZKOIZTARRA*

Jean Elissalde apezak, eskuararatua

BAYONNE

Imprimerie du « COURRIER » 11, Rue Jacques-Laffitte

1936

# Bahar deitin Zaldak



BAHAR DEITIN ZALDAK

BAHAR DEITIN ZALDAK

# IRAKURTZALEERI

---

Laket zauku eskuara. Biziki laket. Bainan, nun dira eskuarazko liburuak? Nun?

Lehen ezagutuak, gordeak dira orai eta ez berriz agertzekoak.

Zombat aldi ez dituzue erran edo entzun solas horiek!

Eskuarazko libururik ez da!



Huna bat, dena eskuaraz. Eskuara ederrean moldatua. Zerbitzari idazlari aiphatuak dauku frantsesetik eskualat itzuli. Eta zer eskuaran! Bichkocha bezen gochoa, arno chaharra bezen gostukoa.

Liburu hortan, misionesten harat hunatak, oroz gainetik, Aita Dourisboure misionest eskualdunaren bizitze, eder, bethe, saindua. Zer apezaren bihotza eta sua! Apez horren laneri jarraikitzeak berak, bihotzean, on egiten dautzu. On eta biziki on.



Kaseta *Eskualduna*-k agertarazi du lehenik. Ainhitzek irakurtu dute. Gisa huntan denek esku-menean ukanen dute. Zati bat irakur egun eta bihar bertze bat.

Etchekoek haurren eskuetan ezarriko dute, nagusi etchekanderek sehien eskuetan, chaharrek gazten eskuetan, apezek, fededunen eskuetan.

Arbasoen mintzaira irakurtuz, heien ohidureri jarraikiz, gauden gu eskualdun, gogoz, solasez eta urhatsez fededun.



Eskualdun guzientzat egina da liburua.

Bainan, oroz gainerik gogoan ditugu misionest eskualdun maiteak. Heien eskuetan dugu ezartzen liburua. Ikus dezatela beren herritarra, Aita Dourisboure, irakur ditzatela haren egintzak.

Ordainez, Jaun misionest maitek, bakhotchak bere chokoan, eskualdunentzat ukan dezatela, beren othoitzetan, orhoitzapen bat. Beren izerdi, neke eta pairamenetarik, guretzat atchik dezatela zati bat.

Sinhestearen hedamenari ari dira azkarki basa tokitan. Lagun gitzatela gu hemen sinhestearen atchikitzen, barnatzen, hedatzen, gure Eskualherria maitean.



*Eskualduna* astekariak, eskuarazko liburuen agertarazteko chedea du.

Huna lehena.





## AINTZIN SOLASA

---

Iguzkaldeko Cochinchineko misionerat heldu zen Eskual Herritik 1849-eko azaroan, misionest gazte bat, Piarre Dourisboure. Zinez boztu ziren haren lagunak ikusiz langile gaztearen bihotz kartsua eta 24 urtheko gorputz lerden eta zaila, osagarri on batek ontsa lagundua. Dohain horiek guziak ondoko urthetan ontsa baliatu behar zituen.

Zombait ilhabethez Annam-eko mintzairaeren ikasten atchiki ondoan, igorri zuten Bahnars deitu basa gizon batzueri fedearen predikatzerat. Bizi ziren Annam eta Laos-en artean dauden mendi handi batzuetan, mugarik gabeko oihan batzuen erdian. Gero fedearentzat odola ichuri behar zuen Cuenot apezpikuak igorririk, lehen ere eskualde hetan ibiliak ziren zombait apez, numbait misionest baten egoitza kokatu nahiz. Batzuk bertzen ondotik, denek ukho egin behar izan zuten. Alainan ere osagarriarentzat zen leku bat izan ahala tzarra ; sukar itsusi batek denak garbitzen zituen ; bizitzeko, jende basa hek bezala jan behar ; basa hek arrotzarentzat jeloskor ; nehon pausa leku gochorik ezin aurki. Hala ere lekuko apezpikuak ez ditu basa dohakabe hek hortan bazterrerat utzi nahi.

Igortzen deie Dourisboure. Mendi gain hertarat heldu bezen laster, hunek ere han ditu aintzinekoen nekeak eta etsayak. Bainan Eskualdun gaztea ez dago gibelerat. Deusek izitu gabe, deusek haren bihotz suharra garhailu gabe, 35 urthe han ariko da gure Bezkoiztarra. Zombat aldiz ez du hango sukar izigarriak be-

re kamaintzan etzanik atchiko gorputz guzia daldaran ! Zombal aldiz egon beharko da funtsik gabe edo zer nahi porroska zikinez kontent ! Zombal aldiz hango sorgin eta azliek eginen diluzte beren ahalak hari mendekatzeko ! Alferrelan ariko dira denak. Dourisboure kharlsuki egonen da Jesusen bailhan eta haren laguntzarekin garhaituko ditu Jainko legearen etsaiak. Basa leku hetan erainen du ebanjelio sainduaren azia, eta hil aintzinean izanen du alsegina uzlaren handitzen ikusteko.

Hain eskuara pollitean Elissalde apezak eman daukun liburutto huntan, Dourisbourek berak kondatuko dauzkigu hango haren gora beherak eta harat hunatak. Ikusiko dugu gure herritar maitea oyhan beltz hetan, batean sendo eta bozkarioan, berlzean eri eta zorigailzean, bainan bethi kontent Jesusentzat jasaiten dituenek. Ikusiko dugu nola moldatu zuen hango lehen giristino herria. Ikusiko dugu nola bermatu behar izan zuen hiru urthez lehen bi salbayak bataiatzeko. Lanez eta eritasunez ebaindurik hil zenean, uzten zituen bere ondokoer 1000 giristino eta geroko esperantcha ederrak.

Haren ondokoetan aipatuena izan da Guerlach, sortzez Metz hirikoa. Hunek ere 30 urthez segituko du Dourisbourek hasi saila eta 1912-an hilen denean utziko ditu Bahnarsetan 11.650 giristino 120 elizattoetan barriatuak ! Balio othe zuen Dourisbouren Eskual-Herritik basa hetarat joaiteak ! Zer zoriona holako uzta eskuetan Jesusen aintzinerat agertzea ! Zer dira orduan mundu huntako nekeak ! Zer ongi-ethorria egiten ahal deien holako gizoneri gure Ama Zerukoak !!

Duela hiru urthe iduritu zaiko Aita Saindua-

ri Dourisbourek hasi eliza chumea aski handitua zela bere apezpikuaren ukaiteko. Quinhoneko apezpikuaren eskutik ekendurik eman dio Jannin, apezpiku berriari, eliza berria, hango hiri nausiaren izenez, Kontum-eko eliza deitzen duelarik.

Aurthen 85 urthe ditu Dourisboure maitearen mendi gain hetarat lehen aldiko ikaiteak, eta nahi duzue jakin zer ondorio izan duten haren urhatsek ? Goazen Kontum-erat. Duela bi urthe oraino han aurkituko gintuen bi apez eskualdun, Irigoyen Montory-koa eta Iroz Esterençuby-koa. Hek ere hegaldatu dire Dourisbouren ondotik Jinkoaren ganat. Ez dugu orai bertze Eskualdunik han ikusiko ; bainan aurkituko ditugu 14 misionest frantses, 16 apez sortzez hango bereko semeak, 134 elizatiipi, eta 20.000 giristino pasa. Horra Dourisbourek egin ildoan 85 urthez sortu den uzta ! Zer bihotz altchagarria holako lanaren ikus-tea ! Eskermila zuri, Elissalde, eskuetan emaiten daukuzun liburuz. Gure herritar handiak merechi zuen eskualdunek jakin dezaten nor zen eta zer egin duen.

Baina Kontum-eko apezpikuak baditu oraino bere gomenduko 600.000 pagano Bahnars 40.000 kilometra karretan barrayatuak. Ato Eskualdun maiteak bada oraino zuentzat lan Aita Zerukoaren alhorrean ! Ez othe da bada izanen zuen baitan zombait aski bihotzdunik Dourisbouren urhatseri jarraikitzeke !!! ? Agian ba, Jinko Maitearen graziarekin ! Badaitekea mundu huntan Jesusen ezagutarazten, haren sakramenduen paganoeri eremaiten pasatzen den baino bizi ederragorik ?

Parisen, 1935-eko urriaren 22-an.

Joanes CHABAGNO, Misionesta.

The first part of the book is devoted to a general introduction to the subject of the history of the world, and to a description of the various methods which have been employed by historians in the pursuit of their science.

The second part of the book is devoted to a description of the various methods which have been employed by historians in the pursuit of their science.

The third part of the book is devoted to a description of the various methods which have been employed by historians in the pursuit of their science.

The fourth part of the book is devoted to a description of the various methods which have been employed by historians in the pursuit of their science.

The fifth part of the book is devoted to a description of the various methods which have been employed by historians in the pursuit of their science.

The sixth part of the book is devoted to a description of the various methods which have been employed by historians in the pursuit of their science.

The seventh part of the book is devoted to a description of the various methods which have been employed by historians in the pursuit of their science.



## LEHEN KAPITULUA

---

### Hastapenak

#### Do diakrea tokien ikusterat badoa

---

Jainkoa lehenik, nere Jaun Cuenot, Metellopolis derizan hiriko aphezpikua gero, horra Cochinchinako eskualde salbai batean misioneak sor-arazi eta finkatu dituzten bi langile handiak. Ez dago niri jaun aphezpiku horren espantuen egitea eta ez ditut eginen, baina ez naiteke hitz batzu erran gabe egon, gero errateko ditudanen aditzeko baizik ez balitz ere. Nahi zuena *nahi* zuen nere Jaun Cuenotek eta etzen aise lotsatzen direnetarik. Zerbeit ongi pisatu eta kascoan hartu zuelarik, etzen trabarik ez bertzerik hura gibela zezakenik ; handik edo hemendik bururatu behar zuen. Denik ere, bururatzeko errabia gehiago ematen zioten trabek bihotzean !

Lauzpabortz aldiz hasi lana utzi behar izatu zuen : etzuen ukho egin halere. Bide

bat hetsi-eta, bertze bat hartzen zuen. Hau ez bazen ona, hirugarren bat hartuko zuen urrunago. Etzen gelditzen, buru-bururat heldu-eta baizik.

Haatik, errech da asmatzea zoin den Nere Jaun Cuenotek han gaindi kausitu duen trabarik handi-handiena: sinhestearen hedatzaileeri Annam-eko buruzagiek egiten zioten gerla ikaragarria. Erresumaren erdit-suko eskualdetan hango buruzagi eta buruzagichkek etzioten epherik uzten Jainkoaren langile eta mandatarieri. Are gutiago bake-rik. Misionestak etzitazken ager: gauaz eta gordeka ibili behar zuten beren ardien ondotik. Atcheman orduko, bazakiten zeri zagotzin: hiltzea segur zuten. Bada, Annam-eko erresumari kontra, mendietan bizi ziren segurki salbaiak, bainan, bi egun bidetan bederen herriraino heldu zitzaizkoten Cochinchinako merkatariak, eta mendi horiek Annam-eko erresumarekin ikustekorik ez izanagatik, ez baitziren haren meneko, hanbat gaichto han gaindi zabiltzan kampotarrentzat: etzuten Annamen berean baino ir-risku gutiago. Huna zertako.

European, erresuma batetik kampo denak, sortzez hartakoa izanik ere, ez du hango legeekin gehiago ikustekorik: ez du hango jujeen beldurrik. Asiako eskualde basa edo erdi basetan, ez dire lege berak. Misionest bat atcheman dezatela nun-nahi eta Annam-eko lurretarat ereman, harenak egin du: jujatu (?) eta hilaraziko dute lastersko, hiri-nausiko karriketan atcheman balute be-

zen segurki. Salbaietarat joan ziren lehen misionestek etzuten beraz ongi eta ongi gordetzea baizik muga ondoetan : bainan barnagoko mendietan ere guti agertu behar zuten, delako merkatariek berek ezagutzen etzituzten eskualdetaraino. Erran nahi baita, Annam-etik lauzpabortz egun bidetan heriotzea bethi gainean zutela ...

Nere Jaun Cuenot horien guzien jakintsun zen, bainan etzen horren gutiz lotsatua, eta 1842-an bi Misionest bihotzduneri manatu zioten, nihundik ahal bazuten, zoazin salbaietarat. Bainan, Phu-Yen derizan eskualdean muga iraganik, jadanik harasko ziren Aita Michel eta Aita Duclos, merkatarik batzuek ohartu zitzaizkotelarik eta estekatu, Annam-eko buruzagichka bati eremateko. Jainkoak ez bazituen bi Aita horiek beren chedearen bururatzerat utzi eta ez bazen orduan misionetegi bat Bahnarren eskualdean sortu, beren Aita Michel eta Aita Duclosek etzuten beren dembora galdu, ezen Jainkoarentzat ederki eta ederki pairatu zuten presondegi beltz batzuetarat joanik, hetako zaintzale basekin. Hue, Annam-eko hiri-nausirat ereman zituzten herrestaka, auzitegiz auzitegi ibili, kaiola batzuetan ere preso atchiki, zume ukaldika phorroskatu eta azkenean hiltzerat kondenatu. Heriotzearen beha zagotzin bi Aita dohakabeak, *Heroine* frantses untziko soldadoek salbaien aztaparretarik atheratu zituztelarik : 1843 garren urthea zen eta martchoa.

Ondoko urtheetan Kuangai eta Kuangra-

meko eskualdetarik sartzerat lehiatu zirenek, debaldetan egin zuten urhatsik, eta ez netzazke ere entseiu horiek aipha, ez balute oraino hobeki ezagutarazi Nere Jaun Cuenoten bihotz kartsua. Ez da dudarik Jainkoak kondu atchikiko diola zeruan.

Bindinheko eskualdean bizi zen, gordea, jaun aphezpikua. Hortik aski hurbil da An-Son. Herrichka huntan batetaraten dire salbai eta Annamitak beren sal-erospenetako. 1848 garren urthean jaun aphezpikuak hor gaindi hobeki sartuko zirela menturaz egin zuen bere baitan. Bada, Annam-eko buruzagiek arrazoin bereziak bazituzten An-Son ez begi onez ikusteko, lehentchago Gualaong erregearen kontra han phiztu asaldura baten gatik. Errege horrenak egin zukeen, Frantzia alde eman ez balitzaio. Dena dela, geroztik debekatua zaiote alde batetik Annamiteri salbaien artean bizitzea, eta bertetik salbaieri An-Sonetik haratago joaitea Annam-eko alderat.

Horrengatik Annamitak aski gurutzatzen dire salbaiekin beren tratuetako eta salbaiak noiz-nahi, beren egitekoentzat, An-Soneraino jausten.

Sinhestearen hedatzaileeri gerla egiten zioten demboran, misionestik etzitaken mentura An-Soneko bidean. Deus onik egitekotz Annamita bati behar zitzaion beraz lehenik bidea zabal-arazi, merkatariak zabiltzan bidetarik urrun, eta urrun-urrungo salbaien berriak hola ikasi. Guzien buruan urrungo salbaiek iduri zuten hurbil errechenak misio-



nestentzat. Horra zer ibilia zuen buruan jaun aphezpikuak.

Hain chuchen iguzkialdeko Cochinchinan orduan bazen aphezgei bat hango berekoa: Do zuen izena. Gain-gainetik dohatua zuen aphezgei hori Jainkoak eta iduri zuen irriskuan ibiltzeko sortua. Pulo-Pinangeko apheztegitik ethorria zen, zazpi urthe ikasten arizan ondoan, gero bi urthez irakasle-lagun egonik. Nausi ohiek etzioten espanturik baik egiten jaun aphezpikuari beren aphezgeiaz, arras Jainkoari zagoela orotan alde batetik, eta ezin lotsatua zela bertzetik. Nere begiz irrisku ikaragarrietan ikusi dut geroztik eta etzuen ohean baino gehiago bururik galtzen.

Nere Jaun Cuenotek Do hautatu zuen beraz bihotzean zuen lan haren eginarazteko. Goiz batez deithu zuen eta, zart eta zart huna zer erran zion.

— Salbaitan lehenbailehen sinhestea heda dezagun, behar daukuk An-Sonen gaindi hetaraino bide bat ideki.

— Eginen dautzut, jauna.

— Nola jokatuko haiz, bada ?

— Eginen naiz tratulari, eta, tratuan bezala, joanen bertze tratulari guziak joaiten diren baino urrunago ! Oro ongi ikusi eta ikasi ondoan, berritz itzuliko naiz hunat, Aita bat hartuko dut, eta bidea irakutsiko diot . . .

— Ederki duk, Do. Orai hiri nagok osoki. Bainan hire laneko indar hainitz beharko baituk, nik emanen daiat, diakregoarekin. Hoa, egizak othoitz eta bildutasun handie-

nean ago zenbeit egunez, Jainkoak egiten daikan grazia handi eta ezin erranezkoaren beha.

Handik zortzi egunen buruan, Do, diakre berria, An-Soni buruz zoan zanpa-zanpa jauntzi tzar batzu soinean. Tratuan nahiko zuen ari segurki, bainan hortako, etzuen zerbeit, behar eta eskas: Annam-eko buruzagien baimena. Niholaz etzuela baimen hori ukhanen bere baitan eginik, tratulari handi baten muthil sartu zen berehala. Cherriak eman ziozkaten zaintzeko eta arthatzeko, bertze orduz haur prodigoari bezala. Bertze bati gaitzituko zitzaion: hari bature. Loria handi bat bihotzean eta kantuz ari zen cherrien phazkatzen. Nausiak etzuen segurki amesten zer muthil zuen: etzakien Do girichtinoa zela ere. Bainan bere lanak hain ongi eta halako amodioarekin egiten zituena gure diakreak, nun arras begi onez behatzen baitzion nausiak eta laster kargutan goratu baitzuen: cherrien phazkatzeko orde nausiaren hazteko, kozinari ezarri zuen, eta hola, gerochago salbaiekin gurutzatzeko sasoina ethorri zelarik, Do nausiarri jarraiki zitzaion herriz herri saski handi bat bizkarrean, eta saski hortan tupina, zenbeit gophor eta sukalde batean behar diren gaineratekoak.

Hainbertze lagunuen jatekoaren egiteko, etzuen lo egon behar Dok: bainan eskuak ari zitzaizkon, ez gogoa. Hau eltzekari eta bertzetarik urrun zuen. Alegia-eta deus ez, salbairi mila galde egiten ziozkaten beren mintzaira eta oiturez, mendeal-aldeko lurrez, han-

go bizitzaleez, eta bereziki hango mintzaira-ko hitz batzuen buruan kokatzen ari zen ahal bezenbat, baitzakien egun batez mintzaira hortan beharko ziozkatela salbaieri Jesu-Krichtoren erakaspentak eman... eta salbaiek etzuten segurki amesten zer chedek zabilkan !

Sei ilhabeteren buruko aski jakintsun zen Do, norat-nahi baxharrik menturatzeko. Etzuen beraz gehiago muthil egoterik eta nau-siari agur erranik itzuli zen jaun aphezpikua-ren ganat. Bere gain tratuan has zitakeela iduritzen zitzaion nihundik eta nola, bere nausi, ikusi etzituen salbaietaraino hel bait-zitaken aiseago, baimena galdetu nahi zion jaun aphezpikuari. Baimena ukhan zuen ... eta sal-erospenetako laur lagun.

Hastean gauaz ibili ziren bortz tratulari berri hauk, traba handirik kausitu gabe, eta nihor ohartu gabe nihun Ha-Drong direlako jende basetarat heldu. Etzen gehiago kozinari ttipi Do, bainan tratulari handi bere meneko eta guziekin. Bainan ez da bethi hobe handitzea ! Kozinari zeno, nihork etz-ion behatzen : orai dirua sendi diotelakotz, hil nahi dute. Behin zenbeit salbaiek hitzartu zuten gau hartan berean garbituko zutela, zituen guzien ebasteko eta lagunak esklabo bezala Laostarrerri saltzeko. Jainkoa ez dago behinere lo : zerbeit gisaz tratulari gaichoeri chede gaichto horiek jakinarazi ziozkatzen, eta gauerdi alderat salbaiak ichilka ethorri zirelarik Do hil beharrez, hau eta hunen lagunak, phuska guziak han utzirik arinago izaiteko, harasko joanak ziren ihesi.

Etzen guti salbatzea, bainan gaichoek ederrik ikusi behar zuten bidean lauzpabortz egunez. Alabainan jatekorik etzuten ez-eta jateko zerbeitekin truka zezaketen deusik ! Beren aingeru begiraleek etzituzten utzi uruski : nolazpeit aphezpikutegiraino heldu ziren bizirik eta osorik. Eta han badakizue zer galdetu zuten lehen-lehenik ? Berritz lekhu beretarat itzultzea.

Do etzen dembora nola-nahi galtzen dute-netarik segurki eta halere. Salbaien artean iragana zuen dembora puchkan, jadanik guti edo aski hango mintzaira ikasia zuen ... eta bereziki mendiz mendi bidechka bat atchemana zuen nihor ohartu gabe ibil zitakeena. Egia erran bide hori bortitza zen arras bortitza, eta bertzeak baino luzeago, mendealderat itzuli luze bat egin behar baitzen, bainan nihungo tratularirik etzelakotz hartan egundaino menturatzen, etzuen irriskurik. Guzien buruan bide hura hautatu zuen beraz Nere Jaun Cuenotek bere misionesten salbaietarat igortzeko ...

## BIGARREN KAPITULUA

### **Aita Combes eta Aita Fontaine**

---

« Bahnar » deithu salbaietan egiazko sin-  
hestearen hedatzerat abiatu ziren lehen-lehen  
bi misionestek Combes eta Fontaine zituzten  
izenak.

*Albi*-ko diosesakoa zen sortzez Aita Com-  
bes. Gazterik oraino Pariseko misionestegian  
apheztua, 1849 garren urthean Cochinchinan  
hasi zituen misionest lanak: salbaietararat  
joateko hautatua zen haatik jada. Gazte  
izanagatik, edozoin zaharrek bezenbat zu-  
hurtzia bazuen. Etzen bethi ametsetan bizi  
diren hetarik eta deusik etzuen ongi eta on-  
gi pisaturik baizik egiten. Esku-lanetako ere  
arras artecha, zerbeit hasten zuenean, iduri  
zuen etzuela egundaino bertzerik egin. Kart-  
suenetarik bertzalde. Eta nola alegrantzia  
othoitzaren amodioak lagun baitu, bethi ir-  
ria ezpainenetan zuen, harekin bizi zirenak kut-  
satzeko heineraino. Oro ilhun eta beltz zire-  
larik, hura irriz ari zen oraino, bethi oihu hau  
ezpainen puntan: « Alegera gaitzen ... ha-  
lere! » Bainan zertako behar dut gehiago  
mintzatu Aita on eta lagun maite horren al-  
de: ikusiko duzue nola mintzatuko zauzkit-  
zuen horren egintza eta urhats guziak ...

Debruak etzuen begi onez ikusten Aita Combes eta salbaietaraino heltzerat ez uzteko hameka traba eman zion bidean. Beha. Singapour derizan hiri handian atchemanik Aita Fontaine, hau ere salbaietarat zoana, untzian sartu zen Aita Combes lagun horrekin. Ondikotz, untziaz bidean jabetu ziren Chinako itsas-ohoin batzu ! Angles bat iduri zuen Aita Combesek bere ile zuriskarekin eta Chinatarrek ez dituzte Anglesak begiko zikhina baino gehiago ikusi nahi. Ohoinetarik batek ezpatakaldi bat berehala eman zion beraz Aita dohakabeari, eta hil arte joko zuen, Aitak ez balio erran Frantsesa zela. Bizirik utzi zuen orduan, bainan soinekoetaraino zituen guziak ebatsi. Eta hitz dautzuet gerochago, Nere Jaun Cuenoten aintzinean agertu zirelarik, etzutela erasia handirik aditu bi Aitek soineko ederregiak zituztela ! Erdi biluz ziren !! Horra nola hasi zuten beren bizi berria gaichoek . . .

Doidoia zenbeit ilhabete zuen Cochinchinan zirela Aita Combes eta Aita Fontaine, lehen kapituluan aipatu ibilaldi hartarik itzuli zelarik Do. Badakizue nola hunen erranetarik ipharraldetako bidea errechago iduritu zitzaion jaun aphezpikuari, hango harroka, leze eta basa-abere mota guzien gatik. Dok zion bezala : « Misionestentzat hobeak dire munduko basa-gathu eta elefant guziak . . . gizonak baino ! »

Annam-eko azken herrichka Tramgo da. Ez da mugatik hain urrun. Herrichka hortan baitezpada etche bat behar ginuela orok ba-

ginakien, bethi gordeka ibili beharko baiginuen salbaietarat joaiten. Etche bat erosi ginuen beraz eta han ezarri adichkide leial batzu. Alabainan Tramgon etzen paganorik baizik eta ez gintazken bat bakharrari fida : laster salduko gintuzten.

Delako etcherat jaun aphezpikuak igorri zituen lehen adichkideetan sendagile bat bazen arras jakintsun eta trebea. Sendagile horren jakitate eta bihotz onak herri guzia laster adichkidetu zaukuten, eta geroztik Tramgoko etche horri gerla egin badiote zenbeitetan paganoek, Tramgotarrek behinere ez diote pagano horieri eskurik eman !

Dembora hortan Do etzagon lo : Bahnarretarako bidean ziren herri eta herrichka guzietan bere sal-erospenen egiteko baimenaren ondotik zabilan. Zerbeit gisaz eskuratu zuen azkenean.

Oro prest ziren beraz lanari lotzeko. Nere Jaun Cuenotek manatu zioten Aita Combes eta Do diakreari abia ziten berehala. Aita Fontaine berekin atchiki zuen behin, zer gerta ere. Gothi derizan herrichkan zuen bere egoitza Nere Jaun Cuenotek. Handik Tramgi-rat bi egunen bidea da. Nahi-eta ez gauaz ibili behar zuten Aita Combes eta Dok, han gaindiko jendea laster harrituko baitzen arrotz bat, guziz churia, ikusi-eta.

Nahi izanik ere, lehen itzuli hortaz ez dezaket chehetasun handirik eman. Alde-batetik etzuen ondorio handirik ukhan, eta bertzetik guti mintzatu zauzkit hortaz Aita Combes eta bertzeak. Hau erran dezaket ba-

khar bakharrik *beldurtien itzulia* deitzen zuela itzuli hori gero eta gero Aita Combesek. Ilhunaren ilhunak ez omen zituen gau batez utzi zenbeit elefanten ikusterat, bainan elefantek ikusi zituzten gizonak eta batek muthil gazteetarik bati muthur ukaldi batez sabel hezur bat hautsi zion. Aita Combesek ez omen zuen chapela baizik galdu. Horren-gatik aintzinago joanen ziren segurki, bainan dembora tzarra sartu zitzaioten, errekek loditu ziren, eta nola nihun ez baitzen oraino zubirik, gibelat itzultzea zuten hoberena: hala egiten zuten.

Egia hau omen da: batzuek eta bertzeek etzutela espantu handirik, jaun aphezpikuari horiek kondatzean, eta, izan balute, laster sartuko zitzaizkoten haren kopeta zimurtzen ikusi-eta. — « Jaunak, jada ez ba linbadakizue nahi dut hemen ikas dezazuen munduan ez dela trabarik misionest bat bere bidean gelditu behar duenik ! Bainan aro tzarra denaz geroz oraino, eta zuek aro tzarrak lotsatzen baitzaituzte, hamabortz egun ematen dauzkitzuet pausatzeko. Bainan bigarren aldian ez duzue hola ukho egin beharko ! » Eta hortaz segurago izaiteko, Aita Fontaine ere heyekin igorriko zuela aldi huntan hitzeman zioten.

Hamabortz egunen buruan bide berari lotu ziren beraz Aita Combes, Aita Fontaine, Do eta zenbeit gazte. Dok gauak ez duela deus onik adiarazirik, egunaz ibiliko zirela egin zuten guziek ; bainan bi Aiten larru churriari paganoak ohart etziten, zerbeitekin belz-



tu zituzten, chapel berezi batzuekin buruak gorde ziozkaten eta eskezale batzu bezala jauntzarazi. Gisa hortan bide gaichtoena egin zuten nihor ohartu gabe. Elefantik ere etzitzaioten agertu. Nekhe eta gaineratekoak ez dire konda holakoetan. Misionestak badaki askoren berri.

Lehen geldialdia Baham delako baten herrian egin zuten. Eremu hetako nausi baxharra zen Baham hori. Herritar eta Annamitak, oro lotsatzen zituen. Ohoin hutsa, bi-phildu eta larrutuak zaduzkan oro. Bizpahirur emazteekin josia bizi zen bertzalde. Erran gabe dola misionest gaichoek mila aldiz nahiagoko zutela holako chori baten menean gelditu gabe aintzinago joan : bainan Bahamen herria bide-bidean zen eta nihundik etzitzen huts egin. Halere gaitz guziek badute beren ona : Bahamen beldurrak Annamitak handik urrun atchikitzen zituen eta horrek etzuen guti balio Misionestentzat.

Aita Combes eta Aita Fontainek batere etzuten bururik galdu ohoin baten gatik. Bertzerik ezin eginez, harekin adichkidetzea bilhatu zuten. Ilhabete bat oso-osoa iragan zuten haren etchean . . . eta etziozkaten Bahamek oro ebatsi. Ordu arte etzuen Annamitik baizik ikusi han gaindi : bi Aita misionesten larru zuri eta bizar handiek lotsatu zuten guti edo aski eta etzuen heyekin espantu handirik. Ikusten ziotenetarik zerbeiten gutizia zuenean, etzioten ebasten, bainan poliki galdetzen. Beraz, ilhabete baten buruan handik joan zirelarik, Bahamek etzitzen bert-

zeak bezala larrutuak! Hainitz aldiz Bahamen eremuetan iragan dire misionestak edo misionesten laguntzaileak geroztik ... eta ohoinak ez ditu bethi hoin guti khendurik aintzinat utzi. Zenbat aldiz ez ditu gure saski guziak azpikoz gora itzuli, barnean zer zen ikusteko ... eta hetarik gustuko zituen guziak hartzeko!

Baham dagon herritik Bo-Lu deithu herrirat egun baten bidea da. Bigarren geldialdia han egin zuten gure bidekariak eta han ere ilhabete bat egon ziren. Bainan Bahamen herritarrak Baham idurikoak balinbaziren, gutiz gehienak, Bo-Luko jendea arras ezta da, begitarte onekoa eta maitagarria. Urtheak eta urtheak baditu misionestik ez dela gehiago Bo-Lutik iragaiten, bainan ez naiteke orai ere egon zoin onak izatu diren guretzat erran eta errepikatu gabe! Gaicho jendeak! Jainkoak lagunt detzala segurki.

Ez dut uste aiphatzea merezi duenik bidekariari Bo-Lun gertatu zitzaioten: egia erran, ni ez nintzen han gogoan hartzeko. Dena dela handik bi egunez joan ziren Konpharerrat. Etzen Annamitik urrunago joaiten. Beraz hatsa aisechago har zezaketen. Akhabo kasik nekhe eta buru-hausteak! Alabainan erran zitaken bururatuak zirela eta bihotzak jauzika ari zitzaizkoten, laster sinhestearen hedatzen hasten ahalko zirela! Ondikotz, zerbeit gertatu zitzaioten orduantche ederki lotsatu zituena. Bai, uste izan zuten heyenak egin zuela aldi hartan!

## HIRUGARREN KAPITULUA

### **Kiem buruz-buru egiten dute bidekariek**

Misionesteri bidean gerta zaizkioketen guzietz jakintsun zen Nere Jaun Cuenot eta errana zioten, nihundik ahal bazen, huts egin zezatela Kiem zelako bat. Fama handiko bahnar bat zen Kiem hori. Norat-nahi zoan, etzen agurrik baizik harentzat. Egia erran, etzen nor-nahi: Annam-eko mintzaira erotik bazakien eta inguru hetan etzen tratulari handiagorik. Bertzalde bahnar eta annamitek beren tratuetan makhurrik balinbazuten, Kiem deithuko zuten bethi auziaren trenkatzeko. Annam-eko buruzagichkek berek holako gizon baten beharra egun batez ez bada bertzean ukhan baitzezaketen, beren erregeari paper bat eginarazia zioten bahnar guzien nausitzat ezagutzeko. Bihotza arras atchemana zuten beraz Kiemi Annamitek. Horra zertako mila aldiz Kiem huts egitea hobe zuten misionestek, eta, jaun aphezpikuak ipharraldeko bidea manatu ziotelarik misionesteri, bazakien zer ari zen! Jainkoaren nahia! Ko-Lun sartu orduko nor atchematen dute? Kiem. Bainan hainbertze kalte egin zezoketen gizonak, ez diote ongirik baizik eginen misionesteri eta misionesten laguneri. Ez baita froga hoberik Jainkoak ongi eta ongi nahi zuela eskualde hetan sinhestea hedatzea!

Kiemek esklaboak bazituen eta zenbeit

egun lehentchago ihesi joana zitzaion bat Bolurat. Haren bilha ethorria zen beraz herri hortarat hirur egun bide eginik. Bainan bertze orduz Kis, bere aitaren astagnen ondotik zabilalarik, profetaren aintzinerat ereman zuen Jainko berak ekharri zuen Kiem misionesten aintzinerat, heyen gidatzeko eta laguntzeko. Nola lotsatu ziren haatik bi Aitak buruz-buru agertu zitzaiotelarik ! Lehentchago jakin balute han zela !

Behinere Kiemek etzuen holako gizonik ikusi. Holako bideetan ibiltzeko etzirela segurki nor-nahi egin zuen bere baitan. Bainan nor othe ziren ? Beren herritik ihesi zoazin gizon handi eta botheretsu batzu menturaz ! Misionesten begitarreak halako bat egin zion barnean eta galdeka hasi zitzaioten nor ziren, norat zoazin : « Ez duzue nor-nahi iduri ! Dudarik gabe urrundik, arras urrundik heldu zaizte ? Ez dut behinere zuek bezen gizon churirik ikusi ! Zerbeit egiten daut holako herrialde itsusi eta galduan zuen ikus-teak ! Mintza zakizkitet lañoki ; jada maite zaituztet, eta hitzemaiten dautzuet Bahnarren artean ongi ikusiak izanen zaiztela. Hemen errege bezala naiz : Annamitek berek ez dautzuate deusik eginen, ni alde nau-zueno ... »

Misionestek etzezaketan orai gibelat egin. Zenbat aldiz ez dire heldu direnak heldu diren bezala hartu behar ! Bi Aitek etzuten beraz Kiemi ihes egiterik buruan iragan : othoitzean hasi ziren.

— Hameka egin-ahalak egin ditugu Kiem

nihun ez ikusteko, zioen aphezpikuari igorri guthun batean Aita Combeseke, bainan, iheska ginabiltzalarik, chori batzu bezala ederki eskuetararat erori gitzaio. Nork daki haatik ez daukun Jainkoak berak biderat igorri ? »

Berriak ederki lotsatu zuen Nere Jaun Cuenot eta odol gaichto frango egin zuen zenbeit egunez. Hain chuchen ni haren ondoan nintzen orduan. Guthuna irakurtu orduko, nola zuritu zen ! Bainan Jainkoaren ganat itzuli zen berehala : « Guzien buruan, Jainkoak bere egitekoa du eta nahi badu, deus ez da galdurik ! Nik halako gutizia nuen haatik nere Misionestak Banharren erdian ikusteko, nun hil arte lothuko nauen botu bat chede hortarat egina baitut . . . »

Horiek hola, itzul gaiten gure bi Aiten ganat. Kiemen laster ohartu zen lan handitan emanak zituela eta batere etzuen hori bilhatzen. Onez onean mintzatu zitzaioten. Berritz itzuli zitzaioten : « Ez duzue zeren lotsa : ni zuen zerbitzuko naiz : galdetuko dauzkidatzuen guziak eginen ditut gogo onez . . . eta uste izan ez dezazuen gezurrez mintzo naizela, adichkidantzak egun berean nahi ditut egin zuenkin . . . »

Bada, toki hautan huna zer den adichkidantzen egitea : hitzimatea ez dela elgarri gerlarik eginen ez-eta deusetan kalterik ekharriko. Hitz hori emanez geroz jatea, zorigaitzaren ondotik ibiltzea da. Bi adichkideek egiazko kontratu bat egiten dute. Huna nola.

Adichkidetzeko solasetan direneri ararteko batzu joaiten zaizkote beren etchetarat,

ez behin, bainan gehiagotan, eian egiazki bihotzetik mintzo diren eta ez ezpainen puntatik baxharrik. Baietz ihardesten badute, baxhotchari galdetzen zaio, oilo batekin, untzi handi baten bethe arno. Oilo horietarik bat erretzen da berehala eta bi adichkide beharri partitzen. Ez ditake jan, edan gabe. Bi seska muthur arnoan pulumpatzen dire, bi adichkideek batean edateko. Bainan lehen chorta ahoratu duten baino lehenago, arartekoetarik bat predikuan hasten zaiote: « Bethi orhoitu beharko duzue egundik goiti adichkide zaiztela. Baten adichkideak ere bertzearen adichkide izan ditela; baten jendeak, bertzearen jende. Eta egun batez bigetarik batek hitza jaten badu, ortziak erre dezala... edo esklabo ereman dezatela nunbeitko tzarrek! Behar gorrian leher egin dezala eta haren gorphutza jan dezatela urean arrainek edo oihanean beleek!... » Bertze ahopaldi frango ere atheratzen dute holakoetan: predikaria nolakoa den! Orduan hasten dire edaten bi adichkide berriak. Bainan hau ere ez dut ahantzi behar: bigarren oiloa eta bertze arno untzia... arartekoentzat dire...

Badire oraino handizkiago adichkidetzen direnak: hauk basurde baten hortz handiak, burdinazko bi ezpata eta zenbeit saeta pulumpatzen dituzte arnoan, paretan dilindan ezarririk pozoinki zerbeit, sokak eta... suge buru bat. Eta orduan... oro predikari, ederrik atheratzen dute!

Behin edo bertze hau ere egiten dute adichkidantzaren hobeki finkatzeko: adichkide-

gei bati besotik zenbeit odol chorta khentzen diozkate arnoarekin nahasteko. Horrek erran nahi du bi adichkideak haurridetu direla osoki eta deusek, deusek eta deusek ez dezakela hauts adichkidantza hori.

Kiemi sobera ohore handia zitzaion bi Aitekin adichkidantzak egitea. Dorekin adichkidetzea galdetu zuen : « Bi aitatchi horiek nere aitak izanen dire ; Do eta ni adichkideak. »

Aitek jakin balute adichkidantza horrek zer ondorio onak ekharri behar zituen, ez zuten hainitz dudatuko. Duda guzien gatik, Do eta Kiemek egin zuten beren kontratua. Eta hau erran behar da : Kiem bethi leial egon dela, egundaino deusetan ez duela hitza jan. Kenka gaichtoetan nihork ez gaitu hobeki lagundu. Erran dezakegu harek utzazazi daukula ipharraldeko bidea, harek atzeratu gaituela beraz Bahamen aztaparretarik. Hura izan dugu bethi bitartekorik hoberena Annamerat zerbeit eremateko ginuelarik edo Cochinchinatik zerbeit ekartzeko.

Zenbeit demboren buruan Annamitek nunbeitik ikasi baitzuten gure berri, nihundik nahiko gintuzten bildu eta Kiemi zer-nahi eskaini zioten gure saltzeko. Debaldetan : Kiemek ez gintuen saldu !

Geroztik, ahalak joantcherik, Kiem herri hautarik urrundua da. Ez du guretzat deus egiten ahal den lekuan : gure bihotzetan chokho bot atchikitzen diogu halere, sekulan ez baitugu aski erranen zer diogun zor.

Zer diren haatik Jainkoaren chedeak ! Nola artha hartzen duen sinhestearen hedatzen

dabiltzanez ! Horra beraz gizon bat ikusi nahi ere ez ginuena : uste gabean biderat agertzen zauku. Adichkidantzak egiten ditugu, adichkidantza horren behar gorri-gorrienean ginelarik ! Hura bere beharrak bertze norapeit erematen duelarik, jada ez dugu gehiago haren behar handirik, Annamen ez baitiote gerla handirik egiten orai sinhestearen hedatzaileeri eta nihor gabe edozoin bidetan ibil baigintazke !!!

Ez da dudarik Jainkoak berak igorria zuela Kiem misionesten biderat. Hura gabe nihundik eta nihundik etziren urrunago joaiten ahalko, bertze nihork ez baitzituen gidatu nahiko. Misionestekin ziren muthil gazteen begitarteak jada han gaindiko salbaia guziak harritzen bazituen, erran ditake misionestenak arrunt eta arrunt lotsatzen zituela ! Liburu huntan behin baino gehiagotan ikusiko duzue debruak zer amarrua duen eta nola baliatu den gure larru zuriaz gutarik salbaiak urruntzeko.

Annamitetarik hurbilegi zirela oraino han iduriturik, Doren adichkide berriari galdetu zioten eia urrunago gidatuko zituen eta gizagaizoak, berak asti hainitz etzuelakotz, Kolangeko bere adichkide bati fidatu zituen harek nahi zuten tokiraino bidea erakuts zezoten . . .

Kiemen adichkide horrek Bliou zuen izena. Nola hoinbertze lagun ez baitzezazken aise gorde bere etchean, oihan batetarat joanarazi zituen, bertze egoitza bat urrunago atcheman arte. Etzitazken kampoan bizi bi Aitak eta bertzeak : lanean hasi ziren



beraz berehala eta arratsaldeko bazuten, ez segurki jauregi bat ez eta ere etche bat, bainan . . . zerbeit. Zerbeit, eskuaraz etchola erraiten zaiona. Ur eder bat kantuz bazoan etcholaren aintzinean. Eskuin eta ezker, aintzinean eta gibelean, oihan beltzaren beltz ederra. Urrunean mendiak. Horra nun bizi ziren Aita Combes, Aita Fontaine, Do eta bertze lagunak, goiz batez tapa-tapa Aita Desgouts eta ni bizkarrerat erori ginitzaizkiotelarik.

## LAUGARREN KAPITULUA

### **Aita Desgouts eta Aita Dourisboure bidean**

Nere Jaun Cuenotekin nintzela badakizue Aita Combesez jakinarazi ziolarik nola buruz-buru egin zuten Kiem Etzen guti harritu jaun aphezpikua !

Parisen apheztu orduko nunbeitik ikasi nuen ni ere naski salbaietarat igorriko nindutela egun batez eta jada maite nituen beraz salbaiak. Untzian nindoalarik, hameka aldiz othoitz egin dut heyentzat !

1849 garreneko urrian Nantesen untzian sartua, zortzi ilhabeteren buruan heldu nintzen bakharrik Nere Jaun Cuenoten egoitzarat. Jondoni Joani Batichtaren phesta bezpera zen. Jaun aphezpikuak berehala erran zautan, nahiz Bahnarretarat nere igortzeko chedea zuen, etzakiela ez othe ninduen egun batez, zerbeit arrazoinez, Annamerat deithu beharko, beraz zer gerta ere hobe nuela berehala Annamiten mintzaira

ikastea. Hortzez eta haginez lanari emanik, hirur ilhabeteren buruko kofesatzen has-teko gei nintzen. Bainan bihotzez igurikatzen nuen manua aski laster ethorri zitzautan : Aita Desgouts lagun, joan nadin Aita Combes eta Aita Fontainen ganat. Zer zoriona !

Hitz bat lehenik nere bideko lagunaz. On da sainduekin bizitzea : hetaz orhoitzea ere ba. Sainduetz orhoitzen denak ez othe du San Agustinen boza hura bera laster bihotzean adituko : « Eta ez othe duk hik bertze batzuek egiten dutena egiten ahal ? » Sinhesten ahal duzue deus ez dela hoberik norbeiti berehala saindutasuneko bidea har-arazteko . . .

Aita Desgouts saindu bat zela erran ditake. Etzen jada gazte-gaztea, ez-eta ere Frantziatik ethorri berri-berria ni bezala, ezen itsasoa iragan baino lehen urtheak lanean iraganak zituen Frantzian Auch-eko diosesan. Bainan martirigoaren gutiziak bere diosesa utz-arazirik, Cochinchinan zen aspaldi. Gaicho Aita Desgouts ! Bethi orho tuko naiz nola erran zautan behin : « Ni, ez naiz bekhatoros handi-hand bat baizik ! Beraz nola nahi nuken nere sinhstearentzat ezpatakaldi batez lephoa mozten balautet hemen gaindi ! » Berrogoita hamar urtheren gainean zitaken jada orduan. Nik baino hogoi bat urthe gehiago bazuen beraz, bainan zaharrago iduri nuen oraino : jada kraskatua zen, eta gutien-gutienetik hiruetan hogoi urthe emanen zinozkaten orok.

Ona zen Aita Desgouts eta etzen ona baik. Gure artean ez dugu egundaino « Aita Desgouts » erran, bainan bethi « Aita Desgouts ona ». Etsizaken aipha, ona zela erran gabe.

Zoin ichil eta gordea, bertzalde ! Eta bethi bertze guziak baino beherago nahi ! Gaichoa ! Bahnarretan bortz Aita baginen elgarrekin : hura zaharrena ... eta halere hura, gure muthila kasik ! Behinere etzuen hitz bat bertzea baino gorago erranen. Etzakien kechatzea zer zen, zenbeit eta zenbeit aldiz khechatzekoa izan duelarik segurki gurekin eta bert ekin ! Haren lañotasuna orok maite ginuen bai-eta haren zuzentasuna. Bainan aski erranik badut hola, geroak ere zerbeit erranen baitu Aita Desgouts onaren alde.

Misionetako lanak Kuangaieko eskualdean hasi zituen nere lagunak eta han zen oraino jaun aphezpikuak manua igorri zio-larik Gothirainoko bat berehala egin zezan, zerbeit baziola errateko. Eta badakizue zer erran zion : nerekin salbaietararat joan behar zuela. Salbaietan guk sinhestearen hedatzen ari behar ginuen, Aita Desgouts ona aldiz ikastegi berri batean aphezgeien plegatzen ! Ikastegi hori etzen haatik zabaltzeko heinean oraino ...

Gothirat hazilaren lehen egunetan heldu zen Aita Desgouts. Bideari lothu baino lehentchago Aita Combes eta Aita Fontainek hitz bat hel-arazi zaukuten : nola atseginekin, atsegin handirekin ikasi zuten heyen ganat baginoazila. Dembora berean

chehe-cheheki ematen zauzkuten Kolangeko berri guziak. Etziren haatik oro hobere-netarik. Hala nola hau: bat eta bertzea sukhar gaichto batek lurrari josiak zauzkala aspaldiskoan, eta laguntzaile guziak bardin eri zituztela ! Horrengatik Aita Combes etzen arras lotsatua, ezen, hitza bururatzeko, bethiko oihua egiten zaukun ! « Alegera gaitezen ... halere ! » Jainkoak nola dakien noiz zer egin ! Misionestak azkartu nahi dituelarik, beharrietarat berri tzarrenak hel-arazten diozkate: han gerla dela, hemen izurritea, haratchago irrisku handi bat, nunbeit hotza edo bero edo gosetea edo bertze zer-nahi. Eta lotsatzeko orde, holako berriek errabia on bat biho-tzean ematen diote misionest guzieri... Su berri bat lotzen zaiote ...

Ongi orhoit naiz oraino neroni Larresoroko ikastegi maitean iragan ditudan urtheez. Haur hotz bat baizik ez nintzen. Eguerdi batez oro jaten ari ginen demboran, lagun bat gora-gora irakurtzen ari zen. Misionest baten berriak emaiten zituen liburuak, eta gehiago dena preso zagon misionest gaicho batenak. Gosea ahantzia, irakurtzaileari nindagon nere begi eta beharri guziez. Lehen aldikotz orduantche aditudut Jainkoaren deia: « Hik ere egun batez misionest egin beharko duk ! » Hogoï urthe badu ichtorio horrek, eta egungo egunean oraino, orhoitzean, nigarra heldu zaut begirat ! Oi, benedikatua izan bedi segurki Jainko Ona ! Jesu-Krichtok gurutzea bizkarrean hartu duelakotz, gure gurutzeak

arinago dire. Gure min guzieren beren kires-  
tasuna khentzen diote zeruko Aita onak,  
eta zorigaitzaren aldean bethi hantche da  
zoriona . . . .

Ilhantze batez lothu ginen bideari Aita  
Desgouts eta ni. Hazilaren hameka zen. Bi  
gau luze urez ibilirik, — alabainan egunaz  
ez ginuen agertu ere behar — untzitik men-  
di handi baten ondoan atheratu ginen. Ba-  
ginakien irrisku frango kausituko ginuela,  
bainan untzitik atheratu orduko urrunt-  
chago zenbeit gizon elheketa entzunik, no-  
la harritu ginen ! Lotsa baino atsegin ge-  
hiago zuen haatik nere lagunak eta amets  
gozoena berehala egin zuen : « Aldi huntan  
nahi nuena badut ! Martir hilen naiz orai-  
koan bederen ! » Baduk hoberik : mintzat-  
zaileak, gure biderat heldu ziren ! Geroz-  
tik zenbeit aldiz irri egin dut Aita Desgouts  
onarekin huts egin ginuen martirgo hortaz,  
bainan egia aithortu behar dut : dembora-  
ren buruan ere halako urriki bat bazuen  
gaichoak ahoko choria hola eskapaturik !

Mendiz etzen biderik eta gauerdi arte  
ederki pekatu ginuen hango patarretan goi-  
ti. Orduan pausatu ginen lehen aldikotz eta  
pokado bana jan, egundaino bezala mendia-  
ri lotzeko berritz. Urruntchago elefanten  
orroak entzun gintuen, etziren arras gure  
bidean. Ardi eta ahuntzen ondotik haurrean  
ibilia, nere hogoita hamar urthe ederrak  
zamari, ni erdi aise banindoan patar guzien  
gatik : bainan ikusi bazinute nere lagun  
gaichoa ! Zer kalbarioa iragan zuen gau har-  
tan ! Gurekin gintuen lagunetarik bat bi-

dean erori zitzaukun, indar guziak joanik. Egunak ez atchemateko, hantche berean utzi ginuen gizagaizoa bi lagunekin, ahal zuen bezala eta ahal zuenean jarraik zaki-  
gun. Tramgon, ederki izerturik, jo ginuen argiko eta hango adichkide baten etchean gorde, nihork ikusi gabe. Egun bat baginuen loz eta jatekoz asetzeko. Hitz dautzuet ederki baliatu ginuela. Bainan iguzkia mendi gibelean gorde orduko, makhilak eskuan eta zakuak bizkarrean ginauden aintzinago joaiteko.

Hamabortz ginen orotarar. Do diakrearen anaia zoan aintzin-aintzinean. Ezpata bat bazuen traba guzien baztertzeke. Gau hartan deusek ez gintuen gelditu behar: basa-gathu eta gainerateko guziak norapeit joanak zitazken ! Doidoia zenbeit basa-ahuntz eta orkatz entzun gintuen hanhemenka ... bainan guk lotsatu gintuen hek.

Gurutze handirik ez duenak, ttipiak be-  
deren behar ditu edo lokhartuko da. Guk ez ginuen lokhartu behar: zer-nahi ikusi ginuen beraz gau hartan chinaurri larri batzuelin: *ko-tu* deitzen dituzte han gaindi. Zamarra bezala lotzen dire chinaurri horiek larruari eta, khendu nahi balinbadire, eztena larruan sartua uzten dute oraino. Michteriozki bada horietarik eskualde zenbeite-  
tan eta bideko deus ez da okhaztagarri-  
gorik ...

Gauerdi gabe Annameko muga iragana ginuen halere: beldur gutichagorekin egin ginuen beraz goizaldeko bidea. Eguna za-

baldu gabe, berritz gordeak ginen haatik oihan beltz batean, salbu gure lagunetarik bizpahirur. Hauk eskuin eta ezkerreko herrichketaraino segitu zuten, nun zer ageri zen ikusteko, guziz han ga ndi bazen Annamitik jakiteko.

Sasipean ginaudelarik nere lagunak izpiritua nunbeit zuen eta huna zer erraiten zautan ahapetik: « Zer bizi ezin sinhetsia deramagun, adichkidea Jainkoak egin ditu manamenduak eta guk manamendu horiek ez ditugu segitzen ! Gauak egin zituen lotzeko, egunak ibiltzeko ... eta beha zazu zer egiten dugun ! Milaka aldiz zuk eta nik errepikatu ditugu Dabiden hitzak : « Jauna, ihuna igorri duzu, gaua ethorri da eta orai abere gaichtoak atheratuko dire Jainkoak bidean ezarriko dioten jatekoaren bilha. Gero jeikiko da iguzkia, orduan gordeko dire abereak, eta atheratuko da gizona bere egitekoetarat berritz ilhundu arte ! » Hitz horiek zer erran nahi duten ikusten ez duena itsua da eta bizkitartean iduri luke guk ez dugula ikusten, abereak bezala gauaz gabiltza, Annameko jauntto bihotzgabe baten gatik ... »

Arte hortan, urrunago joan lagun hek itzuli zitzauzken, nihun Annamita baten itzalik ikusi gabe. Bulharrak zabalik hatsa hartzen ahal ginuen beraz eta berritz bideari lotzen : ez ginuen hainitz luzatu.

Arratsari buruz zer harritzea haatik biderean erdian Annamita bat agertu zitzaukularik betbetan ! Lurraren barnean gordeko ginen, ahal izatu baginu. Arras gaine-

rat ethorri zitzaukularik ezagutu ginuen bakharrik: Do diakrea ginuen. Lau egun bazuen bidean zela gure atchemaiteko. Lorietan jauzika hasiko ginen hura ezagutzearekin, bainan irriak laster sartu zauzkun nola eta nun bizi ziren erran zaukularik. Bainan misionest guziek badakigu gurutzearen garhaitzeko egiten dela misionest eta bihotzak Jainkoari altchatu giniozkan, Fiat ! erranik.

Ondoko bi egunak Bocham lotsagarri haren etchean iragan gintuen. Aski gizonan zen eta gure saskiak etzauzkun arras hustu. Handik Bolurat egun baten bidea da. Zer bidea haatik ! Mirakuilu da Aita Desgouts ez bazitzaukun hamarretan hil ! Mendiak hain chutak dire nun elgar lagundu behar baiginuen eta noiz-nahi, elgar utzirik, zuhaitzen erroeri aztaparka lothurik aintzinatu ! Bainan gero punta batzuetarat heldu eta berritz beheiti abiatu behar zelarik, bizkar hezurra hausteko leze batzuetan barna ! Jainko maitea ! Oraino begietan dut nere lagun chahar gaichoa, bi makiletan finkatua belhaunak noiz nahi huts egiten ziolakotz ! Herrestan eginen zituen hamar metra, gero hogoi gibelka irriskua ikusi nahi izan ez balu bezala ! Eta gero behererat heldu orduko, berritz egundaino bezala haste ! Zainik etzuen gehiago arratsean eta tiroka ere ez ginion urhats bat eginaraziko. Egiazki urratua zen Aita Desgouts. Salbai batzuek bizkarrean hartu ez balute, etzen helduko. Ni aldiz ez nint-



zen hala nekatua. Oi gauza ederra da gazetetasuna !

Bolun ginen. Hango jendea ez da aberatasa, bainan ederki lagundu gintuen halere arrats hartan. Eguberri zen biharamunean. Gau hartako nere ametsak eta ametsak : « Mundu guzian zer alegrantzia gaur ! Aphezek hiruna meza emanen dute, eta nik bat baxharra ezin eman ! Hiruetan Jesus maittea bihotzetarat jautsiko zaiote, eta niri behinere ! Ezen ni salbaien erdian naiz orai ! Duela urthea untzian nintzen oraino ! Agian egun hobeak ethorriko ahal zaizkit noizbeit ? Zeruan bederen !... » Aita Desgouts nekatuegia baitzen berehala bidean emateko, hirur egun handi egon ginen Bolun.

Handik Konpharrerat joateko berrogoita zortzi oren behar dire. Izerdi ederrik igorri ginuen bidean, negua izanagatik, bideak lerra baitziren. Elhurra egina zuen eguberriz. Irina erori zela erran zaukuten han gaindiko salbaiek.

Abendoaren hogoita hamekan oihaan bethan atchewan gintuen gauak. Gidariek, abar batzu han eta hemen bildurik, etchola tchar bat egin zaukuten berehala eta su handi bat erdian phiztu. Nekhearen nekhez Aita Desgouts etzitzen gehiago mintza. Zabal zabala lurrean etzan zitzautan beraz eta lokhartu. Tiraka iratzar-arazi nuen biharamunean « urthe on » errateko : « Aita, altcha bihotza ! Bi egunen buruan ikusiko eta besarkatuko ditugu Aita Combes eta Aita Fontaine ! »

Do gidari, bidea hartu ginuen aski goiz,

bainan ez gintuen ehun urhats eginak, orro bat ikaragarria egin zaukularik Dok : « Kolpatua naiz ! Bainan laudate Dominum ! » kanabera punta zorrotz bat ondoraino zangoan sartua zuen.

Hauche erran behar dautzuet, orai eta gero jakin dezazuen : han gaindi etsaien kontra herri bat zaindu nahi dutelarik, kanabera puntak landatzen dituzte inguruz-inguru, ongi zorrotzurik. Badire zehe bat luze direnak, eta itzea baino chorrotchago. Zenbat salbai ez da hiltzen, horiek zangoa kolpaturik ! Do hirur ilhabete handi egon zitzaukun kolpe hortarik gelditua ...

Urthea ongi hasten ginuen segurki ... baliatzekotz, urtheak hola hasi behar baitu !

Odol hainitz bazoakion diakre dohakabea-ri eta mihise bat bezen churi egina zen. Etzen lotsatua halere, eta erdi irriz erraiten zaukun : « Benedikatua izan bedi segurki Jainkoa ! Urthea ez nezaken hobeki has ... »

Laguntzaileetarik bizpahirur lasterka joan ziren lehen herrichkarat hango jendea-ri erraterat zer gertatu zitzaukun heyen eremuetan eta zatorzkigun laguntzerat. Herri guzia han ginuen ondoan gerochago. Oro ikharan zauden haatik. Gu bezalako gizonik egundaino etzuten ikusi eta azkarrak izan gintazken alde batetik, eta Do kolpatu bazen, heyen gatik egin zen, bertzetik. Gogo onez lagundu gintuzten beraz : « Ez gintuen segurki zuen kontra landatuak punta horiek ! Hortik iraganen zinetela jakin baginu, ez ginuen biderik hetsiko. Ez gaitzatuela beraz madarika ! » Do beren herrirat

airean ereman zaukuten, han arthatzeko ..

Gertakari horren gatik ilhuneko Pharrerat helduak ginen. Handik Kolang zenbeit orenen bidean da baxharrik. Freskoan kolpeak etzion halako mina egiten diakreari eta aski aise jasan zituen bizkarrean zabilkatenek bide tzar hetan eginarazten ziozkaten jauziak. Bainan biharamunean deus etzezaken jasan eta Pharren gelditu zitzaukun. Gizagaizoa etzen beraz gurekin Aita Combes eta Aita Fontaine eguerdi alderat besarkatu gintuelarik ! Zenbeit egunen buuruan ethorri zitzaukun baxharrik, Pharreko salbai baten bizkarrean istapeka.

## BORTZGARREN KAPITULUA

### **Kolangen**

Nihork ez du ahantzia Aita Combes eta Aita Fontainen egoitza zer zen : oihanaren erdian etchola tchar bat. Gizonik etzitzaio-ten usu heldu ikusterat, ba haatik Jesu-Krichto gure Jauna. Egun guziz ez bada, bederen aski maiz. Sukharrak etzituen ordu arte bethi utzi meza sainduaren erraite-  
rat. Misionesten etsai handia sukhar hori da : indarrak laster khentzen ditu eta urinak urtzen. Gu harat heltzean, Aita Combes etcholatik agertu zaukularik, ez nuen ezagutu. Bizkitartean aski dembora elgarrekin egonak ginen Parisen eta etzuen urthe bat baino gehiago ikusia nuela ! « Zu zarela Aita Combes ? Ez dezaket kasik sinhets ! » Hitz horiek erraitean, jauzi batez

etche aintzineko erreka iraganik. bi besoak zabalduak niozkan gizagaizoari. Irriz ihardetsi zautan : « Zaude, adichkidea : ikusiko dugu eia sei ilhabeteren buruan horren aise eginen duzun oraino jauzi zuk ere ! Bainen alegera gaitzen halere ! Eta benedikatua izan bedi egun hemen biltzen gaituen Nausi Ona ! »

Nun othe zen Aita Fontaine nindagon, barnetik oihuka hasi zaukularik : « Ni jaun handiegia naiz zuen biderat ethortzeko : zuek zatozte hunaraino ! » Aita gaichoa ! Aintzineko egun batez kolpatua hura ere, etzana zagon, ichter guzia belztua. Minak laster gaichtatzen dire toki hetan.

Horra beraz lau misionest elgarrekin etchola tchar batean, gizonen egoitzetarik urrun, eta Jondoni Batichta bezala abere gaichtoen erdian !

Oihaneko aireak etzion on egin Aita Desgouts maiteari, berehala eritu zitzaukun. Nik ez nuen luzamen puchka bat baizik, Aita Combesek lehen egunean errana frogatzeko. Hamabortz egunen buruko sukharak hartu ninduen ! Ez nakien oraino horren berri : ez nion beraz amor eman nahi izan berehala. Orduan ikaragarrizko su batek burutik zango puntetarat hartua, eta nere laguneri deus erran gabe, mainhatzerat joan nintzen. Zer haurkeria ! Ure at orduko, odol guzia hormatu zitzautan eta ez nintzen aise atheratu uretik ez eta etcholan sartu, zabal-zabala etzateko. Azkarrari gaitza oraino azkarkiago lotzen baita, ez da sukharrekin nik ikusi ez nuenik. Sen-

datuche eta ere, nere meza ez nuen hasi-eta bethi segitzen ahal, hala ahuldua bainintzen !

Guzien gatik, nork erran etchola hartako zoriona ! Jainkoak berak harat bilduak, han ginauden bertze orduz Jesus Betlemeko etcholan bezala. Mihise beraren gainean etzanak, lauak su berari so, kantuz eta othoitzean gineraman dembora, artetan pipa on batzu errez, goiz edo berant Jainkoa urrikalduko zaukula. Bertzeak baino hobekizena, oihanerat joanen zen jateko zerbeitzen bilha. Oro on dire bertzerik ez denean. Iratze erro edo belhar batzu bildurik, ekharriko zituen, egosiko ... eta, irrisarekin nahasirik, janen zituzten etcholako eriek, bertze batzuek bertze nunbeit epherrak jaten dituzten bezen gogotik.

Egunak hola zoazin. Behin sekulako phesta bat egin ginuen haatik. Beha. Gutarik batek errekan arrain bat atcheman zuen ... chardinaren heinekoa, eta, Aita Combes baiginuen nausi, chardinaren heineko arrain hori lau parte egin zuen ... eta bakotchak gure parte ja ginuen ! Zer phestaguretzat ! Bainan gertatu zauku ederki barrur egitea ere, eriegi izanez oro jatekoaren bilha joaiteko !

Osagarri onean delarik eta appetitua chorrotch, aski errech da irrisaren irestea, idorrik ere. Sukharrak hartzen zaituenean, irrisaren usainak berak lotsatzen zaitu. Eta bertzalde haste hetan bederen ez ginakien bethi jatekorik ukhanen ginuen ere. Bainan Jainkoak adichkide batzu igorri zauzkun

lastersko : Konkomo derizan herriko jende gaichoak. Kolangeko oihanean iragan dugun demboran, hek ekharri daukute gure irrisa guzia.

Gu han kokatu eta laster, badakizue nor ethorri zitzaukun ikusterat ? Kiem. Eguerditan bazkaltzeko gintuen iratze erroak ikusi zituelarik, nigarrez hasi zitzaukun ... eta handik bi egunen buruan haren muthilek etcholarat ekharri zauzkuten bi basaidi, cherri eder bat eta zenbeit oilo.

Sukharrak uzten gintuelarik, ez ginen lo egoten : inguruetako herrichketarat joaiten ginen lasterka. Aita Fontainek bere ichter-reko mina etzuen arras sendatua : horren-gatik itzuli horietan guzietan gurekin zabilan, jada. Behin Aita Combesek ere minhartu zaukun, kanabera punta bat zangoan sarturik Dok bezala : zauria etzitzaion haatik gaichtatu eta hamabortz egunen buruko sendo zen.

Asteak bazoazin anhartean, ilhabeteak ere ba, eta Bliou dakizuenari debaldetan galdetzen ginion urrunago chokho bat atchewan zezan nunbeit guretzat. Itzul zadien eskuin, itzul zadien ezker, orok beltzuri gaichtoa egiten omen zioten : nihork nihun ez gintuen gu nahi ! Ez gintazken bizkitartean bethi etchola hartan egon : hurbilegitik zabilzan tratulari annamitak. Bliouk berak errana zaukun, goiz edo berant, azkenean ohartuko zauzkula. Eta egin ziren ! Zenbeit Kolangeraino ethorri ziren, beren begiz frogatzeko, bainan nihork ez

gintuen saldu. Ethorri bidetik itzuli ziren beraz Annamitak.

Begiak ez ginetzazken gehiago hets: lehen aldian ez bagintuzten atchewan, atchematen ahal gintuzten bigarrenean. Bertzalde gure oihana etzen osagarriarentzat hoberenetarik bere umidura eta aire eskasarekin. Jada muthil bat burutik joana baginuen: noiz-nahi biluz gorri-gorria oihanaren erdian atchematen ginuen, soinekoak zuhaitz baten puntan. Aldi batez hirur egunen buruan atchewan ginuen baxharrik, nunbeit: belhar jaten ari zen gosearekin. Geroztik hobekitu da segurki, baina oraino chilo bat badu buruan. Sukharrek ez baigaituzte geroni hortaratu, eskerrak zor ditugu segurki Jainko Onari!

Nigarrak begietarat heldu zauzkit Kolan-geko berriak hemen ematean. Atsegin eta zorionezko nigarrak dire haatik! Baginuen segurki hainitz jasaiteko, hala da, baina Jainkoak ez othe daki zer-nahi landareri usain onaren ematen? Gaua baizik ez baginuen begien aintzinean eta ez baginakien norat joanen eta zer bilhakatuko ginen oraino, bederen hau ez ginuen ahanzten: Jainkoarena dela lur guzia eta beraz, nun-nahi izanik ere, bethi Haren gerizan gine-la! Zertako lotsa beraz? Apostoluak lotsatu ziren eta berehala Jesusek larderiatu zituen...

Oren beltzak bagintuela horrengatik ezin ukatua da. Halako batez huna zer erraten zautan Aita Combeseke: « Oi, hil baino lehenago lauzpabortz paganoren bathaiatzeko

zoriona banu, edo bederen haur batzueri katichima puchka bat irakusten ahal banio-  
te, zoin aise joan nintaken mundu huntarik !  
Eta zoin gogotik kanta nezaken Nunc Di-  
mittis ! »

Jainkoak hitz horiek aditu zituela iduri  
du, ezen Aita Combes hola mintzo zitzau-  
talarik, jada bidean bazen gizon bat, Bliou-  
ren jendekitik. Hura izanen da gure lehen-  
lehen ikaslea : Hemur zuen izena eta Ko-  
xam deithu herrikoa zen. Nihork ez gaitu  
eskualde hetan sinhestearen hedatzen ge-  
hiago lagundu Hemurrek baino. Bainan  
Jainkoak ederki saristatu du : Bahnarrik  
ez da bathaioko urak lehenago garbitu due-  
nik . . .

## SEIGARREN KAPITULUA

### Koxamen.

#### **Debrua sinhestearen hedatzaileen kontra**

Hemur Kolangen ikusi ginuelarik nungoa  
zen erran zaukun berak, eta guk berehala  
galdetu ginion, Koxamerat joaiten baginen  
egoterat egun batez, zer begitarte eginen  
zaukun hango jendeak. Etzakiela ihardetsi  
zaukun, bainan, bere herritarrak mintza-  
turik, hek errana helaraziko zaukula : « No-  
la nahi, Koxamerat Bliourekin itzuli bat  
egin nahi baduzue, atherbea eta jana lorie-  
tan emanen dauzkitzuet, nik ». Etzen gaiz-  
ki, eta berehala hitzeman ginion ondoko  
egun batez joanen ginetzaiola ikusterat.



Hemurren herritarrek behinere etzuten kampotarrik ikusi. Behar gabe ez lotsatze-ko Koxamarrak Aita Fontaine eta Aita Desgouts gure etcholan utzi gintuen lagun-zaile gehientsuekin, eta Aita Combes, Do, ni eta bi erakasle lothu baxharrik bideari.

Kolangetik Koxamerat egun baten bidea da, zazpi zortzi herrichketan barna. Herrichka horietan gu ez ginen sartu. Bainan horietan ez sartzeko, gure bidea sasiz-sasi egin behar ginuen. Zer izerdiak igorri gintuen ! Bainan ilhuntzeko Koxametik oren erdi baten bidean ginen, Bonang deithu bertze herrichka baten alde-aldean. Hain chuchen phestak zituzten Ponangen eta herriko jende guzia, plazarat bildua, asean eta bethean zagon. Norbeitek ikusi gintuen halere eta bertzeak ohart-arazi. Ustez etsaiak ginen, orroaz hasi ziren oro. Bainan ez giniotela behatzen ere eta aintzinat ginoazila ikusirik, ichildu ziren eta ... dudarik gabe, berritz phestari lothu.

Gau ilhuna zen Koxameko lehen etchetararat heldu ginelarrik. Bliou hasi zen Hemurri oihuka. Bainan hunek ez gintuen herritarren baimenik gabe sar-arazi nahi. Bildu zituen barne batetararat, erran zioten nor ginen eta nola haren etcherat ginoazin. Hemur herriko gizon handiskoenetarik baitzen, nihork etzion deusik ihardetsi, eta Hemurrek lerro-lerro ereman gintuen bere etcherat. Han egin ginuen lo gau hartan.

Koxamerat sartu gabe bada ibai bat jada aski maiz aiphatu duguna : Bla deitzen da. Ipharraldetik heldu da, bainan Koxa-

men betbetan mendeal alderat hartzen du. Aski zabala da, eta guziz oldar handian doa. Udan ur guti dabilka haatik.

Nere Jaun Cuenotek nunbeitik bazakien Bahnarren eskualdetan ibai handisko bat bazela, Laoseko ibai handirat bere urak zeramazkana : Bla hori da delako ibaia. Aita Combes Bahnarrekin egotekoa zen : Aita Desgouts ere ba, gerochago aphezgeitegi bat idekitzeko. Bainan Aita Fontaine eta ni, ibai hori atcheman orduko, horri segi urrunago joaitekoak ginen. Aphezpikuak hala manatua zaukun eta liburu bat eman hango mintzairari ohartzeko.

Bainan chedeak ez dire bethi bururatzen. Behinik behin, hori ez dugu behinere bururatu. Eritasunak sobera langile janen ziola ikusirik, jaun aphezpikuak jakinarazi zaukun etzuela balio urrunegi joaitea : « Ibaia atchemanen duzuelarik, urrunago joan gabe, koka zaizte aldeko herrietarik batean, eta han berean loth lanari ... »

Lantegirat helducheak ginen beraz. Denik ere beherachago jautsi behar othe ginuen, eskualde aranago baten bilha ? Dena dela, ez ginuen gehiago buru-hauste handi handirik ...

Biharamunean gure begitarte churiak Koxameko salbaieri agertu giniozkatelarik, nola eman zauzkun beha ! Zorigaitzez bat baxharra etzaukun ondorat menturatu eta inguru herriez ez ginuen chehetasun bat ere ukhan. Funtsean bat ethorri balitzauku ere alderat, nola adituko ginuen elgar ? Heyen mintzaira ez ginakien, salbu Dok zenbeit

hitz, eta erran gabe doa berena baizik etzakitela. Ez ginioten beraz urruntchago joaiteko laguntzarik galdetzen ahal izan.

Ibaiaren ezkerretik da Koxam. Ezkerrean mendi handi bat oro gordetzen zauzkuna. Beharra eragile handi: puntaraino joan nintzen ahuntz bat bezen zalhu, Aita Combes behearean utzirik, nunbeit zerbeit ikusiko othe zen handik. Puntaren puntan zuhaitz bat bazen hain chuchen. Urrunago ikusteko, hartarat igan nintzen aztaparka. Bainan igan banintzen igan, gutik egin zuen ez banuen hantche bizkar hezurra hautsi. Alabainan izerdi uretan nintzen. Zuhaitz haren puntan hotzak berehala hartu ninduen eta indar guziak betbetan joan zauzkitan. Ezagutza ere ba naski. Arras nere baitaratu nintzelarik, zuhaitzari bi besoz lothua nindagon, hortzak karraskan. Nola eskerrak bihurtu niozkan berehala Jainko Onari !

Hala lehertu, halako irriskuan izan ... eta deusik ikusi gabe abiatu nintzen beheiti, ezen nere mendiaren aintzinean bertze mendi batzuek oro gordetzen zituzten. Aita Combes nere beha zagon. Ondikotz, ez nion berri onik emateko !

Horrengatik Koxameko itzuli hori ez ginuen arras debaldetan egin : Hemur etzela nor-nahi baginakien orai, bai-eta ondoko egunetan haren gainean kondatzen ahalko ginuela. Kochamen lehen bai lehen etche baten egiteko chedea hartu ginuen beraz, etcholan utziak gintuen bi lagunekin hortaz mintzatu-eta.

Oihaneko etchola hortan maiz eta maiz gure ikusten ibilia baginuen gizon bat : Diong-Dia zuen izena. Lan eginarekin adichkide, bi besoak gurutzaturik noiz-nahi ore-nak egonen zen gurekin. Mandatu batzu eginarazten giniozkan noizetik noizerat, eta hortan truk ogi phuska bat edo bertze ematen. Etzuen bizitzeko bertze irabazpiderik.

Koxamerat joaiteko chedea ginuela aditu zuelarik, lotsatu zen, eta badakizue, zer egin zuen gure gibelatzeko ? Herriz herri berria hedatu, ginabiltzan toki guzietan emazteak ebasten gintuela, eta nahi gintuen guzien hilarazteko mila eta mila sorginkeria bagintuela ! Eta ondikotz, salbu Hemur gure adichkideak, orok gezur horiek sinhet-si ziozkaten ! Hemurrek, ba, gure alderdia hartu zuen goraki, eta oihuka ari zen nahi zuten guziori : « Diong-Dia ez da gezurti handi bat baizik. Gizon churiak, harek dion bezalakoak balire, etziren Bliou famatuarekin adichkidetuko ! » Bainan gezurrak laster egiten ditu erroak eta handik goiti aski begi gaichtoa egiten zaukuten salbaiek.

Hamar urthe joan dire gutienetik guk gezur horiek hedatu zirela ikasi arte. Ordukotz ezagutuak ginen han gaindi ere. Bainan ez baginakien gezurrik gure kontra hedatu zutela, aise ohartzen ginen bederen jendeak arras ihes egiten zaukula, legena ukhan baginu bezala. Gizon edo emazte, nor-nahi kausi zadiela gure bidean, hiru debruek hausteko lasterka abiatuko zen gu ikus orduko, oihanak oihanari. Herri edo

herrichka batetarat hurbiltzen baginen, laster athe eta leiho guziak hetsiko ziren. Norbeiti barnerat oiho egin ginezola, *dieng* zela ihardetsiko zaukun. *Dieng* horrek « ezin hurbildua » erran nahi du, eta « dieng » izan ditake edo eriz edo bertze zerbeiten gatik. Ez da hemen gaindi haizu « dieng » denari mintzatzea ere. Eta hola herri osoak « dieng » gintuen !

Ez baiginakien Diong-Diak gutaz deusik erran zuela, Do Koxamerat igorri ginuen etche baten han egiterat. Zenbeit lagun ereman zituen berekin. Hemurrek begitarte ona egin zioten, bainan laster ohartu ziren bertze salbaiek etzituztela begi beraz ikusiko. Gure Annamiten jauntziak ikusi zituzteneko, herriko emazte guziak gorde ziren, eta gizonak etzuten onhartu Do has zadien herri hartan etche baten egiten, Hemurren bortz egin-ahalen gatik. Hunek erran zion Dori zer chedetan ziren salbaiak, bainan etzadin Kolangerat deus egin gabe itzul, chokho bat erakutsi zion oren erdi baten bidean, Bla ibaiari hurbil : « Hau nere-nerea da : zuretzat ematen dautzut. Etche bat egiten baduzu eta hortarat heldu badire churiak, errozute nik zainduko ditudala ». Beha Hemur zoin atchikia zen guri, eta halere egundaino ez dauku Diong-Dia gure kontra mintzatua zela salatu ! Zer den haatik !

Delako etchea chutitu orduko hartan egoterat joan ginen Aita Combes eta ni. Mementoan etziren nihorat higitzeko on Aita Fontaine eta Aita Desgouts. Ondoko egun batez ethorri zitzaunkun Aita Desgouts. Bi-

dean norbeitek lagundu ez balu, ez omen zen haatik sekulan Koxamerat helduko ! Aita Fontainek etzuen hain aise deliberatu bere etchola tcharretik atheratzea, bainan baxharrik unhatu zen ... eta egun batez makhil batean finkatuz ethorri zitzaukun hura ere. Zer atsegina egoitza berrian egun hartan !

## ZAZPIGARREN KAPITULUA

### **Koxamarrekin. — Sua. — Hil nahi gaituzte**

Huna lau Aitak egoitza berrian. Oro ikus, zoin urrikaltzekoak diren haatik ! Sinhes-tea hedatuz, debruari eta haren mandatari guzieren gerla egiteko hunat ethorriak, gero ni debruaren mandataritzat hartu nahi gaituzte orai ! Gaizkiaren erakasterat heldu gitzaiotela derasate bazter guzietan ! Oi, zer zimikoa gure bihotzetan gizon bat, emazte bat gu ikus orduko ihesari ematen zaukularik ! « Gaichoa, bahaki Jainkoaren dohaina ! Bahaki edaterat emateko erraten daukana nor den ! Bahaki, hik galde hezoke ur bizia ! » Horra zer gogoratzen zitzautan. norbeit ihesi abiatzen zautalarik, eta gibetik oihu egiten nion bihotzaren barne barneenetik : « Norat hoa, dohakabea ? Oi, ez dakik, ez dakik zoin maite hautan ! Ez dakik hire gatik zer egin nezaken ! Itsasoak iraganik, mila irrisku garhaiturik, sort-herria utzirik, ama gaicho bati bethikotz adio erranik, hunat ethorri nauk hire gatik ...

eta hi, ihesi hoa ? Neretzat lotsa haiz ? Bada, ez duk munduan ni baino adichkide hoberik ! »

Bainan bihotzeko zimiko guzien gatik, ez ginen ukho egiteko heinean. Sinhestea duena ez da lotsatzen : ez du ukho egiten. Bertzerik ikusi zuen Jesu-Krichtok ! Eta, guzien buruan, salbaiek holako begitartea egiteak zer erran nahi zuen ? Jainkoak benedikatzan gintuela ! Alabainan, Aita Combesek erraiten zaukun bezala : « Egundainokoa da, eta orotakoa : sinhestearen hedatzen hasi diren guziek trabak kausitu dituzte beren bidean. Debrua oihuka ari bada, zalapartaka ibilki bada, froga lotsa dela, oro ez doazkiola nahi luken bezala ! Bainan ez da debrurik ez bertzerik, Jainkoari fidatzen dena bururaino heltzerat gibelatuko duenik ! Ez, ez da ! Guk ere beraz, gure bekatu guzien gatik, heldu behar dugu bururaino ! »

Koxamen nihor etzen haste hartan gutarik hurbildu ere nahi zuenik, salbu Hemur. Hura arrats guziez heldu zitzaukun ikusterat eta berrien galdetzerat, eta gaua ere noiz-nahi gure etchean iragaiten zuen. Lehen gaua gurekin iragan zuenean, ederki lotsatu zen haatik, ilhun ondoan gure laguntzaile guziak, kantuz bezala, gora-gora othoitzean hasirik ! Zainetako ikhara lothu zitzaion, zer othe ziren oihu horiek, eta ihes joaitekotan zen othoitza bururatu zelarik. Orduan aditu zituen elhe eta irriek ez omen zioten segurki karga tcharra khendu bizkarretik !

Hemur izan dugu zenbeit ilhabetez jateko guziaren eskuratzaile. Irrisa gutisko bildurik urthe hartan herriko landetan, Koxamarrek nihundik etzaukuten gure doia saltzen ahalko. Urrunago bilhatu behar ginuen beraz. Eta frangotan aski urrun. Alabainan hogoi bat lagunen hazteko ez da guti behar. Bainan Hemur gaizoa norat-nahi joaiten zitzaukun lorietan ! Artetan bertze zerbeit ere ekhartzen zuen, edo oilo batzu, edo zenbeit sagu gazitu, edo holako zer-nahi gochokeria ! Deus handirik etzuen berak... eta halere egundaino ez du bilhatu gure bizkarrean aberastea ! Saririk ez du behinere galdetu egin dauzkun mandatuentzat, eta zerbeit eskaini diogunean, bethi sobera zitzaion !

Arreba alharguntsa bat bazuen Hemurrek, bera bezen ona : harek lehertzen zuen guretzat anaiak ekharri irrisa : harek ditu azkenean gure ganat herriko emazte beldurtiak bildu. Anaiak arreba itsutuki maite zuen, eta nola berak ez baitzuen haurrik, arrebarena bere gain hartua zuen. Lauruziren beraz orotarot Hemurren etchean : Hemur bera, emaztea, arreba eta hunen haurra. Jieng zuen emazteak izena, Hemon arrebak eta Teot haurrak. Horra, bada, gure bathaioko liburu handian irakur ditazken lehen-lehen bahnar izenak. Jada horiek ziren gure adichkiderik hoberenak, bathaiatu aintzinean : hameka othoitz Jainkoari egiten ginion lehenbailehen argi eta bil zetzan bere arthalde handirat.



Han gaindi ez ginuela bethi irrisarik atchemanen naski, geroni hasi ginen etche ondoan eraiten eta ez ginen segurki debaldetan izertu : Jainkoak ederki lagundu gintuen eta lehen urthean berean sei ilhabereren irrisa selhauruan sartu ginuen. Bainan uzta aiphatu baino lehen ez othe nuen erran beharko oihanaren errotik atheratzen hasi ginelarik zer gertatu zitzaukun ? Ba, ezen aski lotsatu ginen. Zenbeit zuhaitz bagintuen jada bospasei egun hartan lurrean etzanak. Su eman ginioten. Bainan sua eman eta gelditzen jakin behar da, eta guk ez ginakien. Sua nausitu zitzaukun beraz : gureak eta gure etchearenak egin zuen, Koxameko jende guzia laguntzerat ethorri ez balitzauku eta kontra-su bat eginik gure sua gelditu ez balu . . .

Ni bederen egundaino ez naiz hala izitu ! Jainkoak egun hartan Koxamen sua lotzerat utzi balu, hilen gintuzten salbaiek chori batzu bezala. Bertzalde ere Aita Combes eta ni ederrenetarik eskapatu ginen. Landaren erdian ginen, sua nausitu zelarik, harrituak, eta ez ginen ohartzen gero eta hurbigago heldu zaukula. Noizbeit begiak ideki zituen, beharrik, nere lagunak. — « Bainan bidea hetsia dugu, Aita Dourisboure ! Ibaierat jauzi egin dezagun ! » Eta hala egin ginuen, lasterka joanik. Oi, Jainkoak ez balauku hori gogoratu ! Ez dut uste egundaino *Te Deum* orduan bezen gogotik kantatututan !

Erran gabe doa debrua etzela lo egon be-

re aldetik : gaizki-egile batzu baizik ez gine-  
la mar-mar-mar orotarar hedatu zuen.

Berenaz ez da Bahnarrak baino jende ez-  
ti eta baketiarragorik. Bada, aldi huntan  
orok hitzartu zuten gure etcholan kalitu  
behar gintuztela ! Bai, debruak zabilzkan.  
Alabainan bere eremuetan nundik onhetsi-  
ko zituen misionestak, Jesu-Krichto bera-  
ren mandatariak !

Huna chehe-cheheki gertakari guzia. Egun  
batez auzo-herritar batzuekin edaten ari zi-  
ren Koxamarrak. Hemurrek emana zuen  
arinoa. Hunen kariaz, han ginen Aita Com-  
bes eta ni ere phesta hortan. Jada zalhutzen  
hasiak ziren mihiak eta berotzen buruak.  
Gau hartan kalitzekoak gintuzten salbaiek.  
Bazakien nunbeitik hori gure adichkideak.  
Berea gogoan joanaraziak gintuen beraz be-  
re phestarat. Azkarra zen alde batetik, oi-  
hulari gaitza bertzetik : ez da beraz harrit-  
zeko zerbeit balinbazen Hemur bere her-  
rian. Chutitu zen beraz betbetan eta orroaz  
hasi lau bazterretarat : « Herritarrak, ongi  
adi nezazue : norbeitak erran dautanaz,  
gaizki atchematen omen duzue ni Annami-  
tekin adichkide izatea ! Zenbeitak ez omen  
dute ongi hartu egun nik horiek hunat ekhar-  
araztea ! Zertako nahi diote zenbeitak An-  
namita horieri ? Zer gaizki egin dute hemen  
gaindi ? Zuen irrisa jan dutenean, ez othe  
dautzue ederki ordaindu ? Eta funtsean,  
saldu badiozue, ez othe diozue zuen nahita-  
rat egin ? Ba othe da hemen nihor, handi ala  
ttipi, behar ez den zerbeit aditu diotela fin-  
ka dezakenik ? Chuti hortik, ichilkariak !

Eia zer ihardesten ahal duzuen nere solase-ri ? Ni, ez naiz lotsa goraki eta goraki aithortzeko. Ba, maite ditut kempotar horiek, onak eta onak baitire ! Zorigaitzez ez da bertzerik hemen hori aithortu nahi duenik ! »

Eta orduan, jauzian joanik, sutik itchindi bat hartu zuen Hemurrek, zintzurreraino sartu, eta berritz, gure etsaien buruzagiari begietarat so, egundaino baino orro handiagotan hasi : « Hik uste baduk ni bezenbat bahaizela, ausikian itchindi hau harturik erradak, bai erradak higuintzen naukala nik higuintzen hautan bezenbat ! »

Bai, bazterrak ichilsko zaudela barne hartan orduantche ! Nihor etzen atrebitzen ahoaren idekitzerat. Gure etsaia bera ikharan zagon bere chokhoan ! Gerochago barkamendu galdetu zion Hemurri, hura bere uliekin uztea hobeki zuela iduriturik.

Hango mintzaira ez baiginakien oraino hitzik ez ginuen Hemurrek erranetarik aditu. Bizpahirur urtheren buruan ikasi gintuen beraz horiek, gure kontra zirenen buruzagia . . . bathaiatu ginuen goizean. Belhau- niko Aita Combesen aintzinean, nigarrez eman zauzkun chehetasun guziak : « Zer dohakabea, ni ! Gutik egina du ez baitzaituztek gau hartan hilarazi ! Hemendik goiti ez duzue haatik ni baino laguntzaile handiagorik nihun ukhanen ! Lorietan hil nintake zuentzat ! »

## ZORTZIGARREN KAPITULUA

**Aita Desgouts eta Aita Fontaine ithotzer.**

**Mintzairaren ikasten**

**Koxametik Kolangerat, Motongen barna**

Ondoko egun batez Aita Desgouts eta Aita Fontaine ez baigintuen galdu ! Aita Desgoutsek nunbeit ezkabia atchemana zaukun eta sukharrarekin etzezaken lo chortarik egin. Mainhoek baizik etzioten on egiten. Hain chuchen Aita Fontainek ere mainhoak behar zituen bere zauriarentzat. Goiz batez bigak joan zitzauskun beraz eta urruntchago baitzen ur handisko bat, han errekan sartu. Ez batek eta ez bertzeak etzakiten iherika. Untziska bat hartua zuten urez bertzalderat joateko, han ondoa hobeki unkituko zutela, noiz-eta-ere geiak hartu baitzituen eta, Aita Fontainen mariñel jakitate guziaren gatik, harroka batzuetarat firrindan eremanik han pausatu . . . bizkar hezurak hautsi gabe ! Jainkoak lagundu zituen halere, eta harritik harrirat, kuskako batzuen gatik, urak berak ereman zituen leihorrerat : Aita Desgouts ezkerreko alde-  
rat, Aita Fontaine eskuinekorat. Hau atcheman ginuen lehenik, eta zer gertatu zitzaio-  
ten oraino ikharan erraiten ari zaukularik, guk jada ithoa uste ginuen Aita Desgouts bertzaldetik oihuka hasi zaukun : « Etheta-  
gogo duzue ala ez chaharraren bilha ? » Zer eskerrak bihurtu gintuen orduan ere Jainkoari !

Hartzen ari gintuzten anhartean Koxamarrek. Ez gintuen gehiago hainbertze lotsatzen eta dudatzen hasiak ziren gure kontra erran ziozkaten gezurrez. Zerbeit saltzeko zutelarik, bakhar batzu baziren jada gure egoitzaraino menturatuko zirenak. Beraz hetarik gehichago hurbiltzeko eguna ethorria zitakeela eginik, Hemurri galdetu ginion bere etchean bizpahirur hartuko gintuen, mintzaira ez ginuela han baizik ikasten ahal. Gure galdea gogotik onhartu zuen gaizo gizonak.

Deusik ez da munduan hain gaitz nola mintzaira baten libururik gabe ikastea ... guziz salbaiak balinbadituzu bakharrik haren irakasle. Ba, salbaia batek nor-nahik bezen ongi erranen dautzu begien aintzinean duen zerbeiten izena, bainan bertze deusik !

Zuhaurek behar duzu azkenean mintzaira guzia moldatu. Eta prediku bat nunbeitko mintzairan egin behar duenak, hango mintzaira behar du lehenik errotik ikasi ! Badakit : predikari bat ahal den bezala mintzaturik ere, Jainkoak egia sar-araz dezake aditzailearen bihotzean : bainan ez da holarik ikusten egundainotik : alabainan Jainkoak baditu bere chedeak. Misionestari dago beraz ongi bermatzea eta izertzea mintzairaren lehenbailehen ikasteko ...

Aita Fontaine, Aita Combes eta ni joan ginen Hemurren etcherat. Koxam guzia lotsatuko ginuen, oro batean joan bagine ! Ilhuntze guziez herri guzia etche batetarat biltzen baitzen, guk ere agerraldi bat egiten ginuen eta han, lapitza eskuan, zer adituko ginioten beharriak luzatuak egonen ginen

batzu eta bertzeeri. Hemurri ere hainitz galde egiten ginion. Gauaz ikasiak biharamu-  
nean berritz gogoan ibiliz, hitz lerro pollit  
bat laster buruan kokatu ginuen. Bainan,  
ondikotz, prediku bati lotzeko beharren-  
beharrenak diren hitzak ez ginetzazken ho-  
la ikas !

Ez bide duzue ahantzia Kolangetik joai-  
tean zenbeit lagun han utzi gintuela hango  
egoitzaren zaintzeko. Gure berriketari eta  
mandatarien pausa-lekhua han zen, bertzal-  
de. Noizetik noizerat geronek ere agerraldi  
bat egiten ginuen haradino. Holako batez  
Aita Combes eta neroniri gertatu zitzauku-  
nak gain-gainetik ohore egiten baitio Ama  
Birjinari, ez nagoke hemen erran gabe.  
Bigak ginen bakhar-bakharrik aldi hartan.  
Gurekin eremanak gintuen gure othoitzeko  
liburuak eta bazkaltzeko irrisa.

Ez da ostaturik han gaindi : bidekari bat  
ez da beraz behinere bere bidetik baztertut-  
ko eta herri batean sartuko aphaireuen teno-  
retan, nun-eta ez duen bertze egiteko zer-  
beit herri hartan. Erreka tchar bat atchema-  
ten denean, aldean jar eta jan. Horra han-  
go moldea ! Eta gero aho onarentzat, pipat-  
to bat edo biga erre...

Koxametik Kolangerat bada bide bat bai-  
no gehiago : ez ginuen bethiko bera hartua,  
Motongen baiginuen zerbeit egiteko. Ur he-  
gi batean bazkaldurik eta gure othoitz gu-  
ziak erranik, eguerdi ondochean bideari lo-  
thuak ginen berritz. Horra nun artho landa  
batean bidea galtzen dugun. Jo eskuin, jo  
ezker, nihun chendrarik ez gehiago ! Urrunt-

chago zenbeit neskatcha ikusten ditugu. Bidea badakiketela, hurbiltzen gitzaiote, ondotik jarraikitzeke chedearekin. Aritu bazintuzte gaichoen izkiritu eta karrasiak ! Larritu nahi izan bagintu, elgarri besarka lotuak etzuten oiho eta orro gehiago egingen ! Lastersko hetarik urrundu ginen beraz, zer gerta ere, eta, gehiago galtzeko irriskuaren gatik, bertze alderat itzuli !

Zorigaitzez, handik laster hotzak hartu ninduen burutik zango puntetaraino, eta urrun ginen oraino. Gogor egin nion minari hastean, bainan laster nausitu zitzautan : « Aita Combes, ez da haratik ez hunatik, hotza sartua dut ! » — « Nun nahi duzu bada atcheman atherberik, hortchet heldu zaukun horren kontra ? »

Galerna bat heldu zitzaukun gainerat, burrumban. Jada zerua belzten ari zen alde guzietarik. Ortziak hasi ziren laster. Eta ni ez ninduten gehiago chutik atchiki nahi nere zangoek ! Zabal zabala erori nintzen bide bazterrean ! Urruntchago irrisa landa batean etchola bat ikusirik, Aita Combeseke oiho egin zautan harat joaiteko : « Egizu oraino indar bat : sukhar horrekin etzaitezke bustian etzanik egon ! Menturaz etchola hortan geriza bat badukezu ... » Abiatu nintzen hortzak tinkaturik, bainan hirur urhats egin gabe berritz erori : « Jainkoaren nahia egin bedi, nik ez dezaket urhatsik egin gehiago, Aita Combes ! » Jauts-ahala euria hasia ginuen arte hortan ... Orduan hauche ethorri zitzautan gogorat : ba-eta zeruko Ama Onari ez niola bere laguntza

galdetu ! Oihuka hasi nintzaion bihotzaren erditik, berehala : « Ama, ez naiz dohaka-be eta eskergabe bat baizik, ni ! Hainbertze eta hainbertzetan lagundu nauzu jada eta ahantzi dut ! Barka, Ama ! Bainan ez dute zure bothere neurrigabeak eta zure bihotz guziz onak nere eskergabetasunari behatuko : orai ere lagunduko nauzu, eta gaitz hunen aztaparretarik atheraturik, emanen dautazu herritz bideari lotzeko indarra ! » Othoitza bururatu orduko, chutik nintzen sendo baino sendoago. Eskerrak nola bihurtu nituen orduantche ! Nere lagunak ederrik ikusi zuen neri ezin jarraikiz, handik harat. Euria ere gelditu zen hainbertzenarekin eta zero gaina egundaino bezala edertu. Larruraino bustiak ginen haatik, eta sukharra herritz ez lotzeko, soinekoak hantchet berean bi eskuz bihurtu gintuen, idortzeko. Alabainan bertze soinekorik ez ginuen eremanik ! Zoin aise ibili nintzen haatik gero, othoitzean eta kantuz !

Mokongen ginen ilhuneko. Han ere ederetarik eskapatu ginen haatik ! Bezperan hango gizonak auzo herrikoen kontra gerlan arizanik, herritar bat garbitua zioten. Hango gerletan ez da maiz holakorik gertatzen, artean errateko. Mokongeko gerlariak doidoia itzuliak ziren herrirat, etsaia ondotik jarraikiko zitzaioketelakoan herriaren inguru guzian dakizuen punta zorrotzak landaturik. Punta horieri oharturik eta horietan kolpa beldurrez, oihuka hasi ginitzaioten. Jada oro herriko-etcherat bilduak ziren, gerlako Jainkoari ohiko eskaint-



zen egiteko, eta arnoak berotzen hasiak zitu-  
tuen buru gehientsuak. Beraz gure oihuak  
aditu zituztelarik, uste izan zuten etsaiak  
gainean zituztela eta guri buruz lasterka  
ethorri ziren beren ezpata eta saetak har-  
turik. Belhar handi batzuetan gorde ginen  
berehala, eta handik behinere baino garraz-  
kiago oihuka abiatu, gure izenak eta oro  
erranez. Jada ezagutzen gintuzten !

Gero haatik, zer gau gochoa iragan gi-  
nuen Mokongen ! Biharamunean bakharrik  
joan zen Kolangerat Aita Combes : ni su-  
kharrarekin nintzen berritz eta zortzi egun  
luze iraun zautan. Ez naiz orhoit bertze  
behin ere holako sukhar bortitzik ukhanik !  
Nahasia nintzen eta etche guzia nere ikha-  
rak dardaratzen omen zuen ! Dena dela,  
nere lagunak arras eta arras lotsatzen ha-  
siak ziren, zurpail eta mehatua, ilhuntze  
batez Koxamerat itzuli nitzaioteiarik. —  
« Eia Kolangeko erreka hura orai jauzi ba-  
tez iragan zinezaken, aita Dourisboure ? »  
— « Beldurtzeko da ezetz, Aita Combes :  
lagun tcharra da egiazki sukharra ! » —  
« Alegera gaiten horrengatik, adichkidea !  
Hil arte bizitzen dire oro ... eta orduan  
ez da sukhar ez bertzerik ! Oro sendatzen  
ditu heriotzeak ! » — « Halabiz, Aita ».

---

## BEDERATZIGARREN KAPITULUA

### Bongao

#### Misionestak baxhotcha bere alde

Zenbeit ilhabete bazuen jada Koxamen ginela. Ez ginakien batere inguruen berri. Bizkitartean jaun aphezpikuak baitezpada jakin nahia zuen gure menditartetan zelhai handi bat edo bertze ez othe zen. Behin errana dugun bezala, Hemur hainitz ibilia zen, bereziki guretzat irrisaren erosteko, eskuin eta ezker. Bada, bizpahirur aldiz Hemur beren herrian ikusi-eta, Robangeko gizon batzu atrebitu zitzaizkon ondotik, beren irrisa berek hobeki salduko zaukute-lakoan, eta huna zer erran zaukuten: mendiz bertzaldean, Bla ibaiaren bi bazterretan, zelhai bat bazela guziz eder eta luzea. Ez da harritzeko Hemurrek ez bazaukun holakorik erran: salatzea debekatua zioten, bertzenaz kalituko zutela! Zer atsegina egin zaukun horren ikasteak, nahiz ez ginuen oraino ongi ikusten nola helduko ginen harat! Ordutik, ez ginuen haatik bertzerik kaskoan, joan behar ginuela eta joan behar ginuela baizik. Koxametarrerri ez ginioten bakerik uzten gidatu behar gintuztela.

Azkenean batek hitzeman zaukun baietz eta eguna hautatu ginuen. Baina zer-nahi erranik herritarrek, hitza jan zaukun. Gehiago dena, ederki zakuan sartu gintuen bertzalde! Bereak entzun beldurrez, bi urthe handiz etzaunkun begietarat ager-

tu. Geroztik jakina dugu beraz zer-nahi mehatchu aditurik jan zaukula hitza ...

Balio othe du aiphatzea hautatu egun hartan delako gizonak eginarazi zauzkidan urhats debaldetan nere gurutzefika galdu nuela ? Hiruzpalau salbaiek atcheman zuten ur hegian. Etzakiten hunkitu behar zuten ala ez. Bainan sos zenbeiten irabazteko holako padara nola utz ? Erhi puntez hartu zuten beraz, berehala abar batean dilindan eman, eta lasterka misionestegirat ethorri, nahi baginuen, erranen zaukutela nun zen gurutzefika. Gurutzefikarik etzitakeela ez sal ez eros guk erranik, arras lotsatu eta go-goetatu ziren zer othe zen beraz eta othoitzean hasi zauzkun, nihori makhurrik gertatu gabe, geronek altcha ginezan lehenbai-lehen !

Berritz ethorri zauzkun, bada, handik laster gure irrisa saltzaileak. Lehen aldian ez baitziren gaizki heldu gurekin, aldi huntan erdi-aise onhartu zaukutan heyen herri-rainoko bat egin ginezan ondoko egunetan. Aita Combes eta Do joan zitzaizkoten eta ahoaren betheko espantuekin itzuli zauzkun etcherat.

— « Oi eta ai ! Bainan errazue jaun aphez-pikuak uste duen zelhai hura atcheman du-zuen ? »

— « Ez dugu arras finkatzen ahal baietz, bainan bide onean garela uste dugu haatik ! »

Ez da meneko choria airatzerat utzi behar. Berehala etche bat erosi ginuen beraz Rohai derizan herri tipito batean, Roban-getik aski hurbil. Bortz libera galdetu zauz-

kun jabeak eta, bere dirua eskuratu orduko, lekhuak hustu zituen, etche berri baten urrunago egiteko. Biharamunean berean Do Rohaierat igorria ginuen bertze zenbeitekin. Gerochago joan ginen geroni.

Lehenbailehen bazterrak ezagutu nahi gintuen. Nahi eta behar. Abiatu ginen beraz ur hegiz ur hegi, norbeitek utzi nahi ez bagintuen, urez joanen ginela. Alabainan ura ez da nihorena, eta ororena da. Jatekoa harturik, Aita Combes, Do eta ni Rohaieratik urrundu ginen, gordeka bezala. Horra nun gizon bat atchematen dugun oren bat gabe, ur hegian. Nor ginen erran ginion lañoki. Hura, alde herrichka batetako buruzagia zen. Bere etchean atherbe bat eskaini zaukun bihotz handiz. Tobau zuen herriak izena. Lauak abiatu ginen harat. Haratchago bidearen erdian basa-gathu bat bere umearekin agerturik, ez dakit gu lauetarik zoin lotsatu zen gehiena ! Nik ez dut bethi ukatuko izerdi hotz bat abiatu zautala kopeta behera eta, zer gerta ere, zuhaitz handi bati hurbildu nintzela lastersko ! Bainan basa-gathua bere bidean joan zen ichil-ichila eta prestu prestua ...

Basa-gathua sasian gorde zaukunean, bertze zerbeitek begiak zabalarazi zauzkun ederki : burdinazko gizon handi batek. Arras polliki moldatua zen eta zuhaitz lerro baten erdian ezarria. Etzaut iduritzen salbaiek egina dela. Ez othe da beraz hemen gaindi Banharrez bertzerik ibili?

Gure gidariak Piunh zuela izena jada erran othe dautzuet ? Dena dela, sekulako

begitarte ona eta ongi-ethorri ederra egin zauzkun bere etchean. Biharamun arte nahi gintuen atchiki. Onhartu ginion gogo onez egotea. Poley-Krongeraino berak segitu gintuen, askal ondoan. Herri hau Bla eta Po-ko bi ibaiek elgar atchematen duten tokian egina da. Ur berdintsu da batean eta bertzean, bainan batetaratu ondoan iduri dute zerbeit badirela. Eremuak eta eremuak badituzte oraino iragaiteko Mekong derizan ibaia famatuan, eta guziz itsasoan, galdu arte. Bongaoko zelhaia ez doa Poley-Krong baino haratago.

Urrunago joaiteko chedea ginuen. Hala joan ziren Aita Combes eta Do. Ez nitzaio ten jarraiki, sukharrek berritz harturik. Piai, Piunhen anaiaren etchean gelditu nintzen.

Huna bada zer gertatu zitzautan ondoko gauean. Nihork ez du ahantzi behar, are gutiago misionest batek, deus eta deus ez dela Jainkoaren laguntza gabe. Supazterrean nindagon, etzana, nere saskia aldean. Begiak hetsiak nauzkalakotz, aldeko jaunttoek uste izan zuten lo nindagola, eta nere saskia berehala iphurdez gora eman zautaten. Bainan barnekoetarik deusik etzitzaioten gustatu eta ohoinetarik zaharrena ederki aditu nuen : « Ez du balio hoin gutirentzat kalli dezagun ! Bertzalde nork daki chuchen nor den eta zer bothere duen ! » Hatsa aisechago hartu nuela handik goiti sinhetsiko othe duzue ? Argia oihanetik agertu zenean, ez nuen hezur luzerik egin etche hartan. Bidean deus etzitzautan gertatu. Geroztik gure gostuz ikasia dugu zer jende den To-

Bauen : ahal dena ! Lana baino maiteago du ohointza ! Bertze orduz Romulus famatu haren herrirat bezala, orai To-Bauerat biltzen dire zazpi eskualdetako gizon nahasi, ezdeus eta ohoin guziak ... Bainan, Jainkoak ez baitiote tzarrereri bizia ematen eta uzten onen onarenzat baizik, aithortu behar dugu To-Baueko jendeak ongi frango egin daukula beraz. Egin daukula, eta egin daukula segurki, guziz oraino gurekin nihork gurutzatu nahi etzuen dembora hartan ! Doidoia aiphatua dautzuegu Piunh : ez duzue beraz ahantzia nor den. Bada, Piunh eta Dok adichkidantzak egin zituzten egun batez, bertze batez Do eta Kiemek bezala. Ez gintuen segurki adichkidetzerat utziko, Piunh nor eta zer zen egiazki jakin baginu ! Ez da gutiago egia adichkidantza hori ere ederki baliatu zaukula. Oi, zer beso luzeak dituen Jainkoak !

Ni baino egun bat berantago itzuli zen Rohaierat Aita Combes, bainan zer-nahi ikusi eta ikasirik. Rongaon gaindi, laster itzuli ginen beraz lekhu beretarat, hango jendeak oraino hobeki ezagutzeko.

« Bahnarrak » deitzen baditugu han gaidiko jende mota guziak, zuzen kontra egiten dugu : eskualdeka badute bertze izenik. Iphar aldekoak bederen « Sedangesak » deithu behar dire. Arruntean hauk larrichago dire Banharrak baino. Hainitz ozarrago dire eta mila aldiz mihi zikhinagoa dute. Arras langileak dire haatik. Lugintzako lanez bertzalde zer-nahitako esku ona dute. Sedangesek egiten diozkate bertze salbaieri beren

laneko tresnak, bai-eta ihizi eta gerlakoak. Burdin lanak, oihalak eta gatzak, horra eskualde hautako hirur bizipideak.

Sedangesak burdinean ari dire : Rongaotararak oihaletan : Bahnarrak gatz tratuan, Annameko aldekoak bereziki. Dembora batez Jaraitarrak zirelako bertze salbai batzu baziren beherachago : Hadrongarren beldurrez, norapeit joanak dire aspaldi.

Berri eta chehetasun hauk guziak Nere Jaun Cuenoti helarazi giniozkalarik, bakhotchari gure chokoa eman zaukun. Aita Fontaine joan zitzaukun beraz Jaraitarrekin bizitzerat : Aita Combes Banharrekin gelditu zen. Sedangesak neretzat ziren. Jaun aphezpikuak bethi bazuen bere gibelasmua apheztegi baten nunbeit egiteko. Horra zertakotz igorri zituen beraz Aita Desgouts eta Do Rogaotarren erdirat. Aphezpikuaren maniak Jainkoarenak dire aphezarentzat. Bakhotchak lorietan hartu zuen beraz bere bidea ... edo hobeki, bide horren hartzeko chedea ...

Bainan Aita Fontaine eta ni nola hel gure tokietarat ; eta guziz nun koka, harat heldu ondoan ? Eta hainbertzenarekin horra nun atherat heldu zaukun Kontrangeko etcheke-jaun handienetarik bat. Kontrang herriska gothor bat da, Sedangesen eskualdean. Sedangesen mintzaira bera dute Kontrangen. Ez dautzuet haatik errana Sedangesek eta Jaraitarrek bi mintzaira dituztela, eta mintzaira horietarik batek eta bertzeak ez dutela banharrarekin Bezkoitzeko Eskuararekin baino ahaidetasun gehiago. Gu-

re gizonak Banang zuen izena. Nola frangotan beren egitekoentzat Laostarrekin gurutzatzen baitire Kontrangekoak, gure begitarteak etzituela bertze salbaiak bezenbat harrituko eta lotsatuko eginik, Banangi tipust-tapast galdetu nion eia nahiko ninduen, saritan, bere herriraino segitu. Baietz segurki, eta bi egun nere beha egon zen. Katichimaren egiteko, Anamita bat nerekin hartu nuen. Aita Combes ere jarraiki zitzaukun, nun eta nola kokatzen ginen ikusteko, gure buruzagi bezala jaun aphezpikuari lehenbailehen berrien helarazteko. Biharamunean berean itzuli zen haatik bere etchera.

Aita Fontainek etzuen zenbeit egunen buruan baizik Jaraieko bidea hartu. Poley-Chunen hautatu zuen bere egoitza.

Gisa hortan salbietetako elizadi berriak hedadura pollita bazuen: Koxametik Kontrangerat, Kontrangetik Poley-Churat, Rohai erdian. Aita Fontaine eta ni egun baten bidean ginen Rohaietik: Aita Combes gu baino hainitz hurbilago.

Gerochago, indarrak itzuli ondoan, hameka eta hameka aldiz goizean abiatu naiz etchetik ... eta lo egin Kochamen !

## HAMARGARREN KAPITULUA

### **Lehen urthea Sedangesekin**

1852 garren urthean joan nintzen Kontrangerat, eta erran dut nola jarraiki zautan haradino Aita Combes. Adichkide maitte horrek bere etcheko bidea hartu zuela-



rik, ilhundura tzar bat eta ezin erranezko lotsa sartu zauzkidan gorphutz guzian. Alabainan salbaien erdian bakharrik gelditzea, heyen mintzairatik hitz bat jakin gabe, ez othe da lotsagarri ? Banharren mintzaira ez nakien segurki errotik oraino, bainan bederen nere burua nolazpeit adiarazten ahal nuen. Kontrangen aldiz ! Lana haste nuen egundaino bezala.

Salbai baten etchean egin nuen nere egoitza. Ahal den egoitza, haatik. Jada berrogoita hamar bat bizitzale bazen etche hartan, gizon, emazte eta haur. Erran gabe doa, oro nahas-mahas bizi zirela, gela jan-toki eta jan-tokia sukalde. Hango oihera eta kalapitekin, nere othoitzak ez netzazken egin. Nola bizi halako tokian ? Egunez egun urthea zuen, Aita Desgouts onarekin bidean heldu ginelarik, zangoan minhartu zuela Dok. Orduan nere baitan egin nuen urthe baten ongi bururatzeko gaizki hasi behar zela. Bertze urthea ere gaizki hasten nuela erran ditake. Gurutze hau nola jasan bakharrik ? Bainan, ez : ez nintzen bakharrik ! Eta benedikatua izan bedi segurki, berak kalitza ondoraino hustu ondoan, kalitza eskaintzen dion dohakabeari hainbertze ez-titasun aldean ematen duen Jainko guziz Ona !

Nere chokoan etzana nindagon jada, gaua bezen ilhun, nere bihotzmin handia Jainkoari eskainirik, arrats hartan. Hainbertzenarekin horra nun salbaiak lerroan sartzen diren etchean. Bainan zer da hau ? Sartu bezen laster, oro berritz kamporat

joan ziren. Iduritu zitzautan nigarrez ari zirela. Banharrez emazte bati berehala galdetu nion zer zuten nigar egiteko. Gutxi edo aski bazakien banharra eta ihardetsi zautan eia ez nintzen ohartu oro choko berean izatu zirela: choko hartan bazela eri bat hiltzen ari zena. Chutitu nintzen, hori aditu orduko, eta ni ere chokorat hurbildu. Oraino bulharretako haur gaicho bat zoan hiltzerat. Ur chorta bat harturik pegarretik, berehala bathaiatu nuen Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean. Haurrak etzuen naski bertzerik igurikatzen: bathaiatu orduko azken hatsa emanik hilaz zen! Oi, zoin gogotik egin nion aingeru ttipi hari oihu: «Hoa, hoa, laster zeru go-renerat, han neretzat othoitz egiteko!» Berritz nere chokorat itzuli nintzelarik, Aita Combes eta oro ahantziak nituen eta atseginezko nigarrak heldu zauzkidan begietarat, arima bat salbaturik. Latzgarri da ororen uztea: latzgarri aitatto eta amatto, anai-arrebak azken aldikotz besarkaturik desterrurat joaitea, bainan gero zer sariak ematen diozkan Jainkoak, horiek eginik, sinhestearen hedatzerat doazinari! Arima baten salbatzea!

Irrisak huts egina zuen urthe hartan Kon-trangen. Jendea lotsa litake Frantzian ogiak hola huts egin baleza. Ez da batere lotsatzen salbaia. Landak eman ez dion jatekoa oihanak emanen diola badaki. Oihaneko aihen eta landare ttipi zenbeiten erroak dena irin dire. Lur-sagarraren iduria balukete kasik. Hetarik biziko da beraz hemengo

jendea, nahiz, egia errateko, delako erroak beren irin guziaren gatik ez diren ahotik ezin utziak eta ahulen azkartzeko eginak ! Kontrangen etzen beraz irrisik. Haratchagoko herri batean, hala-hala, zer-nahi bazuten bildua : Hamongen. Harat joaiten nintzen nere doiaren erosterat. Jada ehoa hartzen nuen, gero harekin, jan truk, Kontrangeko atcho chahar bati nere bazkari-afarien eginarazteko. Gaicho atchoak etzuen bizitzekorik eta indarrak joantcheak zituen oihanean erroen ondotik abiatzeko. Ederki eroria zuen beraz. Bere semea bezala maitatu ninduen laster. Mintzaira ikasiche nueneko, hasi nitzaion, Jainkoaz mintzitzen eta gerochago girichtinotu nuen.

Lehen urthean ez nuen errateko lan handi-handirik egin : mintzairaren ikasten ari-zan nintzen gehienik. Goiz eta arratsetan, ihiztariak choria bezala, hitz batzu airerat atchematen baniozkaten salbaieri, egun guzia hitz horiekin zerbeit moldatu beharrez ariko nintzen. Banharren mintzairaz jada erran dautzuetana hemengoaz berritz erran dezaket : libururik gabe ez direla aise ikasten mintzairak, hau bertzeak bezala. Koxamen bederen hiruzpalau baginen eta elgar lagunt ginezaken, elgar susta. Hemen bakharrrik ari behar. Egunak oihanean iragaiten nituen ardura, harat eta hunat, aski ilhun zenbeit aldiz. Ilhabetean behin edo bigetan lagunak ikusterat joaiten nintzen haatik. Oi, zoin laster iragaiten zauzkidan hango orenak ! Alabainan gero deusik ez nuen Kontrangen, ez meza saindurik ez

bertzerik ! Nigar egin badut behin edo bertze, uste duzue Jainkoak ez dauzkidala nigar horiek barkatu ? Egia erran behar dautzuet haatik : behinere nere nigarrek ez dutela sobera dembora iraun : handik edo hemendik bethi zerbeitek begiak chukatzen zauzkidan ! Eta bertzalde banakien mina eta bihotzmina direla misionesten legeak ! Azkenekotz nere othoitzetako liburua ez othe nuen bethi nerekin, pinpirin beltzen urruntzeko ?

Ni nindagon etcheke nausiak Lam zuen izena. Hemen gaindi gizon guti ikusi dut hoin buru onekorik. Bi seme bazituen : Ngam eta Ngui. Hemengo etcheetan ez da egoitza berezirik ezkonduentzat baizik. Lam alharguna zen. Gurekin egiten zuen beraz lo harek ere eta arratsak elgarren aldean iragaiten gintuen, su handi baten ondoan, jada adichkide handi, eta hura nuen hango mintzairaren irakasle hoberena. Behin baino gehiagotan, othoitzen erraten ari nintzelarik, beha eta beha zagola oharturik, Jainkoari nola galdetzen nion gizon gaichoa lehenbailehen argi zezan ! Bi semeak ere, Ngui guziz, maiz eta maiz neri beha zauden. Mintzairan trebatzen hasi nintzelarik, Lamek egiten etzautan galderik ez da, Frantziaz, sor-herriaz, orotaz.

— « Aita eta ama bizi ditutzu oraino ? »

— « Bai ».

— « Baditutzu anai-arrebak ? »

— « Bai ».

— « Zertako utzi ditutzu beraz ? »

— « Zueri egiaz mintzatzeko, zuen argit-

zeco, zuen ifernutik begiratzeko eta zeru ederrerat helarazteko ».

— « Eta berritz zure herrirat itzuli gogo duzu ? »

— « Orai bezala balinbanaiz bederen, ez : hemen hiltzeko chedearekin ethorria nauk ».

— « Bihotzik ez duzu beraz ? Zure ama ez duzu maite ? »

— « Hik ez dituk oraino horiek aditzen ahal ! Gerochago ikusiko duk, ongi mintzaira ikasi-eta Jainkoaz mintzatuko nitzauzuelarik. Bainan etzadak othoi erran nere ama ez dutala maite : min egiten dautak ! »

Ichiltzen zen orduan. Bainan duda bat gelditzen zitzaion halere : begietarik ageri zuen.

Mintzairan askitsu trebatu-eta, ez nintzen gehiago guti baizik egoten etchean : salbaiak norat baitzoazin, eta harat joaiten nintzen hek bezala, guziz burdin lanetan ari ziren eskualdetarat zoazilarik.

Kondatau behar dautzuet hemen Toproh deithu herri batetarat egin itzuli bat. Ichtorioak balio du. Lehenik erran behar dautzuet haatik hemen gaindi chori mota baten kantuan sekulako sinhestea badutela. Choria bidean doanari aintzinetik hasten bazaio kantuz, irrisku zerbeit bada bidean : gibeletik hasten bada, irriskua ttipichago da. Eskuin eta ezkerreko kantuak ere zerbeit erran nahi du. Ahantzia dut zer. Dena dela, egun hartan Toprohrat zoazila ikasirik, salbaieri jarraiki nintzen. Delako choriek etzaukuten makhurrik kantatu bidean eta arras ongi heldu ginen Toprohrat. Etzen

arras ilhuna oraino. Bainan « dieng » zen herria eta ez gintuzten sartzerat utzi.

— « Choriek ez daukute deusik erran ? »

— « Baditake : bainan herri hau « dieng » da eta arras « dieng » : etzaituztegu sartzerat utziko, eta gehiago dena, ez dautzuegu irrisarik salduko ! »

Lagun guziak harrituak nituen ! Gehichago behar zuten harritu, gerochago. Ez ginenaz geroz Toprohn sartzen ahal, joan ginen bertze herri bati buruz, demborarik galdu gabe. Hogang etzen urrun. Zorigaitzez, herri hau ere « dieng » zen ! Eta euria hasten, futcho ! Lehen herrirat oren baten bidea bazen ; Kodem ere « dieng » atcheman ginuen ! Larruraino bustiak ginen oro. Gau ilhunagorik ez da ikusten eta bideak odol-edalez estaliak ! Zangoetarik, ichterretarik, gorphutz guzitik, dotzenaka lothuak gintuen noiz-nahi ! Ez ginakien gehiago norat joka, chimista batek urruntchago etchola bat argitu zaukularik ! Lasterka joanik, oro kokatu ginen nolazpeit. Lehertua nintzen. Odol-edaleek egin zauri guzien gatik berehala lokhartu nintzen halere. Dembora laburrentzat : hotzak iratzar-arazi ninduen, kaskaran. Lagun guziak su eder bat eginik, idortzen eta berotzen ari ziren gochoki, kuia biribil bat egosten ari zitzaioten demboran. Basa-gathu bat ikusi zutela erran zautedan, bainan suak lotsaturik ihesi joan zela. Goseak ez du legerik : kuiatik eskaini zautedanean pochi bat, gogotik hartu nioten eta jan ! Eguna arras argitu gabe, berritz bidearen gainean ginen, bezperan bezen fresko eta

alegera. Gutik egin zuen haatik ibaia handi batean ez baiginen oro itho, geiak eremanik ! Hamar orenak bagintuen Kontrangen sartzean. Geroztik trufa ederrik egiten diotek salbaieri beren chorien kantuaz !

Eri, eta eri handi oraino, egon nintzen hortarik lekora. Etsitu ninduten-eta lauzpabortz egunez ! Lamén etchean berrogoita hamar bat lagun baitzen, ez nuen chokorik neretzat : ororen erdian behar nuen bizi. Egun batez, berrogoi bat itzuli gutienetik egin behar izatu nituen kaporat, eta azkeanean, flakoaren flakoaz, zabal-zabala lurerrat erori nintzen nunbeit ! Hantche iragan nituen hogoita lau oren luze, sukharrarekin borroka, ur chortarik gabe ! Etcherat itzuli nintzenean, orok hil bat heldu zitzaiotela uste izan zuten. Jaterat eman nahi zaute-dan, eta ez nuen jaten ahal. Lotsatu ziren. Hilak bizieri agertzen direla sinhestea baitute, nola etzitzaioten ni bezalako hil bat agertuko ? Eta ni bezalako hil batek zer etzioten eginen ? Zenbeit othoitz egin zaute-dan orduantche gaichoek, othoi ez nadin gaichtoegi izan hil-eta ! Hatsa doidoia hartzen, eta holako chorokeriak entzun behar ! Bainan horiek baino gehiago orhoitzen ninduen orduantche aphez baten laguntza gabe hiltzeak ! Bihotza Jainkoari altchatu nion beraz, eta Haren nahi saindurat erori, arras erori ! Bainan Jainkoa urrikaldu zitzautan . . .

Misionest lagunek etzakiten eri nintzela. Bizkitartean, hola nere buruaz etsitu nuen, horra nun arratsalde batez athean

agertzen zautan Aita Combes. Aingeru begiraleak zabilkan. Ez duzue sinhesten ahal zer atsegina egin zautan haren bizar handiak athe hartan ! Eta egungo egunean ere ez nezake finka ez ninduela atsegin horrek sendatu. Nigarrez hasi zen etzana ikusi ninduelarik. Bainan nere begitarteko atseginak nigarrak chukatu ziozkan berehala eta Jainkoaren ganat itzuli zituen bere begi ederrak : « Oi, zoin ona zaren haatik, Nausi maitea ! » Bospasei egun hartan deus ez nuen janik : berehala untzi baten bethe ahi egin zautan eta jan-arazi. Biharamunean ... chutik nintzen !

Liburu hau ez litake burura, Jainko Jau-naren ongiegin guziak erran behar banitu. Zenbat eta zenbat aldiz ez nau hola-hola lagundu, salbatu eta kontsolatu ! Oraino ichtorio bat, kapitulua bururatu gabe. Kontrangen edaten ginuen ura nundik heldu zitzaukun ikasirik, haradinoko bat egin behar nuela, goiz batez joan nintzen zanpa-zanpa. Ez nakien salbaiek arte batzu bazituztela hedatuak, uraren sortzean, edaterat heldu ziren orkatzen atchemateko. Ez du balio nolakoak diren arte horiek erratea. Sasi batzu baziren uraren inguruan han-hemenka atheka batzuekin. Atheka horietan alambre mehe bat alde batetik bertzerat. Alambrea hunkitu orduko, urruntchago zerbeitek kanabera punta zorrotz bat jauzarazten zuen eta tiroa bezala athekaren erdirat igortzen. Mirakuilu zen beraz alambrea hunkitu zuen dohakabea ez bazen hil hotza erortzen. Deuseri ohartu gabe athe-



ka batetik sartu nintzen, bada, urari beha egon eta gibelat itzuli. Hainbertzenarekin gizon bat lasterka heldu zaut.

— « Aita, ura ikusi duzu ? »

— « Bai, ikusi dut. Zertaz ? »

— « Ez dakizu zertarik eskapatua zaren, ori ! »

Eta kanabera punta bat jauzarazi zuen . . . urrundik, ikus nezan. Nere harritzea ! Nola igan othe nintzen bi aldiz, ni, alambrea hunkitu gabe ? Nahi duenak nahi duena erranen du, bainan nik uste dut aldi hartan ere Jainkoa bere misionestaren ondoan zela ! Berehala eskerrak bihurtu niozkan . . . eta bihurtuko diozkat, bizi naizeno.

## HAMEKAGARREN KAPITULUA

**Aita Combes Koxamen. — Egun eder bat**

### **Aita Arnoux**

Lau misionest baginen Banharrekin : bigek baizik etzuten meza saindua ematen ahal egun guzietz : Aita CombeseK Koxamen eta Aita Degoutsek Rohaien. Salbaien etchentan bizi ginelakotz, Aita Fontainek eta nik ez ginuen holako ametsik behar. Ilhabetean behin ginuen baxharrik zorion hori . . . Rohai eta Koxamerat kofesatzerat joaiten ginelarik. Gutiz gehienetan Rohaien elgarretaratzen ginen lau misionestak. Ez dut gordeko hainitz aldiz ilhabetea luzea atchewan dutala. Egunak ere kondatu izan ditut behin edo bertze, haur batek bezala :

« Oraino bortz egun, . . . oraino lau egun . . . oraino hirur egun, eta meza saindua ematen ahalko dut, aphez lagunak ikusiko ditut ! » Elgarretaratzen ginelarik, aise asmatzen duzue elgarri zer erraten ahal ginuen : zer heinetan ginen gure herrietan, ondoko egunetako zer igurikitzen ahal ginuen. Eta holako. Elgar sustatzen ginuen, elgar azkartzen, eta etcherat itzultzen ginen bihotz berri batzuekin ilhabete berriari lotzeko. Ni Aita Combes maiteari hala atchikia nintzen nun Rohaien kaustitzen ez nuenetan Koxameraino joaiten baintzaion, etcherat itzuli baino lehen. Atsegin egiten zautedan hango berriek : erran gabe doa cheheki galdetzen nituela beraz.

Aita Combes laster trebatu zen Banharren mintzairan. Salbaiak maiz joaiten zitzaizkon beraz ikusterat. Laster frogatu zioten Diong-Dia gezurti handi bat baizik etzela. Hastean higuin gintuzten bezenbat maitatu gintuzten beraz salbaiek eta Koxamarrek berek othoizturik atheratu zen Aita Combes dakizuen etchetik eta herriaren erdi-erdirat egoterat joan. Ikusi bazinute Hemurren atsegina egun hartan !

Aita Combes etzen ahanzkorra. Itsasoan heldu zelarik bazuen itsas-ohoineri eskapatzeko botu bat egina : egun batez nunbeit elizadi bat egiten bazuen, Ama Birjinaren gerizan ezarriko zuela. Aphezpikuaren baimena bazuen hortako. Salbaiek etche bat egin eta eskaini ziotelarik Koxamen, bere botuaren bethetzeko mementoa zuela egin zuen eta bere elizadiari erdarazko izen eder

hau eman zion : *Mission de Notre-Dame de la Délivrance*. Etzen oraino girichtinorik han ere, bainan erran ditake izen horrekin herri guzia zeruztatua zela bederen. Ezen hori ez othe zen kasik Ama Birjinari eskua bortchatzea, Ama Birjinari erratea orai bere izenari zor ziola lehenbailehen begi batzuen idekaraztea, bihotz batzuen hunkitzea ?

1852-an ginen, urthearen erditsutan. Nere Jaun Cuenotek Do deithu zuen bere ganat, aphezteko eskolen bururatzeko. Urthe baten buruan eman zuen bere lehen meza gure laguntzaile on eta kartsuak, eta biharamunean berean hain maite zituen salbaierri buruz heldu zen berritz. Behin baino gehiagotan Aita Do aiphatuko dugu liburu huntan.

Jada errana dautzuet egun baten bidea dela Kontrangetik Koxamerat, zango onak dituenarenzat. Hala nituen, Jainkoari esker. Bainan ez uste izan josteta zela oihan hetan ibiltzea, sasiz sasi kasik, nihun chendrarik gabe. Ez da zuhurtzia bakharririk abiatzea. Batetik, bidean minhar ditake eta gutitan heldu naiz bururaino guti edo aski minhartu gabe. Eta nola hemen kolpe ttipienak berehala gaichtatzen baitire ! Bertetik, hainbertze ichtripu gerta dakikezu ! Behin bidez erditan zangoa bihurtu nuen. Bero hartan erdi aise ibili nintzen oraino. Gero haatik, ur hegi batean bazkaldu-eta berritz abiatu nahi izan nuelarik, zangoa ezin higi gehiago ! Zer egin ? Lan ederrean nintzen. Han geldi sendatu arte ? Gaitzak

zortzi egun irauten bazautan, nun jan ? Bainan ez da beharra bezalakorik zerbeiten gogoratzeko. Urari muga bat egin nion beraz harriz eta egurrez, chingilika ibiliz, eta ura purrustan muga horren gainetik abiatu zelarik, nere zango eria azpian ezarri. Minaren gatik, bi oren handi hantchet egon nintzen, zainak beren tokian berritz eman arte.

Ez ditut segurki hola gertatu zauzkitan guziak liburu huntan eman nahi : bethikoa banuke. Huna haatik bertze aldi batez gertatua. Hau, hil arte ez dut ahantziko.

Ilhabete bat bazuen nere chokoan nindagola, nihorat mugitu gabe. Aphez lagunen ikusterat joaiteko mementoa nuen. Argiko chutik, bideari lotzerat nindoan. Oro lo zauden oraino etchean. Hoberena, lagunak atzarri arte egotea nuen eta gosál ondoan abiatzea. Bainan ni ez nindagoken. Untzi batean atchewan irrisa ondar bat harrapaka iretsirik, abiatu nintzen. Ez nuen dudarik bidean gosetuko nintzela, bainan ere segur nintzen Aita Desgouts onaren ikusteko atseginak nere gosea ahantzazaziko zautala ! Mandoa baino azkarrago nintzen berritz, egia erran ! Banindoan eta banindoan nere bidean, choria bezen arin. Hamarrak alde rat oihan batetarat heldu nintzen. Hango chendrak ezagutzen nituen ederki. Bainan salbaiek doidoia moztua zuten : zuhaitzak zabal zabala lurlean zauden. Eskuin eta ezker joan behar nuen hirien huts egiteko, eta azkenekotz bidea galdu nuen. Nun-nahiko oihanetan lotsagarri da bidearen galtzea : hemengoetan bereziki. Hameka urhats

debalde eginik, ur hegi batetarat heldu nintzen azkenean. Han ezagutu nuen berritz nere burua eta ... nere bidea. Barnea kurrinkaz hasia nuen haatik, eta nik jateko mikorik ez ! Beharrik ez nuela gehiago bidearen laurdentsua baizik egiteko, tapatapa berritz abiatu nintzen ... afari ontto bati buruz. Hainbertzenarekin bide gurutze bat. Norat har ? Eskuin ala ezker ? Hartzen dut eskuin, eta bide phuska bat egiten ... makhur ! Gibelat ez itzultzeko bide beretik trebeska mozten dut. Oi, behin baino gehiagotan urrikitu zitzautan ! Bide laburrena, chuchena da alabainan ... eta ezagutzen dena. Trebeska abiatu nintzen tokian, oihana etzen lodi ez zikhin. Laster zikhindu zen haatik. Hango laphar eta behar ikaragarriak ! Ahal nuen bezala ibili behar nuen hango sasietan, hemen chutik, han potikoka, gero herrestan. Eta horra nun, oraino gehiago lotsatzeko, eskuin eta ezker zer-nahi arte ikusten dutan basurdentzat hedaturik ! Uste izan nuen nereak egin zuela eta othoitzean hasi nintzen : « Oi, Jainko Ona, urrikal zakizkit ! Urrikal zakizkit othoi ! Eta zu, nere Ama maitea, zato laster baino lasterrago nere laguntzerat ! Edo galdua naiz ! » Oren laurden batez ez nuen bertze othoitzik egin.

Artean basa abere baten urhatsak aski lotsaturik, orentsu baten buruan bide ona atcheman nuen eta Robangerat heldu. Ordu zuen : lau orenak ziren jada. Ez nuen gehiago oren baten bidea baizik. Eguerditik ez nuen chortarik nihun atcheman ez

edan. Etche batean edaterat galdetu nioten : etzautedan eman. Horrek Jesus gogoraturik, loriatu nintzen, eta, edan gabe, berritz abiatu. Ondikotz, Rohangetik haratchago bidea egundaino bezala galdu nuen eta ar-runt errebelatu nintzen. Iguzkia apalduchea zen jada, eta ni unhatzen hasia. Urez, lohiz eta izerdiz estalia, banindoan halere norapeit. Haitz baten puntarat iganik, eskuin eta ezker behatuko nuela nun zer ageri zen, aztaparka lothu nitzaion. Indarrek ez ninduten lagundu. Gau beltzak han atcheman ninduen, goizeko espantuak barna baino barnago. Zuhaitz handi bat bazen lurrean luze-luzea : aldean jarri nintzen, nere buruarekin elheketa : « Banu bederen su ttipi bat idortzeko, izerdi-sartu bat hemen atcheman gabe ! Su ttipi bat banu ! »

Saskian nituen nere othoitzeko liburu, pipa eta su phiztekoak. Su phizten ez nintzen trebe . . . eta ez nuen phizten ahal izan ! Etsitu nuen beraz gaua han eta hola-hola iragan beharko nuela ; othoitzak egin nituen eta lurrean etzan. Argia gabe iratzarria nintzela aise sinhetsiko duzue ? Gau hartan amets frango egin nuela ere, ba ? Lau zango-besoak harria bezala gogortuak nituen. . . Emeki-emeki odola denetan abiatu zitzautan haatik. Eta beha Jainkoa zoin ona den ! Goseak ez hiltzeko, kuia bat atcheman nuen hamar urhatsetan, jada basa-abereek hasia . . . eta lorietan iretsi ! Gosari on horren gatik, ez nintzen bezperan bezen gogotik lothu bideari. Ez nakien zoin alde har, hasteko ! Andredena Mariari gomendatu-

rik, abiatu nintzen itsurat, ezen itzul nadin eskuin, itzul nadin ezker, nihun etzen biderik ageri. Oren baten buruan nere zuhaitz eroriaren ondoan nintzen egundaino bezala. Berritz, zuhaitz baten puntarat joan behar nuela eginik, aztaparka lothu nitzaion lehenari, hortzak tinkatuz . . . eta puntaraino heldu. Zeren ikusteko ? Behar baino urrunago nintzela ! Urruntchago bidechka bat atchemanik, begiak zabalik jarraiki nitzaion eta ur hegi batetarat heldu. Bi gizon arraintzan ari ziren. Rohaieraino gidatu ninduten gogotik. Bederatziak ziren. Hila nintzen !

Bainan Jainkoa zoin ona den ! Badakizue zertako ziren nekhe, buru-hauste eta izialdura horiek guziak ? Hobeki goza nezan Rohaien igurikitzen ninduen zorion handi eta handia !

Misionestegirat lehertua heldu nintzelarik, Aita Desgouts etzen han : igandea baitzen, mezaren kantatzen ari zen. Orobat elizan ziren Aitaren laguntzaile gehienak. Etzaterat joan nintzen berehala, muthileri tarrapatan nere ichtorioa kondaturik. Bainan horra nun begien hesten hasi orduko, kantu bat bezala iduritzen zautan aldeko gambaratik. Chutiturik, banoa ikusterat nor den. Eta nor ikusten dut ? Misionest berri bat : Aita Arnoux, bezperan Annametik ethorria, nere lagun beharra ! Aspaldiko ezaguna nuen, bertzalde. Ez dakit egundaino nihor gogotikago besarkatu dutan ! Zer atsegina ! Zer zoriona ! Bai, laster ahantzi nituela nekheak eta bertzeak ! Pa-

risen elgar utzi ginuenean hitz hauk erran-  
nak niozkan: «Ikus arte ... salbaien her-  
rian!» Eta orai salbaien herrian ginuen el-  
gar ikusten!

— «Zure atzoko eta goiz huntako ichto-  
rio guzia bururen-buru entzuna dut. Egiaz-  
ki bideak ez balinbadituzu hobeki ezagut-  
zen, ez dakit noiz ikusiko dutan Kontrang?»  
Zer eguna iragan nuen Rohain!...

## HAMABIGARREN KAPITULUA

**Aita Arnoux eta Aita Dourisboure elgarre-  
kin. — Bainan laster badoa Aita Arnoux  
eriturik. — Badoazi ere Aita Fontaine  
eta Aita Desgouts, jaun aphezpikuaren  
manua izanik.**

Frantzia barnekoa zen Aita Arnoux, Be-  
sançon deithu hiri handikoa. Diosesa hor-  
tarik hainitz misionest bada. Nere Jaun  
Cuenoten herritarra eta ahaidea zelakotz  
igorria zuten salbaietarat. Eskola berezi bat-  
zu eginaraziak ziozkaten, arras hartze ona  
zuelakotz, egun batez hemengo berriak ja-  
kintsuneri Frantziarat igor zetzan. Jada  
ukhana izan ez balu misionest joateko ze-  
ruko deia, Frantzian berean bide ederra  
eginen zuen. Hameka eskaintza lorios egi-  
nak ziozkaten mundutarrek!

Adichkide handiak ginen. Eta aspaldiko  
adichkideak. Sotana hartzekoa ginuen edo  
doidoia hartua, Pariserat joan ginelarik  
1846-an. Han hirur urthe egon ginen elgar-  
rekin. Horra nere lagun berria. Zer zoriona



neretzat biharamunean harekin Kontran-geko bideari lotzea !

Aita Arnoux hortzez eta haginez berehala hasi zen mintzairaren ikasten. Nere laguntzarekin, laster ikasi zuen. Lamén etche handian egoten ginen, eta mihise berean egiten ginuen lo. Elgarrekin harache hunache gure othoitzak irakur oihanean, atsegin eta bihotzmin guziak erdizka, oi zer bizia gineraman !

Neronek nazkien guziak irakusten niozkan, zoin landare zen jateko ona, zoin pozoina. Haragikiarekin ez da landarekin bezalako pozoinatzeko irriskurik. Behin salbaia bati, zer gerta ere, galdetu nion zoin diren jateko on diren abere, alimale eta manuak. Badakizue zer ihardetsi zautan ? « Lasterrago izenda netzazke jateko on ez direnak ! Hemen jaten ditugu, salbulau ! » Eta lau horiek izendatu zauzkidan. « Horietaz kampo, lurrean eta uretan higitzen den guzia jan dezakezu ! » Horrek ez du oraino erran nahi jaterat zoazin abere, alimale eta manuak tiroz edo ukaldika hila izan behar duela : ez. Bera hila, usteltzen eta usaintzen hasia izanik ere, bardin on zaiote salbaieri. Behin oihanean nindoan : Dakrotingeko gizon bat oihuka hasten zaut eia nahi dudan haren bazkariaren erdia. Badakizue zer zuen bazkaltzeko ? Orkatz usteldu bat, harrak polliki khendurik suan errea !

Salbaiek jaten dutena, misionestek ere jaten dute ... demborarekin. Hek hilarazten ez dituenak, zerako hilaraziko gaitu ?

Eta zenbeit aldiz, nahi dena ez delarik ... ahal dena jan behar ! Gosea bezalakorik ez da begien muthur churieneri hetsarazteko. Zenbat zakhur, arratoin, sagu, chimino, suge eta apho ez dugu, bertzerik ez ginuelakotz, irrisarekin nahasirik jan ! — « Zer ? Aphoak ere ba ? » — « Ba ... eta beharri chilorat erranen dautzuet, ahotik ezin utziak direla ! Arroltzeak khen zotzue arthoski ; pozoina baitute, larru zatzue ongi ... eta trunkilki jan ! » — « Bainan, Aita gai-choa, ez othe zare basa-jende horiekin, guti edo aski zeroni basatzen hasia ? » — « Baditake : baditake, bainan ez neri erran aphoak ez direla jateko onak ! »

Bainan ez dut etcheke-andereentzat hasia baxharrik liburu hau : sukhaldeko lanetan ez othe naiz beraz sobera trikatu ? Goazen orai kaporat.

Aita Arnoux arras azkarra zen, itchuraz bederen. Bigak abiatzen ginelarik, ni bezen aise helduko zen norat-nahi. Eta hitz dautzuet, orduan neri jarraikiko zena zerbeit bazela ! Bai, azkarra zen Aita Arnoux ! Bainan hango jatekoa nihundik etzezaken har, are gutiago atchik. Laster apetitu guzia joan zitzaion beraz eta arras ahuldu zen. Horra nun lotzen zaizkon barneko minak hainbertzenarekin. Krok egin zen zenbeit egunik barnean eta haria bezala mehatu. Eta haren bihotza halere ! — « Nik ez dut dem-bora handirik bizitzeko, zautan gozoki erraiten, eta beldurtzeko da hemen gaindiko misionestetan bat ez dela zahartuko, bat ez dela hamabortz urthe iraunen duenik !

Denik ere, zuk, zure osasun paregabearekin. Bai, sinhetsazu bertze guziak laster joanen garela ! »

Gaicho Aita Arnoux ! Egia zuen segurki etzuela hainitz iraunen : aspaldi hila da : hilak ere Aita Combes eta Aita Desgouts : hilak oraino geroztik salbaietararat ethorri bospasei misionest gazte : Aita Fontaine, eriz, eskualde hautarik urrundua. Hamabortz urtheak joan dire . . . eta, guzietarik ni bizi baxharrik ! Ni ere flakatuhea haatik ! Beldurtzeko da ez dutala gehiago hainitz iraunen orai ! Bainan, Jainkoak nahi duen bezala, guzien buruan !

Aita Arnoux etzuen lehen eritasunak ereman. Altchatu zen, behinere ongi azkartu gabe haatik, eta Kontrangen, ez eri ba eri, urthe bat iragan zuen oraino. Azkenekotz hala flakatu zen nun nahi-ta ez salbaietararik urundu behar izan baitzuen. Etzen haatik aise erori hortarat. Annamerat joaiterat ezin deliberatuz, zenbeit dembora egon zen oraino Koxamen. Bainan gaitza sobera sartua zuen. Joan zen. Ez dugu guk ikusi geroztik. Laster hil zen.

Aita Combeseekin bazen Bao izena zuen aphezgei bat, haste-haste hartan ethorria. Hari fidatu ginion Aita Arnoux Cochinchinarat joiteko. Hiruzpalau lagun bazituzten, zer gerta ere. Bao apheztu da geroztik eta nerekin egon luzez. Zembatetan ez diozkat erran-arazi itzuli hortako berriak, hunkigarriaren hunkigarriz ! Ez ditake lotsagarriagorik deus amets ! Aita Arnoux bizkarrean ibili zuten, minarekin orroaz. An-

nameko lurretan sartu ondoan etzitazken gehiago egunaz ibil. Gau batez, ur hegirat hurbiltzean handik untziz joateko, elefant tropa batek inguratu zituen. Beharrik nunbeitik hasi atabal batzuek lotsatu bait zituzten elefantak, eta eri gaichoa untzirat ereman zuten, hats bahi. Bizirik heldu zen halere aphezpikutegiraino. Ondikotz, han egin ziozkaten guziek etzuten sendatu: pedachatu bakharrik. Hamar bat urthe umechurtchtegi batean egonik, Hong-Kongen hil zen.

Aita Arnoux eriz joan orduko, Aita Fontaine ere galdu behar ginuen. Jada ukhana zuen jaun aphezpikuaren hitz bat bi misio-  
nest Anamitek hasi elizadi batetarat joiteko, buruzagi bezala. Elizadi hortan ikaragarritzko beroak egiten ditu eta Aita Fontaine jada ahuldua zen. Etzuen ihardoki beroeri: eritu zen berehala eta Frantziarat igorri zuten sendatzerat. Bigarren egonaldi bat egin du geroztik hemen gaindi Aita Fontainek, bainan berritz eriturik Frantziarat sartu behar izan zuen. Laval deithu hirian hila da 1871 garrenean, urthea hasi eta laster.

Do Annamerat joanez geroztik, Aita Desgouts erran ditake bakharrik zela Rohaien. Hura ere khendu zaukun jaun aphezpi-  
kuak. Ikastegi bat bazuen Rohaien Aita Desgoutsek, bainan liburuetan baino dem-  
bora gehiago iragaiten zuten hango haur gaichoek sendagailu hartzen. Rohaieko aroa etzen hoberenatarik osasunarentzat. Bere meneko ikasle guziekin, Nere Jaun Cueno-

tek Aita Desgouts joanarazi zuen beraz Bonongarren herrirat. Ondikotz, Aita Desgouts zahartuegia zen, erro berriak bertze nunbeit egiteko, eta sukhar eta hertzetako minek hartu zuten. Frantzian hila da.

Salbaiekin biga ginen beraz baxharrik orai: Aita Combes eta ni. Bainan hain urrun elgarretarik! Kontrangetarrak urrikaldu zauzkitan, nere baxhartasuna ikusirik, eta etche bat egin zautaten. Bederen egun guziez meza sainduaren errateko zoriona banuen ordutik! Ni bezala galduak egon direnek badakite zer erran nahi duen horrek! Meza sainduaren ematea! Jainkoa bihotzean kokatzea!

Aita Combes ere urrikaldu zitzautan, eta Luk deithu muthil bat igorri zautan nere jatekoaren moldatzeko eta bertze lan ttipi batzuen egiteko. Erran ditake gehiago ez nintzela arras baxharrik. Lam gaizoaren etcheko biziak bertzerik zen etche berri hartakoa. Lamen etchean oihu eta izkirituek burua hausten zautedan: etche berrian Jainkoa baizik etzen mintzo bere misionest gaichoarekin ...

## HAMAHIRUGARREN KAPITULUA

**Ngui eta Pat katichimaren ikasten abiatzen zauzkit neri, eta Hemur Aita Combesi**

Kontrangeko mintzaira aski polliki ikasten hasia nuen. Banharrez jada baitzuen Aita Combesek othoitz eta egia beharrenekin katichima ttipitto bat egina, gure

mintzairarat itzuli nuen. Bethi Jainko Onari othoitzean ari nintzen salbaiak argi zetzan. Entzun ninduen azkenean.

Bi haur maiteri ideki ziozkaten lehenik begiak eta bihotza. Batek hamabi urthe zituen eta Ngui izena. Lamén seme gazteena. Jada ez othe dut errana haur hori, othoitzean hasi orduko, ondoan nuela, beha eta beha ? Berenaz aski bortitza zen. Arras bihotz onekoa haatik. Lamén etchetik nere etcherat joan nintzanean, haurrak ez ninduen segurki ahantzi : noiz-nahi ikusterat ethorria nuen. Arras adichkidetu ginen beraz. Hola ikusterat heldu zitzautanetan, dembora ez nuen galtzen eta egia onik erraten nion beharri chilorat. Ifernuak arras lotsatzen zuela oharturik, harat ez joaitekotz othoitzak ikasi behar zituela baitezpada, buruan sar-arazi nion. Gogotik ikasi zituen eta lorietan egun guziez erraten hasi. Bi ilhabeteren buruko sinhestea bazuen eta irri egiten zioten bere herritarren chiminokeria batzueri.

Holakatua ikusi nuelarik, behin galde hau egin nion : « Haurra, sinhesten duk orai Jainko bat badela, eta ez dela bat baizik ; sinhesten hil-eta phiztuko haizela ; sinhesten onak zerurat joaiten direla eta ifernurat gaichtoak ! Bainan zerk sinhetsarazi daizkik egia horiek ? » — « Aita, hastean zure erranak ez nituen sinhesten : emeki emeki sinhetsi ditut. Zerk sinhetsarazi dauzkidan nahi duzu jakin ? Ez dakit neronek . . . bainan sinhesten ditut ! »

Nguiren katichimako lagunak Pat zuen

izena eta bederatzi urthe zituen. Badakigu Jainkoak urririk ematen dituela bere dohainak: ez haatik zer chede duen ! Beha. Koxametik aski hurbil zagozin haur hunen burhasoak, Konxokou deithu herrian. Bada, Hojoltarrekin hasarre ziren Konxokouarrak. Hek hauier, uste gabetan, gainerat ethorri zitzaizkoten eguerdi batez eta oro preso ereman zituzten, urrun lanean zirenak salbu. Hain chuchen etziren lanean Paten burhaso eta haurrideak. Etsaiari jarraiki behar izan zuten beraz, ichil-ichila, amak eta hurrek, aita, jazarri zelakotz, Hojoltarrek han berean hilik. Pat handituche arte hazi zuten eta, zerbeit balio zuela iduritu zitzaiotenean, Kontrangen saldu. Nik erosi nuen. Horra Nguirekin batean nor zabilkidan beraz katichimaren ikasten. Elgar arras maite zuten bi hurrek, eta uste dut nere erranak baino gogotikago sinhesten zituen Nguirenak Patek. Beharrik ez baitzion deus onik baizik erraiten ! Behin huna zer entzun nion : « Pat, ez duk erran behar ! Jainkoak zoin maite hauen haatik ! Esklabo hiltzeko sortua hintzen eta ez haiz esklabo ! Hire etchean egon bahintz, Jainkoa ez huen ezagutuko, eta orai ezagutzen duk ! Etchean egonez ez huen ifernuan erretzea baizik igurikatzen ahal ! Oi, zoin maite eta zoin maite hauen Jainkoak ! »

Bertze aldi batez ere Nguie entzun nuen hola-hola : « Pat, gau guziez lokhartzerat noalarik, beldur tzar batek hartzen naik gau hartan hil behar dutala ! Oi, bathaiatua banintz bederen zerurat joaiteko ! »

Ikasiago eta hobeago zoan Ngui. Hain bortitza lehen, orai aingeru bat bezen ez-tia ! Aita bera harritua zen. Lehen mihi zikhina bezen garbia orai ! Min ttipi bat egin orduko, lehen zalapartaka eta arneguka hasiko zen : orai, gehiago min harturik ere, begiak zerurat altchatuko zituen berehala eta bere mina Jainkoari eskainiko. Patek jite ona baitzuen eta ez baitzen oraino galdua, aise asmatzen duzue zer ongia egiten zion Ngui bezalako lagun batek . . .

Bere aldetik Aita Combes lanean ari zen, eta geroa gero eta ederrago ikusten zuen harek ere. Aspaldi errana baitzuen Banharretan segur Hemur hasiko zela lehenik katichimaren ikasten, hala-hala gertatu zen. Arras gizon zuzena zen Hemur : gezurra hastio zuen : nor-nahiri zerbitzu egingen zion. Eta san Tomasek dionaz, holako gizona bathaiorik gabe utziko duen baino lehenago Jainkoak bathaiatzale bat igorriko dio zerutik edo nunbeitik ! Hemen ere atchewan ditake segurki bat edo bat zuzentasuna maitate duenik, baina Hemur bezen garbirik mihiz eta orotaz nihun guti atchematen da. Badakizue behin zer erran zion Aita Combesi, hau seigarren manamenduaz mintzatzan hasi-eta ? « Aita, ez du balio mintzazakidan manamendu hortaz. Aspaldi badakit zer egin dezakedan eta ez, zer gogoan erabil dezakedan eta ez. Gaztean neskatcha batekin buruz-buru egiten banuen bidean, berehala, debrua nitan ez sartzeko, bertze alderat itzultzen nituen begiak ! » Horra nor eta zer zen Hemur. Nor harri beraz



bertze guziak baino lehenago hautatu badu Jainkoak ? Eta bizkitartean etzuen berehala amor eman Hemurrek ! Beharriak aski luzez hetsi zituen Jainkoaren deiari ! Funtsean, bere alderdi onen itzalak bazituen : han sortua, han handitua, arras eta arras hango chorokeria eta sinheste ergel guziera atchikia zen ! Aita Combesek erraiten ziozkanak sinhesten zituen segurki, bainan nola egunetik bertzerat utz odolean zituen guziak ? Bertzalde han gaindi ez othe zuten orok erraten, haurrean ikasieri ukho egiten bazuen, hilen zela ? Horiek guziak bazakizkan Aita Combesek, eta othoitz eginarazten zion : « Argia galde zok Jainkoari : emanen daik ». Goizean, arratsean, noiz-nahi, bakhartasunean edo nornahiren aintzinean, othoitzean ari zen beraz Hemur, ahalgerik gabe. Eta kopeta gorarik mintzo zen bere herritarrerri Jainkoaz, jujamenduaz, ifernuaz. Erori zen halere azkenean eta bathaioa galdetu. Ez dut finkatuko geroztik ere behin edo bertze ez dela herriko chorokeria hetarat lerratu : hala ez denaren finkatzea litake naski, bainan egunetik egunerat azkarrago zen halere. Beha. Bathaiatu zen urthean, uztak huts eginik, Koxamen eta inguruetan gosetea sartu zen. Euriteak hastean arthoak egitea bezalakorik etzen, jateko zerbeit ukhaiteko, irrisa ethorri artean. Bainan hemen gaindi ez da noiz-nahi erain behar ; jainkoek badiutuzte beren egunak. Artean goseak hilen bada ere, laborariak jainkoen ilhargitzearen beha egon behar du. Bada, Aita Combesek

erranik, Hemurrek bere arthoa egin zuen, ilhargitzeari behatu gabe. Zer-nahi erran zion jendeki guziak : « Arthoa ilhabete huntan egiten duzu, dohakabea ? Etzautzu ethorriko . . . eta baldin ethortzen bada, ez duzu baliatuko : jainkoek lehenago eremanen zaituzte ! Etzatzu kampoar horiek sinhets : heriotzea aski goiz ethorriko zautzu segurki eta halere ! »

Guzien gatik, arthoa sortu zen, handitu, eta onthu ! Eta jada errana errepikatu dezagun, goseak ez baitu legerik, doidoiako erasia egile horiek zioten lehenik bere arthoa erosi Hemurri. Eta nihor etzen hil halere ! Ederki trufatu zituen haatik gure gizonak : « Ha ! ha ! Beldur zineten hilen nintzela, orduan arthoak eginez ! Eta egin ez banitu, ez othe zineten zuek hilen ? »

Berri hori laster hedatu zen inguruetan, eta Koxamen bereziki prediku hoberenak bezenbat ongi egin zuen. Haatik Jainkoak nahi izan balu urthe hartan hil zadin Hemur, ez dakit Aita Combes hainitz sinhetsiko zuten handik goiti salbaiek. Beldurtzeko da ezetz. Aita Combesek othoitz ederrik egin zuen bethi herritik gertakari tchar guzien urruntzeko. Ogi eraiten hasi zen egunean Hemurrek minharturik, gutik egin zuen bazterrak ez baitziren arras nahasi eta hain ongi hasi lana betbetan gelditu ! Bainen, zorionez odola abiatu bezen laster gelditu zitzaion dohakabeari eta Jainkoak, gaitz handienen mirikuak, laster sendatu zuen . . .

## HAMALAUGARREN KAPITULUA

### **Ngui, Pat eta Hemurren bathaioak**

#### **1853-garren urthean**

Aspaldiskoan iduritzen zitzautan Ngui aise bathaia zitakeela: Girichtino hoberen-hoberenak bezen ongi bizi zen jada: bere elhetan etzuen iduri pagano herrietan sortua eta altchatua zela. Jainkoaren beldurrarekin Jainkoaren amodioa bazuen. Eta halere bathaiatzerat ezin menturatuz nindagon!

Haur hotza oraino, hoinbertze paganoen erdian baxharrik, beldur nintzen etzezaten lotsa etchekeo trufa, irri gaichto, elhe tzar eta mehatchuek. Othoizka ari zitzautan bizkitartean bathaia nezan eta bathaia nezan. Zenbatetan etzautan errepikatzen behin bere adichkideari erraten aditu nion solas bera: « Lotsa naiz etzaterat joaiteko! Hiltzerat heldu banintz lotarik, ez nindaiteke bathaiatua! »

Nere beldurrak zabal-zabala erran niozkan, bada, hola mintzatu zitzautan batez. Badakizue zer ihardetsi zautan? « Oi Aita, zer uste duzu, etchekeo guziek, herritar guziek, Sedangetar guziek ifernurat joan nahi badute, hala nahi dutala nik ere? Egin dezatela nahi dutena, hek: nik badakit nere eginbidea zer den eta bethe nahi dut! » Bi musu gozo eman niozkan berehala ...

Nola gogor egin oraino? Hitzeman nion laster bathaiatuko nuela. « Bainan, haurra,

etzak ahantz zer erran dautakan ! » Bai, holakoetan misionestak ahanzten ditu nekhe, buru-hauste, bihotzmin eta gainerateko guziak . . .

Ordutik bere bathaioko eguneraino erran dezaket Ngui aingeru bat izatu dela. Bere bihotzeko gaindia Pat bere lagunaren bihotzerat ichurtzen zuen. Hau haurtchago baitzen, etzituen oro Nguik bezala pisatzen segurki, bainan horrengatik aski eta aski bazakien segurki.

Aita Combes egun handiaren beha zagon bethi. Aspaldiskoan errana zautan baitezpada Nguien bathaioan kausitu nahiko zuela. Bezperan ethorri zen, Hemurrekin. Kaperako athean bathaioko othoitzak hastean Nguiri galdetu niolarik eia sinhesten zuen Jainkoa baitan eta ukho egin nahi zuen debruari, aditu bazinute haur gaichoak nola ihardetsi zautan ! Erran nion ihardets zezan, liburuak erraten duen bezala « Sinhesten dut » eta « Ukho egiten dut ». Etzitzaion aski iduri hola ihardestea, eta su bat begietan erran zautan : « Bai, bai, ukho egiten dut segurki debruari, bihotzaren erdi erditik, tzarra baita ! »

Aita Combes loriatua zagon eta bathaiotik lekora galdetu zautan : « Eta orai ahanzten ahal othe ditugu Kolang eta bertzetako bihotzmin eta lotsak ? » — « Uste nuke ! »

Ngui eta Pat, horra beraz Jainko maiteari eman diozkadan lehen bi Salbaiak. Horra eskualde hautan ukhan dutan lehen zorionezko eguna. Ngui, deithu nuen Josep ; bertzea, Jean. Urrunago erranen dautzuet

nola galdu nuen Josep hamasei urthetan eta zoin ongi atchiki zituen hil arte bathaio-ko agintza guziak. Jean bizi da oraino egungo egunean: hogoita bi urthe ditu eta ez da hemen gaindi girichtino hoberik. Joan-den urthean emaztegai bat atchewan nion arras behar den bezalakoa: bainan, ondikotz pikotak ereman dio. Uste dut jada zeruan dela neskatcha gaichoa. Muthiko gazteak nigar ederrik egin du bere lagun-beharra galdu duelarik, bainan Jainkoaren nahirat arras eroria da orai.

Josep eta Jean bathaiatu nituen egunean, bazkaritto bat eman nuen, nere zorionaren ongi agertzeko alde batetik, Aita Combes eta Hemurren ohoretan bertzetik. Orduantche Ngam, Josepen anaia zaharrena, athean ikusirik, Aita Combes hurbildu zitautan: « Nor da muthiko gazte hori ? » — « Josepen anaia » — « Behinere Jainkoaz mintzatu zitzaizkio ? » — « Bai, bainan ez du iduri hainitz sinhetsi nahi nauela. » — « Zaude ichilik ! Etzaituela sinhesten ? Eta nik erraten dautzut berritz, muthiko gazte horrek girichtino on bat eginen duela oraino ! Begietan irakurtzen diot. Etzazula nik errana ahantz ! » Liburu huntan berritz ere Ngam hortaz mintzatu beharko nitzaitzue: merezituko du egiazki.

Frogak emanak zituen Hemurrek ere bere aldetik. Ordu zuen beraz Jainkoaren arthaldean sar zadin. Noizetik noizerat paganoen chorokeria batzuetarat erortzen edo lerratzen bazen oraino, berehala urrikitzen zitzaion, eta gero-ta gehiago misionestaren

erakaspinari zagon. Guzien buruan bathaioak etzuela azkartuko baizik, Aita Combesek eguna hautatu zuen eta joan nintzen ni ere, Josep eta Jean lagun harturik. Bathaioko bezperan heldu ginen Koxamerat. Aspaldi bazakien Hemurrek bathaiatu baino lehen bere « domong » edo jainko faltso gerizatzaileak han-harat igorri beharko zituela: Aitak aski errana zion.

Harriz edo zurez eginak dire « domong » horiek. Molde guzietakoak badire. Ez da hemen gaindi etcherik jainko geritzatzaile horietarik ez duenik: batzu irrisa uztaren gerizatzeke dituzte, bertzeak sal-erospenak ongi eginarazteko, zenbeit osagarriaren atchikitzeke, gaineratekoak nork daki zertako. Gehien-gehienik atchikitzen dioten jainko gerizatzailea irrisarena dute. Irrisa egiten dutenean, irrisa handitzen ari denean, irrisa ondu denean, zer-nahi eskaini behar diote gerizatzaile horri, edo cherri, edo ahuntz, edo basa-idi. Hola eskaini dutenaren odolean jainko hori ongi mainhatu behar da. Eta bertze holako mila chorokeria ... aiphatzea ere merezi ez dutenak. Zaku berezi batean atchikitzen dituzte hemengo salbaiek delako jainkoak.

Koxamerat heldu gineneke, Hemur ikusi ginuen zaku bat eskuan. Bere jainkoak zituen hartan eta Aitari zeramazkion. Aphez-etcherat orduko, puska tzar batzu bezala oro lurrean hedatu zituen. Hain chuchen salbaia zenbeit baziren han: ikaragarritzko izialdura batek hartu zituen. Nihork ahorik etzuen idekitzen gehiago. Josep hurbil-

du zen, lurretik bi jainko hartu zituen eta koskaka porroskatu, trufa baino musika handiago egiteko hitz hauk erranez : « Oi, zoin indar guti duten jainko hauk ! Eia bertze horiek gehichago baduten ? » Eta martilu batekin mila eta mila pusketan ezarri zituen : « Aita, su harririk batere ez baitut gehiago, uste duzu puska horietarik bat har dezakedala ? » — « Segurki hartzen ahal baituk, Josep ! » Hango salbaien begikaldi harrituak ikusi bazintuzte ?

Biharamuneko phesta ederra ! Egun eder-ragorik ez du ikusi Hemurrek. Ez eta guk. Haren begitarteko atsegina bathaioko dem-bora guzian ! Josep eman ginion hari ere izena. Bathaiatu orduko, bere sinhestearen orori ongi baino hobeki ezagutarazteko, lasterka berak ekarri jainko heyen phorrosketarat joan zen eta oro bildurik besainka erre-kak behera igorri zituen. Lan horren egi-ten gogotik lagunduko zuen Josep ttipiak ere ; etzuen utzi, ezen berea bazuen buruan. Han harat igorri-eta, ondotik oi-hu egiten zioten bere jainkoeri : « Zoazte ! Zoazte ! Eta hitz dautzuet sekulako agur erraten ahal diozuela orai nere cherri, ardi, oilo eta gainerakoeri ! Ez duzue hemendik goiti hainitz milikatuko ! »

Hemurren arreba bera harritua zagon urruntchagotik : lotsaren lotsaz nigar ere egin zuen ... ezen Jainkoaren deia etzuen oraino entzuna ! Gerochago ethorri zitzaion haatik eta anaiak bezalako girichtino on eta kartsu bat egin du ...

## HAMABORTZGARREN KAPITULUA

### **Aita Do Rohaien**

### **Luk nere zerbitzariaren heriotzea**

### **Aita Verdler gurekin**

Nere Jaun Cuenotekin urthe bat egon-eta apheztu zen Do : Rohaierat igorri zuen jaun aphezpikuak, 1853 garren urthearen erditsutan bezala. Nahiz herri hortako jendea etzen arras Tobauekoa bezen tzar eta ohoina, etzuen hain fama ona ere. Rohaieko jende guzia nunbeitik ethorria zen, orotan zorrak eginik, joka arizanik... edo bertze holako zerbeiten gatik. Laster oharturik lan on guti eginen zuela holako lurrean, Aita Dok bere buruan iragan zuen herrichka berri bat egin behar zuela eta bizpahirur etche bere langileeri eginarazi ziozkaten Rohaieko inguruetan nunbeit. Uretik edo zubitik irrisaren biltzeko bai-eta kampo lanen egiteko, zenbeit esklabo merkatu batean erosi zituen berehala eta jozak eta emak lothu lanari. Artean errateko, esklabo horiek bathaiatuko ditu lehenik. Ez da hori baino molde hoberik herri eta herrichka girichtinoen hemen gaindi sor-arazteko. Bada bertze misionestik ere frogatu duenik. Laosetik hunat esklabo merkatu handiak egiten dire. Ahal dugunean esklabo horietarik zenbeit erosten dugu eta laborantzari lotarazten. Oihanak errotik atheratu ondoan, landak egiten dituzte berentzat. Bathaiatu ditugularik, horra herri girichtino bat gure-gurea !



Bertze esklabo batzu badire, oraino gehiago bilhatzen ditugunak eta arras sos eskasa behar dugu horien ez erosteko: umachurtch eta haur utziak. Erosi-eta, handitu arte geronek laguntzen ditugu, ezkontzaraino.

Aita Dok egin etcheek laster ukhan zuten galdetzaile eta beraz herrichka berri bat sortu zen Rohaieko alde-aldean. Ondikotz, inguruan etzuen lur ibilirik, ez-eta ibil errechik, eta lan handiagoeri lotzeko, sosa eskas ! Etchetik urrun hasi zen beraz lanean Aita Do. Bainan langileeri bidea luzeegi zitzaioten goiz-arrats guziez egiteko. Zer egin beraz ? Oihanaren erdian etchola batzuetan egiten zuten lo orok, lantegitik hurbil, larumbat arratsaldea ethorri arte, orduan etcherat itzultzeko eta igande eguna Aita Dorekin iragaiteko. Oihan hartan arras lur onak zirela aditurik, zenbeit Salbaia urrundik ethorri zitzaizkon Aita Dori, toki galdez, eta Aita Dok gogotik onhartu zioten galdea. Eta horra nola sortu zen Dakham derizan herria. Herri hortan egungo egunean berrehun girichtinoz goiti badugu, 1865 garren urthean pikotak ereman zauzkun hiruetan hogoiengatik. Aita Do etzen behinere lokhartzen eta bide bat eginarazi zioten bere langileeri Koxametik Dakhamerat, eta orai hura da bi herrietako erretor.

Bainan ez gaiten urrunegi joan ... eta itzul gaiten Kontrangerat. Nere Josep maitiak etzautan atseginik baizik emaiten, bainan debruak etzuen nik bezala maitatzeko arrazoinik. Frogatu dauku.

Behin baino gehiagotan erran dautzuet Lam Josepen aitak jendeki handia bazuela eta berrogoi bizitzalez goiti bazela haren etchean. Hautan, frango muthil eta neska Josepen eite handirik etzutenak ! Ahoan bilorik gabe, beren bortz egiak erraten ziozkaten Josepek. Begitan hartu zuten beraz, eta, oro hitzarturik, trufaz hasi zitzaieten. Othoitzean hasten zeneko, etzen heyen irrien parerik ! Halere etzen lotsatzen haurra, eta herritarrak beren jainko gerizatzaileekin delako chorokerietan ikusten zituelarik, asto churiarenak eta beltcharenak erraten ziozkaten ... bainan handiagoak bertzeek ! Amor behinere emanarazi gabe haatik ! Lam, ichil-ichila, zoko batetik beharriak luzaturik egoten zitzaieten holakoetan. Hain maite zuen bere Josep eta batere etzitzaion itsusi aphez bat bezen ederki mintzatzan aditzea ! Bertzalde etchean nihork ez baitzion Josepek bezen ongi obeditzen, bertzelakatze hori gure gain ematen zuen eta gogotik uzten zaukun etcherat. Egun batez oharturik sobera eta sobera trufa egiten ziotela bere etchean haur gaichoari, aitari galdetu nion alderat utz zezan aphez etchean. Lorietan baietz ihardetsi zautan Lamek, eta geroztik Josepek urthe bat iragan du gutartean.

Adin hortan lagunak nahi dire eta laster Kontrangetar gazte andana bat etcherat bildu zaukun Josepek. Egia erran, hori neronek galdetu nion. Behin baino gehiagotan othoitz eginarazten nion lagun horien chedatarat. Holako haur baten othoitzak zer

indarra ez du ! Beraz Josepen lagunak has-tean aski lotsatzen bazituen nere bizar handiak, laster hartu ninduten eta maitatu, eta hasi nitzaioten Jainkoaz mintzatzeko. Othoitzak irakutsi giniozkaten lehenik : gero, katichima. Josepek laguntzen ninduen ederki. Zenbeit ilhabeteren buruko sinhestea bazuten. Erran ditake Josep zutela orduetik bere nausi bakhar eta gidaria : adin berekoak izanagatik, oro hari zagozkion orotan. Halere haur horietan hirur baziren, den gutieneko dudarik gabe, bertze guziek baino gei hobea zutenak. Frogatu zautedan laster. Behin fama hedatu zen Kontrangen, herri hurni hauzo-herri batek gerla egin gogo ziola. Holakoak aintzinetik jakiten direnean, emazte eta haurrak geriza zenbeitetan gordetzen dire, etsaiak ibili behar duen bidetarik urrun. Gerlako eguna ethorri zelarik, gizon guziak elgarretaratu ziren eta herritik kampo joan. Delako hirur haurrak etziren ameri jarraiki, heyekin nunbeit gordetzeko eta aphez-etcherat ethorri zitzaizkion. Josepek galde-tu zioten zertako etzoazin ihesi. — « Ni hemen egotea zuzen duk, erran baititake Aita Dourisbouren haurra naizela. Bainan zuek ? Zertan zitazkete etsaiek hemen atchematen bazaituzte ? » — « Hi bathaiatua haiz ! Hiltzen bahintz, zerurat joan hintake ! Gu aldiz ? Ez diagu beraz urrundu nahi hemen-dik, hil behar badugu, hil gaiten bederen Aitak berehala bathaiaturik ! » Eta aphez-etchean egon ziren. Etzen halere etsaia agertu... eta haurrak ez nituen oraino bathaiatu. Anamita bat banuen etchean : urthe har-

tan hil zitzautan : Luk zuen izena eta Cochinchinako hiri-nausiaren ingurutakoa zen. Hogoita bortz urthetako muthil azkar bat, maitagarri bezen langilea. Etzakien nerretzat zer egin. Gau gehien gehienez arraintzarat joaiten zen arrain bat edo bertze neri janarazi beharrez. Baditake bizi airetto bat bazuen, mimeteraskoa ere othe zen, baina gizagaizoak etzuen bertze itzalik ez erratekorik. Ezagutu ez nion gaitz batek ereman zaukun bi egunik barnean. Lau baizik ez ginen etchean : Josep, Jean, Luk eta ni. Beilatzaile nintzen hil zen gauean. Lo zauden Josep eta Jean. Beharrez ni kampiono joan-eta, haurrerri oihi egin zioten eriak. Gerochago jakindu nuen zertako. Zer-nahi ikusten zuen, baina errenkurarik gabe, artetan Jainkoari othoitzean. Memento bategiz mina eztiturik, lokhartzerat bezala egin zuen. Lehertua nintzen neroni eta loak hartu ninduen. Eta horra nun nere lotik kaskako batzu aditzen ditudan. Atzarri nintzen berehala ... eta harritu ! Nere eria, harri handi bat eskuan, harekin bere buruari kaskaka ari zen ...

— « Dohakabea, zer ari haiz hola ? »

— Aita, ez naiz bekatoros handi bat baizik eta beldur naiz nere bekatuez ez dutan urriki aski : horra zertako ari naizen hola nere buruari joka ! »

Berehala gogoratu zitzautan harria haurrerri galdetu ziotela, nik ez niolakoan emanen. Eta hala zen. Argia gabe hila ginuen. Neronek garbitu nuen burutik zangoeta-

raino : soineko berri batzu eman niozkan eta hogoita lau orenen buruan ehortzi. Haurrek etzuten ikusi hiltzen.

1854 garren urthean sartuak ginen. Ez ditake asma Binh-Dinheko orduko gobernadorea baino gizon tzar eta errebesagorik, Bere buruzagieri deusik galdetu gabe, girichtinozn kontra hasi zen gerlan. Girichtinoen etcheak behar ziren ere eta heyen lurrak orori partitu. Aphezak, nihundik ahal bazen, preso ereman behar ziren, eta aphezekin atherbea ematen zioten guziak. Hain chuchen hirur etche bagintuen delako eskualdean : bat Tramgonen, bertzea Ansonen, eta hirurgarrena Ben deithu herrichkan, Tramgonetik egun erdi baten bidean.

Nere Jaun Cuenot, Aita Arnoux eta Aita Verdier (hau misionest berria) irrisku handitan ziren beraz. Han berean egonez, etzuten etsaiari eskapatzerik. Aita Verdier gure eskualdetarat igorri zuten beraz berehala, Bao aphezgeia lagun emanik bideko. Behar zen bihotz orduan bideari lotzeko ; baina bihotzak ez dio behinere huts egiten sinhestea hedatu nahi duenari ... eta abiatu ziren, jaun aphezpikuaren manua ukhan zuten bezen laster.

Montaubaneko diosesakoa zen Aita Verdier sortzez. Arras gazterik galdetu zuen Pariseko misionesten ikastegian sartzea. Gazteegi zela, etzuten onhartu nahi izan oraino. Lazarichtetan sartu zen beraz, lehenbailehen Jainkoaren deiari ihardesteko. Baina Lazarichtak ez dire oro salbaietaratu joaiten, eta menturaz etzutela hura ere he-

tarat igorriko, Aita Verdier berritz Pariseko gure ikastegirat helaka hasi zen. Aldi huntan hartu zuten. Nik Cochinchinarateko bidea hartu baino lehentchago ethorri zen Pariserat. Ezagutzen nuen beraz jada eta aise asmatuko duzue zer atsegina ukhan nuen Aita Combesek erran zautalarik laguntzat emanen zauntala.

Bethi zer berak ez errepikatzeko, ez dautzuet erranen nun eta nola ibili zen Aita Verdier Kontrangerat heltzeko. Bigarren gauean Benen ziren Aita hori eta Bao. Eguna han iragaiteko chedea zuten. Norbeitek salaturik Beneko etchea egun hartan berean erre beharra zutela etsaiek, berehala ur hegiko sasi handi batzuetan gorde ziren. Tramgorat heldu zirelarik ere sasietan egon ziren egunaz, hango gure etchea jada errea baitzen ! Hirur egun luzez bi bidekarien bideko lagun baxharra, gosea izatu zen. Irriarik etzuten eta etzitazken mentura norbeiti erosterat. Nekhe, lotsa eta ororen gatik Koxamerat bizirik heldu ziren halere azkenean . . .

## HAMASEIGARREN KAPITULUA

**Gure mandatari bat preso. — Hunek handizki laguntzen gaitu Anamiten kontra**

Berri tzar horiek ez ginakizkan Aita Combesek eta nik. Beraz, bethi bezala, bi mandatari igorri giniozkan Nere Jaun Cuenoti. Boluko ondoan bi mandatariek buruz buru egin zuten Aita Verdier eta Baorekin. Oro

erran ziozkaten segurki hauk, bainan berantegi zen gibelat itzultzeko. Kongorat heldu zireneko, Dakek behin han gaindi iragaitean zerbeit egin ziotelako estakuruan, hango salbaiek bi mandatarietarik bat estekatu zuten, hamarrek gainerat jauzi eginik. Bertze mandatariak ezpata bat baitzuen eskuan, nihor etzitzaion hurbildu ... eta lasterka gibelat itzuli zen. Nghia zuen izena. Anamitetan nik ez dut ezagutu holako bihotzekorik. Hogoï aldiz bere bizia irriskatu du guretzat eta bizi da oraino ... nahiz behin baino gehiagotan presondegiko ogi beltzetik jastatu duen ! Kongotar horieri eskapatu eta laster egin zuen Aita Verdier eta Baoren ondotik, bainan etzituen Koxamen baizik atcheman.

Dak etsaien eskuetan, irrisku handian ginen oro, ezen sekulan Anamiteri erematen bazioten, baginakien hauk zer-nahi eta zer-nahi eginen ziotela gure berrien erranarazteko. Kongotarreri gure gizona lehenbailehen erosi behar ginioten beraz. Berritz ere Bao gaizoa bideari lotharazi ginuen. Lehenik joan zen Boluko adichkide batzuen ganat : etzituen bildu eta Bahamen ganat igorri zuten. Baham ohoin famatu hura ez duzue ahantzia naski ? Bada, horra noren ganat joan zen Bao. Ondikotz, etzuen berehala atcheman, eta atcheman zuenean, berantegi zen. Baham Kongorat joan zelarik Daken erosteko diruarekin, jada Anamiteri saldua zuten eta hauk Bongsoneko suprefetari eremana. Dohakabea ! Bongsonen panpatu zuten ... eta oro salatu zituen.

Bainan ongia gaizkitik beretik heldu da zenbeitetan. Uste zuen baino gehiago ikastearekin, lotsatu zen suprefeta. Bazakien nun ginen, bainan gu nola atcheman nihor hoin urrun eta hoinbertze adichkideren artean ? Eta ez bagintuen atchematen, ez othe zuten hura gaztigatuko bere aintzindariak ? Egiaren gordetzeko, orori sinhetsarazi zioten Dak airerat mintzo zela, erhoa zelakotz, eta, ostiko bat gibelaldean emanik, presondegitik utzi zuen, zoala nahi zuen lekhurat.

Anhartean Bao etcherat itzulia zitzaukun, deus etzuela egiten ahal izan. Dak zer egin othe zen ginauden, orok ikara sartua. Eta futcho ez gintazken Annamerat abia berrien jakiteko ! Etsaiek zauzkaten bide guziak ! Mandatari bat igorri ginion halere Nere Jaun Cuenoti, bainan itzuli handi bat eginaraziz : oraino, Bao. Bi ilhabeteren buruan, Jainkoak bidean zaindurik, aphezpikutegian sartu zen gure mandatari gaizoa. Etzuen deusik galdu. Bide luze hortako nekhe eta irriskuak onharturik, Jaun aphezpikuak berehala eginarazi baitziozkan apheztasuneko lehen urhatsak. Sari ederra segurki ! Handik hirur urtheren buruan apheztu zen Bao.

Aspaldi bidean zen aphezgei hori, Kiemek bere eta Cochinchinako berriak nolazpeit helarazi zauzkularik eta harek ikasi zaukun nola Dakek oro salatu zituen, bainan ere nola Dakek eman chehetasunek arras lotsatu zuten suprefeta. Halere begiak ongi eta ongi idekitzeko erraten zaukun, harek bortz egin ahalak gure alde eginik ere :



« Egun hautarik batez Ansoneko buruzagi bat etcherat ethortzekoa dut. Badakit galdetuko dautala zuetaraino gida dezadan. Ez dezoket erran ezetz. Bainan mila behar-gabeko itzuli oihanean eginaraziko baitiozkat, harritzeko litake ez balu etsitzen horraraino heldu gabe. Horrengatik hutsazue etchea eta zoazte Koxamerat, zer, gerta ere. Harat ez da helduko, ni bizi naizeno. »

Delako buruzagia ondoko egun batez Hiemi egiazki ethorri zitzaion etcherat, bainan, hunek oihanez oihan ibilarazirik, lehertua, soldado gehienak sukharrek harturik, lotsatu zen ... eta Ansonerat itzuli aintzinean baino astoago.

Aita Combes zen irriskurik handienean. Ez baitzakien guzien buruan zer gerta zakeon, Hemur aphez-etchearen zain utzirik eta Koxamarrerri bere phuska guziak fidaturik, Kontrangerat ethorri zitzaukun ilhuntze batez. Ilhabete bat iragan zuen gurekin. Bertze ordu batez, zer atsegina izanen zen guretzat hirur misionestak etche berean kausitzea ! Bainan Kiemek igorri elhe on guzien gatik, beldur ginen. Beldur eta lotsa. Oro garhaitu ondoan, gure lanaren bururatzeko bezperan behaztopatzeak jada min egiten zaukun !

Botu bat egin ginuen Andredena Mariari, San Josepi eta San Frantses-Xabierekoari hedoiak barraia ziten. Othoitz frango ere egin ginuen, eta nola ez baita beharra bezalakorik othoitz ongi egiteko, uste dut gure othoitzek indar bazutela ! Ahantzia dut segurki zer othoitz egiten ginuen, ahantzia

ere botuak zenbat dembora iraun behar zuen : huntaz orhoit naiz bakharrrik : Egunean ez ginezakela bakhotchak hirur pipa baino gehiago erre ! Eta ez othoi erran deusik ez dela hori edo deus guti dela bederen ! Salbaietan dagonak barnean badu pipatzeko errabia eta behar bat. Ez ditake hemen egon pipatu gabe. Dena dela, piparen bethetzeko mementoa heldu zaukularik, nola hasten ginitzaion saka eta saka, saka oraino eta saka oraino, gehichago iraunarazteko ! Zenbat aldiz ez dauku Aita Combes-ek erran ... zuzen kontra ari ginela !

Ansoneko buruzagi gaichto haren mandatariak geroztik ere abiatu dire guri buruz. Baitezpada nahi gintuzten atcheman. Behin Konjoriko herriraino heldu ziren. Handik Koxamerat egun bat askiko zuten ... bidea jakitearekin. Konjoritarrak arras adichkideak baigintuen, nihork etzituen gidatu nahi izan. Zer diren haatik Jainkoaren chedeak ! Urthe bat lehenago, baten orde berrogoi gidari atchemanen zituzten han gaindi gure kontra eta galduak gintazken, lana hasi gabe. Jainkoak bildotchari ilearen araberako haizea igortzen dio egundainotik, eta guri ere aise jasaiten ahal ginuen gurutzerik baizik ez dauku igorri hastean ! Azkartchagotu-eta pisuagoak igorri dauzku. Bainan zer frogatzen du horrek ? Debruak ez duela beraz nahi duena egiten ...

Tramgoko, Ansoneko eta Beneko gure etcheak lurrean ziren : ez ginuen beraz Annamen gehiago egoitzarik. Salbaietarat heltzeko edo salbaietarik Cochinchinarat joai-

teko, etzen gehiago egun argiz ibiltzerik. Kiem gaizoak ongi lagundu gaitu orduantche ! Annamitek etzioten hurbilegitik behatzen bere elefantekin zabilzkan kargerri ... beharrik guretzat !

Gerochago, oro antolatu ziren haatik. Ansonen gure mandatariak ezagutzen zituzten segurki ... bainan zer balio zuen hek preso altchatzea, gu ezin atchemanak baginen oraino ? Begiak hesten zituzten beraz aintzindari etsaiek. Etzuten bertze egitekorik ...

## HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA

### **Girichtino berriak Koxamen**

#### **Egun gaichtoak**

Bathaioko egunean Hemurrek bere jainko faltsoak ukatu zituenean, herritarrek uste izan zuten harenak egin zuela. Oro etziren gehiago mintzo haren heriotzeaz baizik. Bainan egunak, asteak eta ilhabeak bazoazin eta Hemurrek behinere baino osasun ederragoa zuen. Gehiago dena, girichtino berriak paganoeri egiten etzioten trufarik etzen beren jainko faltsoekin zabilzkatzen chiminokerientzat, eta horrenatik haren irrisa zen eskualde guziko ederrena.

Egunetik egunerat harrituago ziren Koxamarrak jainkoek Hemur nola etzuten hilarazten, eta emeki-emeki beren baitan egin zuten zenbeitek menturaz jainko horiek etzirela hainbertzek uste zuten bezen botheretsu eta azkarrak. Azkenekotz be-

giak arras ideki zituzten bakhar batzuek. Hemurri jarraiki zitzaizkon lehen bortzen izenak, huna : Jieng, Hemon, Tot, Poi eta Heloi.

Hemurren emaztea zen Jieng. Bada Jieng hau « bo-jaou » zen, erran nahi baita « sorgintsa ». Ez da hemen gaindi sorgintsek baino traba handiagorik sinhestearen hedatzaileentzat, ezen salbaiek sinheste gogorra dute sorgintsetan. Alabainan uste dute sorgintsek badakitela bertzeek ez dakiten zer-nahi. Sorgintsak geroa ezagutzen du ; sorgintsak erraten ahal du zenbat dembora biziko den norbeit, nola hilen den. Eta holako zer-nahi ! Norbeit eri dadiela, sorgintsak erranen dio nundik heldu zaion gaitza, zer egin behar duen sendatzeko. Ezen sorgintsa bakhotchak badu bere « grou » edo debrua, eta hunek diozka oro erraten edo gogoratzen.

Ez da sorgintsa horiek egiten ez duten gaizkirik. Hil dadiela norbeit, berehala sorgintsaren ganat doazi nork hilarazi duen jakiteko, eta bi begiak hetsirik bere jainko faltsoekin mila chorokeria egin ondoan, durduzatu gabe sorgintsak hilarazlea hautatuko du gustu duen tokian. Behinere ez du haatik aberats eta botheretsuetan hautatuko, bainan bai deus egin ez dezoketenetan, ahaidetik ez duten alharguntsa edo neskatcha gaicho batzuetan. Eta nola harek hautatu alharguntsa edo neskatcha azkenean Anamiteri salduko baita, pollitenetik hartuko du, egin dezan diru. Neskatcha bat goizean jeikiko da irria begitar-

tean eta hobenaren itzalik gabe, arratsean etzanen nunbeitko presondegian, esklabo joateko biharamunean. Sorgintsak hala nahi du ! Eta ez da hori noizean behin gertatzen dena baxharrik, bainan egun guzi-guziez ! Bertzerik ere egiten dute sorgintsek, bainan ez detzazket oro erran hemen dembora faltaz.

Aise sinhetsiko duzue orai Jainkoa urrun eta urrun joan zela beraz Hemurren emaztearen bilha eta segurki grazia handia egin ziola sorgintsa dohakabe horri. Arras ukho egin zion, bada, sorgingoari : debrua bihotzaren errotik arnegaturik, lephotik dilindan zabilkan sorgin-seinale harrizkoa besainka han-harat igorri zuen. Gehiago dena, salbaiari aithortu zioten zabal zabala deusik etzakiela hek baino gehiago eta ederki zakuan sartu zituela bere chiminokeriekin. Maria eman ginion izena bathaioan eta izen eder horri ohore egiten dio geroztik.

Egun berean bathaiatu ginuen Hemon Hemurren arreba. Egiazki eta egiazki erran ditake anaiaren arreba zela segurki ; hura bezen ona, hura bezen zuzena, hura bezen maitagarria. Hura baino eztiago haatik. Sorginen sinhestea hezurretan barna sartua zuen, eta Hemurrek bere bathaio-ko egunean harrizko jainko gerizatzaile hek guziak urerat igorri zituelarik, nigar egin zuen gochoki arrebak. Bathaio ondoan misionestek ez dute ukhan adichkide hoberik Hemon baino. Alharguntsa zen, aski gaztea eta, hemengoa izateko, aski pol-

lita. Ezkontzer zen bathaiatu aintzintchean. Bertze begi batez ikusten zituen oro, bathaiatu-eta. Madalenak bezala, zerbeit ho-beagorik gutiziatu zuen eta botu egin etzela berritz ezkonduko. Anna eman ginion izena bathaioan. Aita Combes arras elhaille baitzuen, huna zer erran zion behin: « Aita ez dakit bertzeak ni bezala diren, bainan girichtinotuz geroztik, nun-nahi izan nadien, Jainkoa bethi gogoan dut eta ez dut zorionik Hura gogoan baizik ! » Hamar urthe baino gehiagoz nihork ez diote gure girichtino berrieri etsenplu ederragorik eman eta sainduek bezen heriotze ederra egin zuen gero. Uste dut bathaioko egunean bezen garbi joan dela Jainkoaren aintzinerat.

Seme bat bazuen, Tot. Amarekin batean bathaiatu ginuen. Hamazazpi urthe zituen. Ezkondua da geroztik eta hirur haur baiditu. Arras girichtino ona da.

Poi bathaioan Lin deithu ginuen. Hemen aiphatzea merezi du. Nor ez da orhoit gau batez Koxamarrek hilen gintuztela, Hemurrek salbatu ez bagintu ? Bada, Poi zen orduan gure etsaien buru. Jainkoak otso hori ere bildostu zuen azkenean eta orai orduko etsaia da gure adichkiderik hobere-na. Poi bezalako gizonak deusik ez dute erdizka egiten ; arras tzarrak dire edo arras onak. Bathaiatu aintzinean jan nahi gintuen Poiek, gero etzen guretzat baizik ari lanean. Bere itzulietan zenbat haur ez du bathaiatu berak, hiltzerat zoazila ikus-eta ! Haren kharra handiago zen oraino,

handiak hiltzeko menean ikusten zituelarik. Behin neronek ikusi dut hiltzerat zoakion ahaide baten ondoan. Lehen ere hainitz eta hainitz othoitz egina zion. Bainan debaldetan. Dohakabea bathaiorik gabe joan behar zela beldurturik apheza bezala mintzatu zitzaion. Bildu zuen azkenean eta lasterka ethorri zitzautan bilha. Jarraiki nitzaion berehala.

Ondikotz, eriak elhea galdu zuen artean ! Poi gaizoaren marraskak ! Etchea jendez bethea zen : oihuka hasi zitzaioten orori : « Hori dohakabea ! Ez nau sinhetsi, galtzerat zoala erran diotalarik ! Orai zertan da ? Ifernurat erortzeko eta han erretzeko bezperan ! Zuek bederen, holako zorigaitza begien aintzinean ikusi-eta, ez othe nauzue sinhetsiko ? Ez othe zaizte egiazko Jainkoaren ganat itzuliko ? Ezen zorigaitz zue-ri ere begiak hesten baditutzue ! »

Hain saminki mintzo zen Poi, nun oro lotsatuak baitzauden hari eta eriari beha. Berebaitaratu zen halere eria eta emeki-emeki sendatu. Bere hurrekin katichiman ibilirik, bathaiatua da geroztik.

Poi (edo Lin), nahi duzuen bezala, gazterik hil zen eta galtze handia izan da guretzat haren heriotzea. Bainan zerukotz ondua zen ! Jainkoa izan bedi benedikatua ...

Girichtino berrietan bortzgarrenak Heloi zuen izena. Hogoi urthetarat zoan. Adinarentzat ahul eta mendrechkoa zen muthil gazte bat ! Maiz eri bazen, ordainez izpiritu eta bihotzeko dohain gehienak bazituen, Aita Combesek, guk baino hobeki ezagut-

zen zuelakotz, itsutuki maite zuen. Nola etzuen beraz bereziki artatuko holako landarea ! Hala egin zuen. Bai-eta landarea ederki plegatu ! Girichtino guti ikusten da Heloi bezen laster aintzinatzen. Neronek frogatu dut. Arratseko othoitza gora-gora egiten zuen Heloiek. Behin hurbildu nitzaion, hura batere ohartu gabe. Harritu nintzen muthiko gazteak, othoitza bururatu-eta, Jainkoari erran ziozkan bere bihotzetikako elhe ederrak aditzean : « Oi Jainko Ona, zoin miresgarria zaren zure sainduetan ! Ez deus batzuetarik egiten dituzu oro ! Neronek zerbeit balinbadakit, neronek orai zerbeit balio balinbadut, zuk egin nauzula, zuk holakatu nauzula aithortu behar dut ! Abere bat bezala biziko nintzena, zuk argitu nauzu, zuk zerutitako argi eta jakitateaz gainditu, zuk hango atsegina bezala ! Loria eta ohore, Jauna, menderen mendetan ! »

Heloi etzen aski azkarra kampo-lanetako. Bertzalde haren burhasoek esku-gain puchka bat bazuten. Aita Combeseekin egoterat ethorri zen beraz, bathaiatu-eta. Misionesta ederki laguntzen zuen, katichima egiten eta gainerakoetan, baina erran ditake haren elheek baino ongi gehiago egiten zutela etsenpluek. Zenbeit urthe iraun zuen bere osasun tcharraren gatik. Min gaichto batek zer-nahi ikusarazi zion azkenerat. Nik lagundu nuen azken egunetan. Ez ditake erran zer heriotze ederra egin zuen. Aita Comhes ere jada hila baitzen, haren aldean ehortzarazi nuen, holako bi



adichkide heriotzeak berak etzituela berechi behar iduriturik.

Urthe hartan eta ondokoan hogoi bat lagun ibili ziren katichimaren ikasten. Gutiz gehienak Poi eta Heloien adichkideak ziren. Bathaiatu gintuen oro, bainan hemen bakotcharen aiphatzeko tokirik ez astirik ez dut, ondikotz !

Erran gabe doa girichtino berri horiek bazutela irri-egile eta trufatzaile. Tzarkeria frango ere egiten zioten segurki paganoek. Egia hau da haatik: Banharrak ez direla bere jitez gaichtakeriari emanak, eta hola ari baziren debruak zabilzkala. Munduan ez da eskualderik bakotchak nahi duena aiseago egin dezakenik, nihork behinere eta behinere deusik erran gabe. Behin edo bertze hango oitura guzien kontra doanari norbeitek menturaz erranen dio ez othe doan errebelatzerat, bainan bertzerik ez. Bakotchak nahi duena egin dezala, nihori kalterik egiten ez dion ber !

Horra zertako, burhasoek eta jendekiak gaichtakeriak egiten ziozkatenean, etziren guti harritzen gure girichtino berriak, eta huna zer erraten zaukuten : « Zer da hau ? Bertze guziak bezala lanean ari kampoetan, nihori den gutieneko gaizkirik ez egiten, orori begitarte ona egiten, eta trufaka ari zauzku ? Gaichtakeriak egiten dauzku-te ? Othoitz berri batzu egiten baditugu, lehengo chiminokeria zozoak utzi baditugu, nork zer behar du ? »

Gure girichtinoak zinez kechatu ziren azkenean eta, oro utzirik, herri berri baten

egiterat joanen zirela norapeit gogoan iragan zuten, bakea ez bazioten uzten !

Aita Combesi bere baimena galdetu zioten haatik. Irri egin zer zioten Aitak : « Dohakabe horiek hemen bakharrik utzi nahi ditutzue ? Horien ondotik nabila, ni ; ez othoi ahantz ! Guzien buruan ezin jasanik egin othe dautzue oraino ? Hobe da beraz hemen berean egon zaitezten, zuen bihotz onak orori zabalduz. Emeki emeki gogorrenak ukhituko ditutzue hola eta nere ganat ekharriko. Eta aldiz hemendik urrunduz zer ongi egingen dautazue ? Nork bilduko dauzkit ? Gal litazke eta Jainkoaren arthaldea sekulan ez litake emenda ... »

Etzuten segurki aise sinhetsi Aita Combes : geroztik ere kopeta zimurtu zioten frangotan : azkenean erori ziren haatik haren erranerat eta urruntzea burutik utzi. Dolutu othe zaiote geroztik ? Ez, ezen bethi emendatuz joan dire girichtinoak. Orduko trufatzaileetarik frango bada bathaiaturik egungo egunean.

## HEMEZORTZIGARREN KAPITULUA

### **Zenbeit girichtino berri Kontrangen**

#### **Oraino egun gaichtoak**

1854 garren urthean Josepen lagun ttipiak noiz-nahi etchean nituen. Erran gabe doa katichima irakusten ari nitzaiotela arte guzietan. Ikusirik askitsu bazakitela eta deusek etzituela gehiago lotsatzen, lau bathaiatu nituen egun batez. Hola sei girichtino banituen Kontrangen. Koxameko gi-

richtinoak « N.D. de la Délivrance » zuten gerizatzaile : Kontrangekoeri « Ama Bekaturik Gabekoa » hautatu nioten.

Urthearen ondarrerat herri guzia lekuz aldaratu zen. Hango jendea ez bada arras buhamiak bezala harat eta hunat ibilki denetarik, ez da ere bethi toki berean egoten. Noizetik noizerat tokiz aldaratzea maite du, estakuru gutiz. Etche bat erre dadiela herri batean, maizko ager dadiela eritasuna, etsaiek herriko norbeit preso ereman dezatela, herritarrak lotsatuko dire eta hango jainkoak ez dituztela gehiago alde, bertze norapeit joko dute berehala. Sorgintsak hitz bat erratea aski du hola koetan. Toki berria ere harek hautatzen du, bere jainkoekin mila chiminokeria ibili ondoan. Sorgintsa ez litake sorgintsa ez baliote orori hitzematen toki berrian bizi ona ukhanen dutela eta luze biziko ! Eta horrengatik toki berri hortarik ere laster aldaratu behar bada, nihor ez da menturatuko sorgintsari erraterat gezurtti bat baizik ez dela !

Kontrangetarrak hirur aneurki edo kilometra urrunago joan ziren. Rongaotik hurbiltchago ziren hola. Etcholak egin arte lo kampoan egiten zuten. Nola ez bainuen hirur langile baizik eskuko, ez nintaken ni has lanean. Salbaiekin hitzartu nintzen beraz, behin Kontrangeko etchean egonen nintzela, orok beren etcholak egin arte : orduan lagunduko nindutela. Ilhabethe bat egon nintzen beraz baxharrik Kontrangen. Igandetan Joseph ethortzen zitzautan haa-

tik, meza sainduko. Eta hitz dautzuet bazuela merezimendu, ezen hemen gaindi haurrik ez da oihanetan baxharrik aise menturatzen. Hain lotsakorrak dire !

Igande batez huts egin zautan. Aita ar-  
ras eri, etzezaken baxharrik utz etchea. Anaia zaharrenak lagundu zuen aitaren ar-  
thatzen. Ngam oraino paganoa zen. Ez ditake asma zoin maite zuten elgar bi anaiek, Ngui bathaiatuz geroztik bereziki. Bethi kapita zuten halere etchean, Josepek Ngam bildu nahi egiazko sinhestearen urhatsetarat, Ngamkek Josep lehengoetararat itzularazi behar ! Bigek aita sendatzea nahi zuten haatik. Josep othoitzean ari zen goizetik arratserat, Ngam bere jainko faltsoen chiminokerietan. Botu bat ere egin zuen hunek : aita sendatzen bazitzaion, jainko horieri eskainiko ziotela basa-idi, ahuntz edo urde bat ! Ez ditake jainkoeri eskaintza handia-  
gorik egin.

Josepek aldiz Jainkoari hitzeman zion astean hirur barur eginen zituela eta meza saindua entzunen, barur eginen zuen hirur egunetan.

Lam etzoan hobekituz halere. Josep ethorri zitzautan beraz bilha, nik aita aise bilduko nuela eta bathaiatuko. Joan nintzen. Bulharrak zituen hartuak Lamek. Berehala odol-  
edaleak eman niozkan eta mina arindu. Sendo zen zenbeit egunen buruko. Sendatzen hasi orduko hitzeman zautan katichima ikasiko zuela . . . eta hitza atchiki zuen.

Ngam ez ginuen aise bildu. Debruak etzuen nihundik nahi gizon gazte suhar hori

konberti zadin. Josepek bortz egin-ahalak egiten zituen segurki, bainan Ngamek etzion amor eman nahi : « Zer erranen ditek orok ? Hi nausitu hitzautala ? » — « Ez nuk ni nausituko, bainan Jainkoa. »

Azkenean erori zen Ngam : « Bai, girichtinotuko nauk, anaia maitea. Aspaldi sinhesten hindutan, bainan ez nikan amor ematen ahal ! Egun eta egun berean joanen nauk Aita Dourisbouren ganat, argi nezan ! »

Ethorri zitzautan eta bathaiatu nuen... eta gerochago ikusiko duzue zer girichtino ona egin duen segurki. Bathaioko egunean huna zer aithortu zaukun : « Eri ginuelarik aita, debruari agintza batzu egin niozkan, bainan badakit Josepen othoitzek sendatu zutela aita eta ez nere agintzek ! Ez ditut beraz atchiki ez atchikiko, nahi duenak nahi duena erranik ere : Jainkoak lagunduko nau hemendik goiti ! » Aita-semeak egun berean bathaiatu nituen : Aita Combesek ber-berak egin zuen Lamén aitatchigoa.

Urthe berean bertze hamar bat gazte bathaiatu nituen oraino. Handituz zoakidan arthaldea : debrua kechatu zen. Eta amarruguziak baditu ! Koxameko girichtino berrieri trufak eginarazten baziozkaten, guziz Kontrangen lotsarazterat lehiatu zen, elhe zoroenak hedatuz : goiz edo berant girichtino berriak gure esklabo izanen zirela ; girichtinoen arimak Jainkoari saltzen gintuela tratu hortarik behar ginuen dirua atheratze-ko ; girichtinoak etzirela haizu ezkontzerat. Ezin ezkont ? Katichima ikasten zabilzane-tarik batek berehala ukho egin zaukun hor-

tako eta ez dut bospasei urtheren buruan baizik berritz bildu. Ezin sinhetsia da zorkeria horiek eta holatsuko bertze batzuek zer traba egin dioten sinhestearen hedatzen ibili den misionest gaichoari !

Zenbeit ilhabete lehentchago, jakin ere gabe sekulako irriskuan izatuak ginen. Huna nola jakindu nuen. Rongaotar bat Kontrangerat ethorri zen beraz egun batez. Harat eta hunat ibili ondoan, nere etchean sartu zen azkenekotz. Ongi-ethorri hoberena eginik eta etcheko-irrisa janarazirik, hemen ohi den bezala, arno chorta bat eman nion edaterat. Lamek horiek oro ikusiak zituen bere etchetik. Arratsean berean ikusterat ethorri zitzautan : « Zer begitarte ona egin diozun Rongaotarrari ? » — « Hala egiten dut orori. » — « Merezi othe zuen ? Duela zenbeit dembora badakizu zer erran dautan chori horrek ? Eia nahi dutan zure etchearen arroatzen lagundu . . . zu lehenik hil-eta ? Asto churiarenak eta beltcharenak erran niozkan eta buru muinetan barna sartu urrikari nuela lan horri lothuko zena ! Horra nor zinuen etchean ! » Biharamunean argiko berritz etchean nuen Lam : « Atzo soberachko mintzatu nintzen, Aita ! Irriskua joana denaz geroz, nihori etzozula deus badakizulakorik irakusterat eman. Neretzat samur litazke Rongaotar guziak, eta zuk etzinezake deus irabaz ! »

Bai, irriskua joana zen, debruak baino indar gehiago baitu Jainkoak ! Egun gaichtoen ikusterat ginoazin haatik Kontrangen. Min egiten daut orhoitzeak berak. Bainan Jainkoak bethi badaki zer ari den . . .

Ordu arte Koxamen eta Kontrangen bardi-  
dintsu zoazin oro. Ez han eta ez hemen et-  
zen oraino hainitz girichtino. Zirenak haa-  
tik, hoberen-hoberenetarik. Paganoek berek  
etzaukuten gehiago hain begi tzarrez behat-  
zen eta iduri zuen laster uzta eder bat bil-  
duko ginuela. Jainkoak etzuen hala nahi:  
Koxamek oraino aintzinat egin bazuen, Kon-  
trang hein ber-berean egon zen. Huna zer-  
tako. Haste hetan Koxamen etzen hil ez gi-  
richtinorik ez katichiman zabilzanetarik:  
gehiago dena, Koxamen uzta ederrak izan  
zituzten eta aintzineko gosetearen ondotik  
asean eta bethean bizitzekoa selauruetan sar-  
tu zuten. Salbaintzat froga zen Jainkoak  
gain-gainetik laguntzen zituela. Eta Kon-  
trangen ? Han aldiz hirur urtherik barnean  
zortzi girichtino gazte hilik, oro harritu eta  
lotsatu ziren ! Lotsatzeko heriotzeak izatu  
ziren egiazki ! Beha. Neskatcha bat, sudur-  
retik odol-hustu zen ohart gabea : bertze  
bat suge tzar baten ausikitik pozoinatu : lau  
muthiko ezin-erranezko gaitz batek jo : Jo-  
sepen ahaide bat betbetako hertzetako min  
batek ereman : eta azkenik Josep gaichoa  
buru-muinetako gaitzak erhautsi ! Eta dem-  
bora hortan herriko pagano gazte guzietan  
bat baxharra ez eritu !

Nere zortzi girichtinoak sentimendu eder-  
renetan hil ziren eta uste guziak baditut ze-  
ruaren erdi-erdian direla. Bainan debrua et-  
zagon lo, eta hainitz pagano dohakabeeri ba-  
dakizue zer sartu zioten buruan ? Bathaioak  
hilarazi zituela nere zortzi gazteak ...  
bertze guziak hilaraziko zituen bezala !

Aise asmatzen ditutzue ondorioak ... Katichimaren ikasten abiatuak nituen guziak gelditu zitzauzkitan bat bertzearen ondotik ! Bati ederki gusta zitzaion haatik bere lana ! Sinhetea bazuen jada eta laster bathaiatzekoa zen. Lotsaturik, urrundu zitautan. Behin bidean atchemanik, bi begien artean galdetu nion zer zituen josteta horiek. « Aita, lotsa naiz katichimarat ibiltzeko, jendek erraten dutenaren gatik ! Gerochago menturaz, oro ichiltzen direlarik eta zure ikasleak emendatzen, berritz itzuliko nitzaitzu .... » — « ... Gerochago ! Gerochago !... » Eta badakik gerochago biziko haizen ? » Zortzi egun gabe betbetan hila zen ! Dohakabea ....

Zer bihotzminak urthe hartan ! Etche ederra bururatuche orduko lurrean ! Debrua egundaino bezen nausi orotan ! Eta bihotzmina gehiago emendatzen zautan horiek oro nere bekatuen gatik zirela ! Koxamen uzta gero-ta ederrago, Kontrangen uztarik batere ! Hango apheza Jainkoak laguntzen, saindu bat zelakotz ! Hemengoari begiak itzultzen aldiz, bere bekatuen gatik ! Egundainoko Caïn eta Abelen ichtorioa ! Nik ere othoitz egin banu kartsuki mendiaren gainean Jainkoak ez othe zituen nere girichtino gaichoak Koxamekoak bezen ongi zainduko ? Oi, Jainko on eta maitea, urrikal zakizkit ! Eta etzazu, nere ezdeustasunaren gatik, Jesu-Krichtok berak erosi duen arthaldea galtzerat utz !...



## HEMERETZIGARREN KAPITULUA

### Josepen eritasuna eta heriotzea

Chehetasun batzu zor daukitzuet Josep on eta maite haren heriotzeaz. Egia erraten dautzuet : Josep izan ez banu, ez dakit nola jasanen nituen hainbertze eta hainbertze bihotzmin ! Oren ilhun eta gaichtoetan harek azkartu nau segurki hameka aldiz ! » Jainko Ona, hunek bederen maite zaitu egiazki, eta ni nitzaio lehenik mintzatu Zutaz, nik erran diot lehenik zoin Ona zaren ! » Behin uste izan nuen charranpiñak edo bertze holako gaitz batek ereman behar zautala. Bere aitaren etchean zagon oraino eta hango kalapitarekin etzuen onik. Bizkarrean harturik, nere etcherat ekharri nuen eta neronek arthatu. Eri eztiagorik ez dut nere demboran ikusi : min guziak Jainkoari eskaintzen ziozkan. Sendatu zen demboraren buruan, bairan begi bat galdurik, eta berritz itzuli zen bere etcherat. Irrisa horitzen hasten den sasoinsua zen. Landan iragaiten dituzte orduko gauak salbaiek, basurde, orkatz eta gaineratekoen zain. Lamek Josep igorri zuen bere landarat. Aste guzia han iragaiten zuen haurrak, bairan larunbatetan, uzta Jainkoaren gomendio utzirik, bethi herrirat itzuliko zen, gaua jautsi orduko, igandea ez huts egiteko. Igande batez meza-tik lekora landarat itzuli zen Josep, chuchen chuchena. Aitak hala manatua zion. Igande arratsalde hartan nik ere egiteko zerbeit bairnuen oihanean. Lamen landan gaindi joan

nintzen. Josep ur hegian ikusirik, ichil-ichila hurbildu nitzaion.

— « Errak, Josep ? Hola urruntzen dituk choriak irrisatik ? »

Burua altchatu zuen eta nigar batzu ikusi niozkan begietan : « Zer duk nigar egiteko, haurra ? » — « Aita, ez dakit atseginez ala zertaz ari naizen nigarrez : barne guzia zorion handi batez bethea dut bethi ! Nere othoitzen artetik, gogoan nabilkan goizean nere bihotzerat jautsi dela Jainkoa. Hura hain ona, ni bezalako dohakabe baten ganat ethortzeak eginarazten daut nigar ! Eta ez dakit nigar horiek jauzi zauzkitan Jainkoa hoin ona delakotz ala ni hoin gaichtoa naitzelakotz ! Zuk erradazu hori, Aita ? Nik baino gehiago, milaka gehiago badakizu holako zeretan ! »

Asmatzen ahal duzue zer atsegin gozoa eman zautedan holako elheek ! Ihardetsi nion berehala : « Haurra, bethi maitazak ongi Jainkoa, eta hire bihotza atchikak askigarbi egun guzietz Mahain Saindurat hurbiltzeko, eta orduan Jesusek berak irakutsiko daik hire nigarrak zerutikakoak direla. Zerutikakoak . . . beraz atseginezkoak, nahiz oraino hire bekatuen gatik eginen ditukan ? Munduko atseginek behinere ez ditek holarik eginarazten. Egizak neretzat ere othoitz artetan, Josep ! . . . » — « Egun guzietz egiten dut : etzaitut ahanzten ahal Aita ! Ez othe dautazu zuk eman bihotzeko zorion guzia ? Duela zenbeit egun ibilia dut doidoia gogoan zer eginen nuken Frantziatik ez balizautzu deus gehiago heldu . . . » — « Zer eginen

huke ? » — « Zer eginen nuken ? Ori, bigen lana. Bigentzat aski handi litaken landa bat neronek erabiliko nuke ! » Arratsalde hura laster joan zitzautan segurki holako elheetan. Arratseko othoitza erratean, oraino eta oraino nere haur gaichoa heldu zitzautan gogorat. Bai egiazki Jainkoa ona da, eta misionestari minarekin batean badaki ezitzekoaren nasaiki igortzen !

Josepen charranpinatik sendatzeak atsegin handia egina zautan. Ondikotz, etzautan iraun atseginak : haurra bi egunik barnean hil zitzautan handik laster. Etcheko teilatuaren erreberritzen buru-has arizanik iguzki kolpe batek atcheman zuen. Sakramendu guziak hartu zituen, bainan ez dakit ezagutzarik bazuen. Beharrik bizpahirur egun lehenago Mahain Saindurat hurbil, dua baitzen kartsutasun handienarekin ! Nere besoetan hil zen, bathaioko egunean eman nion gurutzefika pollit bat eskuan eta hari musuka. Norbeitek memento batez hari gurutzefika horren kentzerat bezala eginik, oraino gehiago tinkatu zuen Josepek eta oihu bat egin. Ezagutza zerbeit bazukeen beraz oraino.

Aithortuko othe dautzuet haur gaichoak bethikotz begiak hetsi zituelarik, nigarrez hasi nintzela gochoki ? Hasi eta luzez arizan ! Nere haurra zen, alabainan. Eta nolako haurra ! Minaren minarekin, hilari oihuka ari nitzaion : « Josep gaicho-gaichoa, zorionaren bilha joan haiz Jainkoaren alderat, hi, eta ni hemen nauk oraino bihotzmin eta nigarren erdian ! Dudarik gabe, ez nauk aski gar-

bi zerurat airatzeko hi bezala ! Oi, ez nezakala ahantz zeru eder hortan ? Eskergabetasuna ez duk haizu zeruan ! Bainan bazakiat hi ez haiz eskergabe izanen : jada lur-rean ez hintzen hala ! »

Neronek garbitu nuen gorphutza : soineko hoberenak eman niozkan eta azken musu bat kopetan pausatu. Neri beha zauden oro, begiak zabalik. Bati aditu niozkan Juduaren elheak : « Beha zoin maite zuen ! » Hainitz nigar egin zuen Lamek ere, bainan anaiak ukhen zuen halare bihotzminik handiena. Badakizue bi anaiak zoin atchikiak ziren elgarri ! Ngam girichtinotuz geroztik erran ditake atchikimendu horrek etzuela mugarik.

Hemengo salbaietan ohikuntza hau bada : etcheko norbeit hiltzen delarik, orok behar dute beren burua ederki zafratu. Gazteek guziz ez dute neurririk hasten direlarik : beren buruari kanibet ukaldika ariko dire, pilar bati buruarekin kaskaka, hilari beren atchikimendua frogatzeko. Oro beldur ziren Josepen anaiak bere burua phorroska zezan. Hau zeren beldur ziren oharturik, hilaren aintzinean oihuka hasi zitzaioten : « Ez ditutzue ongi ezagutzen girichtinoak. Nik ez dut uste duzuen chederik. Gizonek hil balautet anaia, ezpata hartuko nuen hobendunaren jotzeko, bainan Jainko Onak hartu daut. Berea zuen ! Bertzalde hil da Josep, bainan ez dut arras galdu, berritz ikusiko dut egun batez. Horra zertako ez dutan, pagano nintzelarik bezala, bururik galduko ! »

Kutcha eder batean sarturik, biharamu-nean ehortzi ginuen Josep. Ez nintzen kan-

tuz joan elizarat, bainan nigarrez. Huna hobiaren gainean ederki lantharazi nituen hitzak :

Hic jacet Joseph Ngui,  
Primitivæ Ecclesiæ Sedancæ...  
Non sumus sicut cœteri qui spem non habent :  
Pie Jesu, dona ei requiem ....

Hemen ehortzia da Josep Ngui,  
Sedangeko elizadiko lehen girichtinoa  
Bainan gu ez gare esperantzarik ez dutenak  
[bezala :

Jesus eztia, emozu bethiereko bakea ...

Geroztik Kontrangetarrek beren herria tokiz aldaratu dute berritz, eta orai Josepen hobia etchetarik urrun da. Basa-abereak belhar jaten ari zaizko noiz-nahi gainean : choriak kantuz ari dire aldeko zuhaitzetan. Nere Josep maitea baxharrik da. Baxharrik, hilak phiztu arte ...

## HOGOIGARREN KAPITULUA

**André Ngam. — Debruak egiten dlozkan  
tzarkeriak**

Josep hil-eta laster, André Ngam goiz batez ethorri zitzautan etcherat. Choria bezen alegera zen. Galdetu nion zertako. — « Gau huntan Josep ikusi baitut ! » — « Zer derasak, haurra ? » — « Egia baizik, ez, Aita ! Josep zerruan zen. Oi, zoin ederra den orai ! Urrundik oihu egin dautanean, nahiko nuen haren ganat joan, bainan ez nintaken aira. Orduan

hura jautsi da nere ganat eta badakizu zer fidatu dautan ? Ez dela zeruko zorionaren parerik, eta nik ere egin-ahalak egin behar ditudala han sartzeko egun batez. Horiek erran-eta berritz goiti abiatu denean, oraino nahiko nuen atchiki : debaldetan, ezen berehala oihu egin daut uzteko, uzteko, lurreko histura berritz loth litzaiokela, bertzenaz. Hitzeman daut haatik ethorriko dela oraino. Orduan atzarri naiz eta nere atsegina ezin gehiago neretzat atchikiz ethorri nitzaitzu hoin goizik ! » Eta amets eder horrek geroztik etzion Andrerri Josep ahanterat uzten : bainan ilhuntzeko orde, alegrantziaz bethetzen ziozkan bihotza eta begitartea.

Guzien gatik etzen hori amets bat baizik : Jainkoak igorria segurki, bainan amets bat halere. Beherachago erranen dautzuet haatik bertze zerbeit Andrerri gertatua eta batere ametsa ez dena. Hori baino lehen, hitz bat debruak noiz-nahi salbaieri egiten diozkatentzarkeria batzuez.

Europan ez da maiz ikusten norbeit debruak hartua eta nihork ez du aise sinhesten debrua gorphutz batez jabetu dela. Eta ez naiz baxharrik mintzo gizon buru gaichto batzuez, argia bera ikusi nahi ez duten batzuez. Holakoek beren urguiluan oro ukatzen dituzte. Oro, Liburu Sainduetako erakaspenak barne ! Hori etzaut batere harrigarri. Harrigarri dena hau da : girichtino onetan ere badirela sobera dudatzen dutenak ! Bichtan da elizak zerbeit finkatu arte, har edo utz dezakegula zerbeit, bekaturik gabe. Ez da haatik airerat hartu edo utzi behar, Eli-

zak baditu othoitz berezi batzu debruaren gorphutzetarik athera-arazteko. Froga da hori, debruak jabe ditakeela beraz gorphutzez : zorokeria da ukatzea. Ukutzen dutenek uste othe dute Eliza baino jakintsun eta zuhurrago direla ?

Bainan aithortuko othe dautzuet ? Guti edo aski neroni hautarik izana naiz, eta Salbaitarat ethorri nintzelarik, norbeitek erraten zautanean nunbeit itzal bat ikusi zuela edo oihi itsusi bat aditu, irri egiten nion. Laster ohartu nintzen nere sinheste-eskasak behar gabe harritzen zituela salbaiak eta nitarik urruntzen. Ordutik, irri egiteko orde, ahal nuen bezala argitzerat lehiatzen nintzen, eta bat edo bertze ethortzen zautanean arima herratu edo bertze holako ichtorio zerbeitekin, zerua, ifernua eta purgatorioa, zer diren erraten nion lehen-lehenik. — « Arima zerurat, ifernurat edo purgatoriorat baizik ez ditakeenaz geroz joan, ez ditake han baizik kausi, eta beraz zuk erraten dautazuna egia bada, debrua dabila hor ! » Hola, emeki-emeki, kasko barnean zituztenak chuchentzen ari niozkaten, behinere arras kontra egin gabe. Ez othe zautan hori manatzen zuhurtziak berak ?

Nere baitan ametsak eta amets hutsak ziztuztela nindagon haatik oraino. Gerochago, hainbertzek eta hainbertzek bethi gauza berak errepikatzearekin, duda bat ethorri zitautan . . . eta azkenean sinhetsi dut nik ere, hein batean. Argia ez ditake uka, alabainan. Nahi duenak nahi duena erran dezala, bainan orai zinez eta zinez hau bederen sin-

hesten dut : debrua salbaien ondolik dabilla frangotan. Bichtan da buruan gaichoeri sartu nahi lioketela, hil-eta gure arima lurrean gelditzen dela, zeruko zoriona eta ifernuko zorigaitza ezagut ez detzaten ...

Gutiz gehienetan, norbeit hiltzerat doalarik edo hil-eta laster ariko da debrua lanean. Etche ondoan edo hobitik hurbil zernahi harrabots latzgarri aditzen da lehenik ; gero, elhe batzu. Itzal batzu ere agertzen dire artetan. Itzal horiek hilaren trakatsukoak dire, eta hura bezala-bezala mintzo. Oraino hilik ez den etche baten ondoan ikusten edo aditzen badire horiek, froga da etche hartarik laster norbeit hilen dela ... eta hala gertatzen da bethi ! Alabainan debruak ez othe dezake ikus eta ezagut norbeitek gordea deraukan gaitza, eta mirikuak bezen ongi finka heriotzea ekharri behar duela nahi-ta ez gaitz horrek ? Funtsean, segurki eta segurki gezurtiak ez diren gizon batzuek holakoak ffnkatu dauzkitet : ez dezaket gehiago duda. Ez, ez dezaket duda ! Gerla egin diote debruak Hemur eta Ngami : gerla, bertze girichtino berri frango eta frangori : gerla, gure zerbitzarietarik zenbeiti ... salbaiek erranak beren begi eta beharriz frogatu nahi izan dituztelakotz, sinhetsi nahi etzituztelarik bizkitartean.

Bainan ez othe naiz lerratu eta horietaz soberachko mintzatu ? Dena dela, huna Andreri zer gertatu zitzaion, berak erran dautan bezala.

Josep hil ondoan, irrisa horitzean, Lam bere landan zen egun batez. Egun guzia la-



nean arizan-eta, ilhuntzean André abiatu zen aitaren ganat, gauaz abere gaichtoen zaintzen laguntzeko. Bainan horra nun aita buruz-buru egiten duen bidean : « Gauaz ez duzu beraz landan egon gogo, aita ? Zurekin egoteagatik heldu nintzen, bada, ni. » — « Nahi duenak eginen dik landan lo : Lamik ez ditek berritz han ikusiko ! » — « Zertako ? » — « Debruak arras izitu bainaik ! » — « Debruak izitu ? Uste nuen bihotz gehiagoko aita nuela ! Funtsean ez da bi zaintzaleren beharrik gure landan : zu, zoazi etcherat, ni egonen naiz landan ... eta ederki lo eginen ifernuko debru guzien gatik. Bihar arte beraz, aita. » Orduan Lam itzuli zen etcherat eta Andre joan landarat.

Landaren erdian bazen etchola bat, ichtape bat edo biga gora onbor pikatu batzuek airean zeraukatena. Han egiten zuen lo zaintzaleak. Nihorat mugitu gabe, landa guzia begien aintzinean da, eta abere gaichtoak oihu batez urrunt ditazke. Erran behar dautzuet hemen gaindi ez dutala ezagutu gizonik Andre baino gutiago zerbeitak lotsatuko zuenik. Girichtinotuz geroztik bereziki, ez daki izitzea zer den. Etcholan sartu zelarik, iguzkia jada mendi gibelean gordechea zen, ilhuna heldu. Pipa baten erretzeko, suaren phizten hasi zeneko, horra nun harrabots batzu aditzen dituen azpiko aldean : « To, aitak egia erran zaitak ! Bainan, debrutto, ago nik su hau phiztu arte, eta ikusterat ethorriko nitzaik behere hortaraino ! Ago ! » Hainbertzenarekin bertze harrabots batzu, norbeit goitika hasten balitz bezala ! « Sobe-

rachko jan duk naski, to ? Bainan irri aski hola ! Har dezagun gurutzefika esku batean, arrosorioa bertzean . . . eta goazen etsaiaren ganat ! » Eta orduan jausten da zurubian barna.

Jautsi denean, harrabotsa gibeletik ari zaio : itzultzen da. Bainan harrabotsak ere ingurua egin du, eta lauzpabortz aldiz oraino entzuten du, bethi gibeletik ! « Norbeit ikus baneza, makhilkaldi batez kalitze-ko, bainan hunek ez du agertu nahi ! Othoitz bat egin dezagun beraz, ikusteko. Ikasak beraz, madarikatua, nik ez dutala Jainko Ona baitan baizik fidatu eta finkatu nahi : hiri bathaioko egunean ukho egin daiat bethikotz ! Goiti egizak, nahi baduk, hire barne guzia : nik nere othoitzza egin gogo diat lehenik, eta lo, gero. » Hortan ichildu ziren goitikoak, eta Andre lokhartu zen, deusik aditu ez balu bezala, eta lo egin ederki argiraino . . .

## HOGOITABATGARREN KAPITULUA

### **Igandea nola atchikitzen duten salbaiek**

#### **Misionesten indarra**

Nik ez dut aski buru ona egiazko liburu baten egiteko, liburu batean oro chehe-cheheki erran behar baitire. Larrienez ere orhoitzea zerbeit bazaut. Huna Josep hil-eta laster neroniri gertatu zitzautan zerbeit. Hortarik ikusiko duzue girichtino berriek nola atchikitzen zukuten igandea.

Bi girichtino berri ortzirale batez joan ziren, egun baten bidean, norbeiten ikusterat. Biharamunean itzultzeko chedea zuten. Bainan egitekoek uste baino dembora gehiago harturik, larunbat arratsak han berean atcheman zituen. Zer egin ? Lanean ziren segurki. « Bihar igandea, eta Aita harasko ! » Eta aroa galernatsu batetik, goizalderat baikilik ilhargirik ez, bertzetik ! Hau lana ! Hala re igandearen atchikitzea oro baino lehenago dela, bideari lothu ziren zanpa-zanpa. Euria hasi zitzaioten bidean, ilhuna loditu bidechka tzarrenetan, bainan deusek etzituen lot-satu ... eta biharamun goizean, meza hasten, eta kaperan sartzen zitzauzkun, leher-tuak, larruraino bustiak ! Ez othe da hori ongi ! Ongi baino hobeki ? Nere girichtinoeri ez nioten gorde hala zela. Bainan ez du balio zerbeit ongi dela erratea, beharrea bertze hainbertze ez egitekotz !

Ondoko larunbat batez Rohaierat joana nintzen beraz, Aita Verdier lagun. Arratseko sartzeko chedea ginuen. Bainan ikaragarritzko euriak hasi zituen eta berehala handitu ziren erreka guziak. Gehiago dena, embata tzar batek zuhaitzak errotik atheratu zituen oihanean. Rohaien egonez, biharamunean gure mezak ematen ahalko gintuen segurki, bainan zer erranen zuten Kontrangeko girichtinoek ? Hetarik bigek doidoia holako bidetzea egina meza sainduaren entzuteko, misionestak gutiago egin behar othe du entzunarazteko ? Artzainak ardiek baino alferrago izan behar othe du ? Ni bederen Kontrangerat joanen nintzela egin nuen :

« Aita Verdier, zure osasunarekin etzaitezke bideari loth, zu, euriak euriari : zaude beraz hemen, ni joanen naiz. Dembora eder bat arte beraz, eta Jainkoak atchik gaitzala ! »

Etchetik atheratu eta ehun urhatsen buruko, euria bera bezen bustia nintzen. Orduan ez nintzen haatik orai bezen ahul eta lotsakor. Mainak zer ziren ez nakien oraino ez-eta nere buruari amor ematea. Mirikuek erakutsi dautet geroztik zer den hori. Salbaiek ez dakite beren burueri amor ematen, ez dakite arthatzea zer den, eta bizkitartean munduan ez da mirikurik osagarri gehiago duenik ! Erran ditake ni ere salbaiskoa nintzela bederen orduan. Goizeko zortzietarik arratsaldeko hiruak arte euririk etzen gelditu. Hain chuchen egun hartan, arinago izaiteko, soinean ez nuen athorra bat eta galtza labur batzu baizik ! Choria bezen alegera nindoan halere nere bidean, bainan debruari gaitzitu zitzaion nere alegrantzia eta laster sar-arazi zautan ! Ordu arte ez nuen erreka tchar batzu baizik atcheman eta aski aise iragan nituen . . . gerriraino sarturik bederen. Huna haatik bat gothorragoa. Urak burumban zoazin jada. Zer egin ? Hain chuchen beherachago zuhaitz bat ikusten dut errotik atheratua eta, luze-luzea etzana, nahiko zubia egiten dautana. Ikhara gorrian nere erreka erhoa hartan iragaiten dut . . . eta bertzalderat jauzi egiten, salbu ! Salbu ? Baduk hoberik. Zangoa abar batek trabatzen daut airean eta, leihorrerat erortzeko orde, erortzen naiz urerat. Beharrik ez nuen lephoraino baizik, eta laster atheratu nintzen. Bustia-

rena deusik etzen izanen, abar tzar harek zarrazta bat egin ez balaut zangoan ! Eta zorrigaitzaren zorrigaitza ! Oihan guzia odol-edalez bethea baitzen, iretsi ninduten. Zer arratsaldea ! Bainan oro ahantzi nituen biharamunean, kapera bethetzen ikusi nuelarik . . .

Handik laster huna zer gertatu zen. Frogatuko dautzue zer indarra zuten jada misionestek. Aspaldi zuen nihork etzaukula gehiago atherik sudurrerat hesten : aspaldi, nihor etzela gehiago gu ikusirik ihes abiatzen. Begitarte ona egiten zaukuten orok, eta aski maite zuten gurekin hartaz eta huntaz mintzatzea. Hangoak ginen, hots, eta emeki-emeki buruan emana zuten heyen onaren ondotik baizik ez ginabiltzala. Hainitzek nahiago zaukuten, etchekoeri baino, guri zer-nahi fidatu. Bi herri gerlan has zitela, misionesta hartuko zuten ararteko eta haren erranerat eroriko ziren berehala batzu eta bertzeak. Eta ez gintuzten ararteko bezala nahi baxharrik hauzo-hauzoko herriek : bainan urrunenekoek ere deitzen gintuzten noiz-nahi. Deitzen gintuztenak guk ez gintuen bethi ezagutzen, bainan hek nunbeitik bazakiten nor ginen, eta deusik ez ginuela zuzenaren kontra eginen.

Beraz Rode deithu herria gerlan zen Kontrangekoarekin. Bortz gizon preso hartu ziotzen Kontrangetarrek Rodetarrerri. Bortz dohakabe horiek herriko-etcanean ziren, ongi estekatuak. Aspaldiko auzia zuten bi herriek, eta, hastean Rodetarrak nausiturik, zer-nahi gaizki egina zioten Kontrangetarrerri. Ez da bethi Phazko eta hauk ederki mendekatu zi-

ren, delako sei gizonen bizkarrean. Eta horra nun sei Rodetar hauk othoizten nauten, Roderat joanik, heyen herritarrerri erran dezadan ez ditzen sobera tema eta lehenbailehen eros detzaten. Bada, ezin sinhetsia da bi herri gerlan direlarik, bateko edo bertzeko norbeit etsaiari zerbeiten eskaintzerat joan dela ! Are gutiago joanen baita nihor, haren gizonak preso dauzkano ! Bildotcha otsoaren ganat joaita da : mandataria laster presondegian sar lezakete !

Beraz Rodetarrek mandatu hortaz kargatu nindutelarik, aditu zituzten guziak irri karkaraz hasi zitzaizkoten. Bainan nik baietz joanen nintzela segurki ihardetsi niotelarik, aditzaile guziak alde guzietarik hasi zauzki-dan ez nuela holakorik egin behar eta ez nuela holakorik egin behar, joaita bezen segura nuela han hiltzea. — « Bainan erradazue, adichkideak, nunbeitik holako mandatu batez Kontrangerat heldu banintz, nork nahi luke niri gaizkirik egin ? » — « Oi, hemen nihork ! Bainan guk ezagutzen zaitugu, Aita, Rodetarrek aldiz etzaituzte ezagutzen eta ez dautzute begitarte onik eginen, segur ! Segur, gero ! » — « Ikusiko dugu ! Ikusiko dugu ! Rodetarrek zuek bezen ongi badakite misionestak ez direla alderdikari, bainan bai ororen adichkide. Joanen nitzaiote beraz eta fida naiz ez dautedala zuek baino gaizki gehiago eginen ! Ondoko egunetan orok esker-rak bihurtuko dauzkidatzue, urhats hori eginik ! »

Joan nintzen. Rodetarrek sekulako begitartea egin zautedan, heyen leialtasunean

hola fidatu nintzelakotz. Han iragan nituen bi egunak phesta gorrian iragan gintuen, etchetik etcherat, arno berri jastatzen eta irrisa jaten ! Herriko-etchean egin nioten nere mandatua, eta nik galdetu guziak berehala onhartu zituzten. Bi herriek bakea egin zuten : bakea, bigen onetan.

Bertze behin, gure etcheko Anamitak eta hauzo-herritar batzu ziren samurtu. Uste dut gure Anamitek zuzena alde zutela. Baina itchura guziak kontra zituzten. Salbaiek ar-ras begi gaichtoz behatzen zioten heyen handi-nahi eta iduriari. Batzu eta bertzeek artekotzat hautaturik, adichkidetu nituen egundaino bezala.

Huntaz balia, nahi duzue zerbeit beharri chilorat sala dezazuedan ? Salbaiek Anamitak batere ez dituzte maite, eta buru hortarik zerbeit ikusirik gaude segurki geroni. Banharra, bertze salbaia guziak bezala da : ez dezake ikus goraskotik behatzen diona. Eta aldiz Anamita, bere herrian ostikatua delakotz, kamporat orduko hantzen ! Laster zer-nahi badela iduritzen zaio ! Annameko aphezek berek aise balukete itzal hori : horra zertako ez diren gu bezen begi onez ikusiak hemen gaindi. Sobera manatu nahi dute. Badire haatik, berehala errateko, huts hortan egundaino erori ez direnak. Aita Do hautarik da segurki eta segurki. Baina berritz errepikatzeke, bana bertze Banharrak maiteago ditu misionest frantsesak. Aitago atchematen omen gaituzte...

Beren eztabadetan, zenbeit aldiz gudua hasi-eta ere, zenbatetan ez naute arartekotzat

hartu salbaiek ! Ni bezala bertze Aita frant-  
ses frango. Bainan nihork ez du Aita Combe-  
sek bezenbat galde ukhan eskuin eta ezkerre-  
tarik. Orok maite zuten. Noiz-nahi beren lan-  
dutaraino joaiten zitzaioten ikusterat eta  
ichtorio chahar erraterat, artean pipa gozo  
zenbeit errez. . . . bertze guzieri partitu on-  
doan belharrik gelditzen bazitzaion ! Eta orok  
elhe bera zuten mihiaren puntan : « Horra  
gure nausia ! Gu guziak baino miletan han-  
diago da, nahiz ttipitu nahi luken ! » Ez dita-  
ke beraz erran zoin ongi ikusia zen eta zer  
ongiak egin dituen hemen gaindi !

## HOGOITABIGARREN KAPITULUA

### **Debrua garhaitua**

Debruak etzaukun epherik ez bakerik uz-  
ten. Huna zer asmatu zuen 1857 garrenean,  
Kontrangeko elizadi berriaren suntsitzeko.  
Jada erran dautzuet zer sinhestea duten  
Banharrek « deng » delakoan, eta ez duzue  
ahantzia urrundik norbeiten hiltzeko bothe-  
rea dela hori. Bada, nere zerbitzarietarik bat  
gisa hortan neskatcha baten heriotzeaz kar-  
gatu zuen sorgintsak. Konhoring deithu her-  
ri batetakoa zen neskatcha. Kontrangen ez-  
tai batzuetan izanik, etcherat zoalarik, bi-  
dean ezin ezagutuzko gaitz batek hartu zuen  
neskatcha dohakabea eta etcherat gabe gor-  
phutz zen. Sorgintsak arroltze batzu hautsi  
zituen berehala eta hetan irakurtu nere zer-  
bitzari delakoa zela hobendun.

Zerbeit erran dezagun haatik, lehenik, ho-



bendunaren atchemateko moldeaz. Norbeit galdu dutenak joaiten zaizko « Bo-Jaou » edo sorgintsari. Artean errateko, sorgintsa hainitz balinbada, ez da hanbat sorgin. Hamarretarik zortzietan sorgin edo sorgintsaren mintzaterat doanak jada norbeit badu begietan, eta berehala hori izendatzen dio. Deusik ez baita gordeka egin behar, herriko jende guzia deithuko dute holako egunetako sorgin edo sorgintsaren etcherat. Artean hau eskuin eta ezker ibiliko da nun zer adituko duen hobendun bezala hautatu gogo duenarentzat. Herri guziaren aintzinean mintzatzeko orena ethorri zaionean, bospasei arroltze koloka mahain baten gainean ezartzen ditu, bere gisako othoitz batzu gora-gora marmarikatzen, eta, arroltze bat bi erhien artean polliki harturik, orori irakusten. Orduan norbeitek galdetzen dio erran dezan nun bizi den hobenduna ? Holako herritan bizi da ? Edo holkotan ? Herri bakhotcharen izena aditzean, gure sorgin edo sorgintsa hasten da indarka, arroltzea lehertu nahi balu bezala . . . eta ez da lehertzen arroltzea, hobendunaren herria izendatu diotelarik baizik ! Damurik !

Herria ezagutu ondoan, hobendunaren etchea bilhatzen dute gisa berean. Gero, hobenduna bera. Eta futcho, orok sinhesten ! Nihori etzaio gogoratuko ederki trufaz ari dela sorgina !

Beraz horra nola ikasi zuten Konhoringo salbaiek delako neskatcharen hilarazlea nere zerbitzarietarik bat zela. Mandatua igorri zautedan hobenduna berehala eman nezoten mendekatzeko . . . edo etsaituko ginela. La-

nean nintzen eta lanean ginen etcheko guziak. Arroltzeak mintzatuz geroztik, inguru guzietan nehork etzuen dudatzen. Eta, irris-ku guzien gatik, guk nola sal lagun bat, guziz den gutieneko hobenik etzuen lagun bat ? Othoitz egin nuen lehenik Andredena Mariari, laguntzaren galdetzeko. Aita Verdier nere ondoan nuen belhauniko. Gero huna zer erran nioten mandatarieri : « Lehenbailehen itzul zaizte zuen herritarren ganat eta hauche errozue : Dioten bezala gure Uoh hobendun balinbada, ez diogu segurki barkatuko, eta emanen diotegu ! Bainan ez da deusik aire-rat egin behar holakoetan : Konhoringar guziak Kontrangerat datozila beraz sorgin-tsarekin holako egunez. Hunek frogatzen badaut Uoh egiazki hobendun dela, arroltzea behar den bezala hautsirik eta ez nahi duen bezala, berehala Konhoringerat eremanen duzue, nahi duzenaren hartaz egiteko ». Mandatarieri iduritu zitzaioten ez nintzela gaizki mintzo eta nere mandatua ereman zioten herritarreri. Hauk onhartu zuten.

Bilkura horren aintzineko bospasei egunetan ez duzue aise asmatuko zer arizan nintzen ? Sorginek bezala arroltze hausten ! Aithortu behar dut lehenak ez nituela errechki hautsi ez eta ere naski arras behar den moldean. Ez nakien oraino arroltze kolokak hautatzen zituztela, hauts-errechago direlakotz onak baino kolokak. Bainan, beharra eragile handi baita, arroltze onen ere hausten ederki trebatu nintzen ...

Aita Verdier lagun hartu nuen bilkhurara joaiteko. Jada hiruetan hogoibat lagun ba-

zen herriko-etchean, oro lantza batzu eskuan eta ezpatak gerritik. Andre Ngam eta Lam ere han ziren, behar orduan gure laguntzeko. Ni mintzatu nintzen lehenik : « Uste duzue beraz Uoh nere zerbitzariak hilarazi duela Konhoringeko neskatcha gaicho hura ? Nun da hori erran dautzuen sorgintsa ? Edo sorgina ? Bat edo bertzea bardin zaut neri, baina datorkidala aintzinerat ? » Eta nik uste bainuen sorgintsa batekin behar nuela auzia trenkatu, ahure motz eta beltzaran bat hurbildu zitzautan, tapa tapa. Haren begi gaichtoa ! — « Ha ! ha ? Hi haiz beraz Konhoringarren argitzaile eta gidaria ? Hik dakizkak bertze nihork ez dakizkanak ? Hurbil hakit oraino gehichago eta nere aintzinean hauts hire arroltzeak ! » Baina sorgina etzen naski fida : etzuen hurbildu nahi. Herritarrek erranik etzadin lotsa, hek ere han zirela behar orduan laguntzeko, alde-alderat ethorri zitzautan. — « Badakik ederki arroltze hausten : nik ere ba. Nik eginen daizkiat beraz galdeak egun. Arroltze bat hartu zuen eskuan eta bere othoitzak egin. Nik nere arroltzeak ez niozkan agertu. Hasi nintzen galde eta galde. — « Nork hilarazi dik delako neskatcha ? Ala eritasunez hil duk ? Usteago huke norbeitek hilarazi duela beraz ? Saetak igoririk ? Nungoa duk hobenduna ? Kontrangetkoa ? Aitaren etchekoa duk ? »

Nahi zuenaren egiterat utzi nuen sorgina eta bere arroltzeak hautsi zituen... nahi zue-nean. Eta orduan azken galde hau egin nion : « Nor duk, bada, Aitaren etchean hobendun ? Ni bederen ? » Ikusi bazintuzte orduan sor-

ginaren zilimitrekeriak, ongi baino hobeki erakusteko segurki eta segurki nik ez nuela hobenik ! Behinere egiten ez dena, bere esku eskuina ezkerrarekin lagundu zuen eta arroltzearen lehertzeko . . . . bainan lehertu gabe : « Beha ! Nere indar guzien gatik, arroltzeak ez du hautsi nahi ! Aitak ez du hobenik ! » Arroltze ezin hautsi hura lurrean ezarri zuen orduan, pausatu eta hatsa hartu nahi balu bezala, bainan burua itzul artean handik hartua nion nik eta besoaren puntan orori irakutsia, oihuka : « Orok ikusten duzue zuen sorginaren arroltze hau ? Ez omen du hautsi nahi ! Bainan hauts dadiela, halare, sorgin hau ez bada bera gezurri handi eta pozoinatzaile tzar bat baizik ! » Eta, krak, arroltzea hautsi nuen ororen bichtan eta purrustan alde guzietarat ichuri ezin jasanezko usain batekin !

Sorgin zaharra zer ikharak hartu zuen eta oro nola eta nola harritu ziren ! Eskuko choria ez nuen airatzerat utzi, eta prediku hau egin nioten Sedangetar gaizoeri : « Adichkide maiteak, horra nori fidatzen zaizten zuen leialtasunean ! Horra nork eginarazten dautzuen hoinbertze gaizki ! Bainan bertzerik ere begietan ezarri nahi dautzuet egun : jauntto hunek eta hunen iduriko guziek deus ez dakitela . . . zuek baino gehiago ! Norbeit heriotze batez kargatzen duelarik, nihork ez dezoke ezetz erran : ikusten ez direnak dire horiek ! Bainan huna zer eginen dugun : Ngam nunbeit gordeko da, eta arroltze bat hautsiz zuen sorginak erraten badauku nun den, esklabo baten saria emanen diot berehala ! »

Ngam joan zen lasterka eta herriaren bertze buruan lurrerat zoen etche zahar batean gorde. Sorginak hautsi zuen arroltzea eta etche baten izena eman zaukun, ifernuko debru beltzaren kopetarekin. Konhoringo eta Kontrangeko gazte batzu joan ziren delako etcherat, bainan Ngamik han ez atchegan. Elhea galduak zauden salbaiak sorginari eta neri beha.

Nere zerbitzari guzien izenak bazakizkan sorginak. Bainan hauche etzakien : Uohk bazuela bertze izen bat : Klon. Etzen izen goiti bat baizik Uoh. Salbaiak othoiztu nituen beharriak oraino hobeki idek zetzaten, eta berritz sorginari hurbildu nitzaion : « Hire arroltze batek hobenduna nere etchean dela erran baitu, eia orai bertze batek hobendun hori nor den salatuko daukun ? » Eta lerro-lerro etcheko izen guziak eman niozkan sorginari, Uohren orde Klonek erranez. Izen hau aditzean, lanak ikusi zituen eta Klonek gizona zen ala emaztea galdetu zaukun. — « Aski duk hire arroltzeari galdetzea », nion ihardetsi. Uste izatu zuen sehi berri zenbeit nukela Klonek ... eta arroltzea etzen hautsi ! Nik etcheko izen guziak eman-eta arroltzea oso zen oraino. — « Horra beraz Konhoringar gaizoak, Uoh hobendun da eta Klonek ez du hobenik. Eta bizkitartean Uoh eta Klonek, Klonek eta Uoh ez dire nere etcheko bi zerkitzari : neskatcha berak ditu bi izen horiek ; Kontrangen hori orok badakite. Nork finkatuko du oraino sorgin hau ez dela gezurri bat ? Hemendik goiti nork erranen du beraz Uohk nihor hilarazi duela ? »

Nihork etzuen ahorik ideki. Eta horrengatik uste duzue jende gaichoek bere sorgin eta sorgintsak bazterrerat utzi dituztela ? Fa . . .

Hortan utzi gintuzten haatik Konhoringarrek. Zeri lothuko ziren, alabainan ? Oi, debruaren amarrua ! Eta zoin urrikaltzeko diren menean ematen zaizkonak !

## HOGOITA HIRURGARREN KAPITULUA

### **Aita Combesen heriotzea**

« Hil aintzinean bortz gizonen bathaiatzeko zoriona banu ! Hamabortz laguni katichima puska bat ikasten ahal baniote, zoin gogotik eta gogotik kanta nezaken *Nunc Dimittis* ! » Horra zer aditu diotan, behin baino gehiagotan, Aita Combes maiteari. Jainkoak aditu zituen haren othoitz saminak. Eta handizki aditu oraino ! Zerurat chuchen-chuchena igorri zituen hainberze haur aiphatu gabe, eri zirelarik bathaiatu zituen bi aitaso chahar eta onez bertzalde, hogoita hamalau lagun bazituen bathaiatuak, eta hogoita hamalauak girichtino onak ziren. Horren gainerat katichima ikasten bazabilzkion hogoita hirur ikasle larri, eta segurki hauk ere gei onak iduri zuten. Bazoaken beraz bakean, Eta Jainkoak ongi baino hobeki frogatzeko, berak hala galdetzen zuelakotz, deitzen zuela Aita Combes, eritasunik etzion igorri eta katichima egiten ari zelarik hartu zuen.

1857 garrena zen : buruilaren hamarra. Aita Verdier joan zen Koxamerat eta han bi egun iragan zituen gostuan Aita Combeseekin.

Hamalauean nere lagunak etcherat itzultze-ko elheak hasi zituenean, Aita Combesek erran zion kofesa zezan : « Ez naiz arras-arras fleitean eta behinere ez dakigu zer gerta dakikegun ! » Eta kofesatu zen. — « Nahi duzu hemen egon nadin, Aita Dourisbourek Kontrangeko lanak baxharrik egin detzazkenaz geroz ? » — Ez du balio. Zer gerta ere kofesatu nahi nuen : Zoazi ». Eta joan zen hartan Aita Verdier.

Hain chuchen horra nun egun hartan berean Cochinchinatik Koxamerat heltzen zaioten ... Aita Bao. Europako eta alde guzietako eskutitzez mando bat bezala kargatua heldu zen Koxamerat. Bazituen guretzat, bainan gehienak Aita Combesez ziren. Hautarik batean jaun aphezpikuak jakinarazten zion Aita Sainduak aphezpikutzat hautatu zuela eta beraz, oro utzirik, lehenbailehen zion Cochinchinarat, karguak hartzeko. Arrunt lotsatu zen Aita Combes. Zerbeiti suspichturik, aspaldi fidatua zautan sekulan etzuela holako kargurik onhartuko. Beldurrak hil othe zaukun beraz gure nausi eta adichkide ona ? Hainitzek hala uste dute, bainan dakienak daki. Dena dela, berri hori ikasi zuenean, gainerateko eskutitzi etzioten behatu ere. Egun guzia, behinere ez eta, ilhun-ilhuna iragan omen zuen, nihori elhe bat egin gabe. Arratsean katichima hasi zuen halere, gosturik ederrenean. Hain maitte zuen katichimaren egitea ! Bainan ikasleak etzituen bertze arratsetan bezen luzez atchiki, etzela arras trempuan erranik. Kamporat zoazin beraz purrustan ikasleak, harrabots

bat entzun zutelarik katichimategitik. Ber-ritz jauzian sartu ziren oro, beldur gaichto batekin, eta Aita Combes lurrean atchewan zabal-zabala, jada elherik ez ezagutzarik gabe. Aita Bao deithu zuten berehala. Hunek oliodura sainduak eman ziozkan. Azken othoitzak bururatu orduko, Aita Combes hila zen ! Hogoita hamabi urthe zituen doioia. Orok uste ginuen behingo nausi eta gidari baginuela harekin. Jainkoak etzuen hala nahi. Aita Combesen orena ethorria zen.

Bainan, ongi behatuz, zer heriotze benedikatua ! Horra misionest gaicho bat. Bakharbakharrik bizi da bere salbaiekin. Bere aphezlagunak ez ditu urrunetik urrunerat baizik ikusten ahal. Supituki bezala hil behar du, aphez baten deitzeko demborarik gabe. Bainan Jainkoak behar diren guziak eginen ditu : lehenik Aita Verdier igorri eta Aita Combes kofesatuko da. Jada heriotzea bidean da eta misionesta egundaino bezala bakharrik. Bakhatrik ? Ez, ezen nihork uste gabean Aita Bao heltzen da nunbeitik, azken laguntzen emateko aski goiz. Oi, Jainko maite eta ororen nausia, zoin ona zaren haatik ! Sinhes-tearen hedatzen dabiltzanak nola laguntzen ditutzun ! Begia nola atchikitzen diozuten ! Sekulan ahanzten banu guretzat duzun amodio ezin sinhetsiskoa, Jauna, ihar bekit eskua, eta ahoan geldi mihia zure laudatzetik ichiltzen banaiz !

Berri hau herrian hedatu zenean, oro nigar marraskaz hasi ziren chokho guzietan. Euria jauts-ahala ari zen, bainan halere laster jendez bethe zen hilaren etchea. Irrisaren



zain ziren bizkitartean gizon gehienak ; atabalek lasterka itzularazi zituzten herrirat. Erran gabe doa burua galdu zutela kasik girichtino berriek eta girichtinotzerat zoazinek, halako aita galdurik. Gau guzia etziren handik higitu eta nigar egitetik ichildu . . .

Dembora hortan Aita Verdier eta nik ez ginuen segurki holako heriotzerik gogoan. Biharamun arratsaldean gure bethiko lane-tan ari ginen bi mandatarari Europako eskutitzekin ethorri zauzkularik. Bazuten ere Aita Baoren hitz labur bat. Etchekeo berrien irakurtzen hasi ginen lehenik hurrupaka. Hain gocho da urrun denean aita, amatto eta etchekeo guzien berrien ukhaitea ! Noizpeit irakurtu gintuen beraz Aita Baok igorri lau hitz irakaragarri hauk : Aita Combes hil da !

Ortzia karraskan gainerat erori balitzaut ez nintzen gehiago harrituko. Egundaino ez nuen gogoan erabili holakorik gerta zitakeela ere. Adichkide handiak ginen alde batetik Aita Combes eta ni, eta bertzetik hura ginuen gure nausi eta gidaria. Nola deusik egin haren argiak gabe ? Zorigaitzak lehertua, nigarrez hasi nintzen purrustan. Bainan bihotza laster altchatu nuen halere eta Jainkoari oihu egin nuen : « Jauna, zuk eman zinakuzun : zuk hartu daukuzu. Bai, egina izan bedi Nausiak nahi duen bezala eta bethi, bethi benedikatua izan dadiela Haren izen saindua ! »

Berehala Koxamerat joan behar nuela segurki, bi mandatarieri galdetu nioten segi nindezaten. Baietz. Bainan ni lasterka nin doan, etzauzkidan jarraikitzen ahal izan eta

berehala elgar galdu ginuen. Egiazki su nuen. Ilhutzeko bidetze ederra eginik, Moneyen nintzen, Bla dakizuen ibaiaren kontra. Ez nintzen han baizik ohartu odol-edaleak ger-riraino lothuak nituela eta dena odoletan nintzela ! Ibaia arras loditua zen hain chu-chen aintzinetako euriteekin. Nihork ez nin-duen lagundu nahi izan bertzalderaino. De-baldetan lehertua nintzen beraz : gauaren nahi eta ez han iragaiterat bortchatua nintzen. Eta hala egin nuen. Bainan biharamu-nean argiko berritz bidean nintzen, eta lohi, euri, sasi eta ororen gatik Koxamen zazpi orenetako.

Nere beha zauden salbaiak. Zer begitartea egin zautedan ! Hitzik nihorekin erran gabe jada banakien orok nere bihotzmina erdizka-tu nahi zutela. Bainan girichtino berriek, Aita Combesen umechurtch dohakabeek unkitu ninduten gehienik. Gozoki nigar egin ginuen elgarrekin. Etziten arras lotsa, Josepen ho-biaren gainean ezarriak nituen hitzak erre-pikatu niozkaten : gu ez garela esperantzari-rik ez dutenak bezala !

Jada kutchan sartua zuten Aita Combes bere aphez jauntziekin. Nik egin nituen ehortzetak. Koxamen egungo egunean ez dute oraino ahanzia misionest bihotzdun eta kartsu hura. Salbaiek berehala ahanzten di-tuzte oro : bizkitartean noiz-nahi bat edo bertze ikusten dut Aita Combesen hobirat joana, belhauniko othoitzean ari ...

## HOGOITA LAUGARREN KAPITULUA

### **Aita Dourisboure Koxamen.**

#### **Ponangoko elizadia**

Gure lehen elizadia Koxamekoa zen eta uste dut hango girichtinoak zirela hoberenak, Elizadi hori behar zen beraz hobekienik zaindu eta artatu, oro jarraik zaizkion ondo-ko egunetan. Ez ginen gehiago bi misionest frantses baizik, Aita Verdier eta ni. Harek edo nik behar ginuen berehala Koxamerat joan. Nere lagunari galdetu nion eia nahi zuen joan. Ezetz ihardetsi zautan, erisiko zela eta lotsa mintzaira berri baten ikasten hasteko osasun harekin. Kontrangeko girichtino hain maite nituenak utzirik, niri zagon beraz Koxamerat joaitea. Urthe bat lehena-go ez dakit aise eroriko nintzen hortarat, baina zenbeit ilhabete hartan, hainbertze eta hainbertze girichtino on, hoberenak segur, khenduz, orotarar egina ninduen Jainkoak.

Pagano eta girichtino, orok jada ezagutzen ninduten Koxamen eta loriatu ziren ni nindoala harat ikasi zutelarik. Hain maite zituzten misionest frantsesak ! Aita Combesen dohain handiek gogorrenak bilduko zituzten, alabainan ! Beha. Aita on hori hil eta biharamunean, bi Koxamar Droetz deithu herri batetarar joanak ziren. Arratsean Droetzarrerri beren herriko berri handia supazterrean erranik, norbeitek heriotze hortaz atseginik baizik etzuela ihardetsi zioten. Edanskoa zen hola mintzatu zen dohakabea eta ilhunpean etzen bi arrotzeri ohartua. Hauk chu-

titu zitzaizkon eta aintzinerat joan elhe horren churitzeko : « Eta errak, to ? Zer gaizki egin daik gure Aitak egundaino ? Zertako egiten dauk atsegin haren heriotzeak ? » Dohakabeak etzakien norat itzul ez-eta zer ihardets. Barkamendu galdetu zioten, edanak erranarazi ziola segur holako elhea eta Aita Combes etzaukala segurki gizon tzar batentzat. — « Ez, ez duk zeren berritz holako atheraldi zororik egin, Droez eta Koxam adichkide egotea nahi baduk ! Euriaren gatik, gaua hemen iragaiteko chedea ginikan : orai etzezakeguk ! Agur ... » Eta handik joan ziren berehala.

Koxamerat orduko, Droezen zer gertatu zitzaioten orori erran zioten. Biharamunean Koxamar guziak Droezen ziren elhearen churitzen. Etzen gerlarik izan, bainan mihi luzeari bi basa-idi eder gosta zitzaizkon haatik. Ez nintzen oraino Koxamen, ni, hori gertatu zelarik. Joan nintzeneko basa-idietarik bat eskaini zautaten neretzat : ez nuen hartu, ... bainan herritar guziek ederki baliatu zuten nere partez. Orai errazue : Koxamarrek ez othe zuten Aita Combes egiazki maite ?

Aita Bao Koxamen zen oraino. Inguruko herrichka batek misionest bat galdeturik, neronek ereman nioten urthearen ondarrerat. Xolang zen herrichka hori : Anammeko bi-oearen gainean arras, Koxametik doidoia bi orenetan zen.

Koxamen lehen-lehenik egin nuena da, girichtino-geien katichimarat deitzea. Etzen haatik lan errecha neretzat katichimaren erakastea, banhar mintzaira ahantzichea bai-

nuen. Hemengo mintzairek arras ikusteko guti dute elgarrekin, zorigaitzez. Bainan Jainkoaren laguntzarekin eta neroni ongi bermaturik, aski laster trebatu nintzen berritz eta urthe baten buruko hamabortz bat bathaio banuen eginik.

Ordu arte bekaizgo eta trufek kalte handia egina zaukuten. Iduri luke batzu eta bertzeak berekin ehortzi zituela Aita Combesek. Bertzalde, girichtino berriak hain ezti eta lagunkin ziren ororentzat, nun paganoak hasi baitziren herritar horiek holakatzen ziozkaten erakaspinari begi hobez behatzen. Urtherik ez da joan geroztik bathaiorik gabe eta ez naiz egunik egon nere katichimetan, ikaslerik gabe. Jainkoa ari zen. Bai, Jainkoa ! Eta ez segurki ni ! Hamarretarik bederatzietan igurikatzen ez nituen lekhotik heldu zauzkidan nere ikusleak ! Eta aldiz nik gehienik othoiztu nuenak huts eginen zautan ... edo berantago ihardetsiko ! Jainkoak konberti dezake bakharrik : horra fedezko egia bat, misionestek egun guziz beren gostuz frogatzen dutena ...

Ibaiari gora, Koxametik oren erditsu baten bidean da Ponang. Bi herri hautako salbaiek lokharri hainitz badute. Urthe bat bazuen bizkitartean Koxamen nintzela, lehen aldikotz Ponangerat joan nintzelarik. Berehala egiazko Jainkoaz mintzatu nitzaioten, eta zabal zabala begietan eman, beren jainko faltsoeri ukho egiten ez bazuten, etzutela beren eginbidea bethetzen. Aski beltzuri gaichtoa egin zautedan hori aditzean, bainan aski laster zenbeit bakhar hasi ziren nere er-

raneri hobeki behatzen, eta horiek batetarat ziten, etche bat eginarazi nuen Ponangen. Nere Anamitetarik batek hasi ziozkaten katichimak. Delako Anamita gizon zuzen eta ezti bat zen, sinheste handikoa. Presondegian ere egona zen-eta girichtinoa zelakotz !

Preso altchatu zutelarik Aita Chamaison, misionest frantsesaren zerbitzari zen. Kuan-gnameko aintzindari batek zer-nahi ikusarazi zion eta hiltzat utzi oihan batean. Handik ethorri zitzaukun. Gurekin zen haste hastetik Banharretan eta haste hartako nekhe, buru-hauste eta gainerateko guziak guk bezala jasanak zituen. Hunat gurekin ethorri Anamitak bat bertzearen ondotik hilak ziren, oro, hura salbu. Eta hura, berrogoita hamar urthez goititan bethi gazte eta suhar ! Behin sor-herrirat izatu da. Ez du bidetze hori egin anaiaren ikusteko bakharririk, bainan bere etche-partearen unkitzeko « urrikerik gabe, dio berak, Jainkoaren aintzinean ager nadin ! » Horra Ponangerat igorri nuen gizona. Hango mintzaira ez baitzakien erotik, katichima larrienak neretzat atchiki nituen haatik.

Zenbeit aste zuen doidoia Ponangen zela nere Anamita, ondorio hoberenak ukhan zetzazken zerbeit gertatu zelarik. Aztaparka lothu nitzaion. Ponang tokiz aldaratu nahi zuten, eta aldaratzerat zoan. Holakoetan zer-nahi ziminokeria egiten dute salbaiek, eta uste dute orduan eginak oro gero ez badituzte erreberritzen usu-usua, heriotzea herrian alhatuko dela. Hala-hala oitura zaharrak aldaira horietan utz ditazke irrisku-

rik gabe. Denik ere zerbeit irriska dezake oitura horien kontra lehenik ahoa ideki duenak ! Nere baitan egin nuen : « To ! Huna padara eder bat jende gaicho horieri beren zimino-keriak utzarazteko . . . neronek lehenik utzirik ! Beldur hori galtzen badute behin, hobeki entzunen naute ! »

Herri berri bat egiten denean, ziminokeria handienak galdetzen dituzten hirur gauzak dire, etcheak atchikiko dituzten pilarren chutitzea, sukhaldearen moldatzea eta lehen pegar uraren ekhartzea. Hirur gauza horiek nik egitea orotan galdeturik . . . nere gisan egin nituen. Erran nahi dut, behinere egiten etzituzten bezala egin nituela irrisku guziak nere gain harturik. Eta oro jarraiki zauzkitan ichil-ichila . . .

Europan etche baten egiteko lehen harria pausatzen duenak morteroa berak eman behar dio harriari : hemen aldiz haintzurkaldi bat nuen emateko. Gero bertzeek egiten zuten gainerateko guzia. Pilarra doidoia eskuz unkitu eta, bertze etche batetarat joan ! Sukaldetako lana ez nuen gaichtoago : aski nuen sukaldearen erdian su bat phiztea. Erran gabe doa artetan trufa ederrik egiten niotela bere jainkoentzat ! Gero, uraren aldi. Herriko emazte batzu jarraiki zitzauzkidan ithurrirat eta han kanabera muthur bana eman zautedan bethetzeko . . . eta artha handienarekin bethe niozkaten, irria begian eta trufa mihian !

Horiek nik nere gisan eginez geroztik, Ponangeko salbaiek etzuten bertze deus egitekorik. Hanbat gaichto neretzat gaizki egin

banuen ! Hek niholaz hobenik etzuten, eta loriaren loriaz, bazkari eder bat eskaini zautedan. Bazkal ondoan sari bat galdetu nioten : lehengo herriaren aintzinean chutik baitzuten harrizko jainko gerizatzaile bat, hura : « Guk gogo onez emanen ginautzuke segurki, bainan nor mentura haren unkitzerat ? Dohakabea erhauts lezake ! » Ez nioten baimen hori baizik galdetzen. Neroni joan nintzen beraz delako jainkorat, eta, erroz gorra ezarririk lehenik, bizkarrean hartu, Koxamerat ereman eta hango urean sekulakotz pulunpatu ! Uste dut geroztik ez den hainitz mugitu erreka harri eta belhar tzarren artetik.

Ondoko egun batez bertze hoinbertzeko edo handiagokoa egin nioten oraino landetako jainkoen kontra . . .

Holako eta holatsuko bertze zozokeria batzuen galarazteaz bertze egitekorik badu haatik misionestak. Jainkoak errana dio hau : « Hautatu haut errotik atheratu eta landa dezakan ». Beraz salbaia gaicho horien bihotzetan zerbeiten landatzeko orena ethorria nuen. Hortzez eta haginez hasi nintzen lan horri . . . eta urthe bat gabe herri hortan banituen hamabortz girichtino larri : neskatcha bat eta hamalau muthil gazte. Zaharrenak etzituen hogoita bortz urthe oraino : gazteena hamabortzetan zen. Piol zuen neskatcha horrek izena eta, nahiz deusik etzakien, aspaldi bathaioaz nahitua zen. Ponangerat abiatu aintzinean, han eta hemen frangotan ikusia nuen, eta bethi galde bera egiten zautan : « Nik ere « Ba-Jang » ezagutu nahi bai-



nuke, noiz ezagutaraziko dautazu » ? « Ba-Jang » asmatzen duzue nor den : Jainkoa. Neskatcha horri zerk emana zion holako gutizia ? Ez dakit. Arras girichtino ona da be-thi Piol . . .

Pikota sartu zitzaukunean Ponangen, jada hiruetan hogoi girichtino banituen : erdiak hil ziren pur pur pur. Bainan, emeki bada emeki, hileri ordainak heldu zaizkote. Eta hautuzko ordainak, eiki !

Hemen ez da lasterka aintzinatzerik. Salbaiak ez ditazke arratsetan baizik ikus, lanetik lehertuak itzuli direlarik. Irrisa horitzen hasiz geroz ez ditazke arras guziez ere ikus. Nola laster argi beraz ? Horrengatik bagoazi . . . bagoazi. Haatik Ponangeko girichtino geien buruan zerbeit sar-arazteko, ez nintaken hainitz egon. Gau beltzean nola itzul Koxamerat, alabainan ? Ez ditazke asma hango bidechkak . . . eta noiz-nahi euria nuen ! Dena dela, oro ahantziak ditut orai. Ahantziak, eta ederki ordainduak dauzkit Jainkoak, Haren arthalde ttipian ardi batzu gehiago baitire ! Ochala berritz ere nekhatu behar banu . . . sari berean !

## HOGOITA BORTZGARREN KAPITULUA

**Aita Verdieren heriotzea**  
**Saigonerat badoa Aita Dourisboure**  
**Aita Besombes salbaietan**

Ponangeko elizadia ezin chutituz ari nintzelarik Annameko erresuman gertatu zirenak ez detzazket aiphatu gabe utz : guretzat ondorio handiegiak izatu dituzte, ichiltzeko.

Touranneko itsas-hegian zenbeit dembora egonik, Rigault de Genouilly itsas-aintzindari famatua Saigonen sartu zen bere soldadoekin 1859-eko otsailean. Errabiaren errabiaz, girichtinoeri jazarri ziren Anamitak. Nunahi ondotik zabilzkioten eta bat atchematen zutenean, esklaboak berak baino garrakkiago zerabilkaten beren erresumarat eremanik. Iduri zuen ifernu guzia elizari gerlan lothu zela, behin bethikotz lehertzeko. Ez dut haatik gerla hortaz deus chehetasunik eman. Guretzat ukhan dituen ondorioen gatik aiphatzen dut bakharririk. Oro jada sutan zirelarik bizkitartean bertze guzietan, Binhdineko eskualdean nihun deus etzen. Hango misionestek irriskurik gabe elgar ikus zezaketen eta beren berriak oraino aise helarazten zauzkuten. Bainan 1860 garrenean bideak hetsi ziren : Binhdineko eskualdea ere suak hartu zuen. Nihundik ez nuen beraz gehiago berririk.

Zenbeit ilhabete gerochago, bertze zorigaitz handi batek bihotza hautsi zautan arras : Aita Verdier hil zitzautan. Kontrangen utzi nuen Koxamerat ethorri nintzelarik. Jada arras ahuldua zen ordukotz : geroztik egunetik egunerat oraino gehiago ttipitua zen. Ez dakit zer eritasun zuen : hiratuz zoan, behinere halako min handirik gabe. Etzitakeela han senda ohartu zelarik, bertze norapeit joaitea galdetu zautan eta berehala hitz bat igorri nion Nere Jaun Cuenoti, bere ganat deith zezan eta Singapour-eko eskualdean sendatzerat igor. Zorigaitzez jaun aphezpikuak etzautan berehala ihar-

detsi . . . eta gero badakizue bideak nola hetsi zauzkun nihorat abiatzeko : Banharren erdian preso ginen.

Etzuen hiltzeak lotsatzen Aita Verdier eta berehala erori zen Jainkoaren nahi saindu guzietarat. Aski demboraz oraino, nahiz etzitzen nihorat joan gehiago, noizetik noizerat bere meza ematen ahal zuen. Azkene-kotz hortako ere etzuen gehiago indarrik. Egunak, asteak eta ilhabeteak etzanik iragan behar, kasik higitu gabe, bizirik hila ! Etzuela gehiago dembora handirik bizitzeko, Rohaieko etcherat eremanarazi nuen, bizkarrez. Bi aste zuen han zela, goiz batez erran zautalarik : « Jainko maiteak ni hiltzea nahi duenaz geroz, nere girichtinoen artean nahi dut hil. Ereman nezazue beraz lehenbailehen Kontrangerat ».

Hala egin ginuen. Etzen gehiago hezur eta larru baizik. Bidean uste izatu ginuen hil behar zitzaukula. Ez. Etchean hil zen, ezti-ztia, 1861 garrenean, Apherilaren 21-ean, Han dago hura ere Kontrangeko oihanean, Josep Nguiren aldean, berritz phiztu arte ! Eta ni, bekatoros dohakabea, oraino bizi ? Nik ehortzi behar nere lagun maiteak, ez naizelakotz on eta gei Jainkoaren aintzinean agertzeko !

Nere mihiak ez du aski hitz saminik hemen errateko zer bihotzmina eman zautan nere azken lagun frantsesaren galtzeak ! Segurki bi aphez on banituen nere ondoetan, Aita Do eta Aita Bao : bainan ez jaun aphez-pikuarekin ez bertze misionestekin berririk ez nezaken gehiago gurutza, eta erran dita-

ke galdua bezala nintzela ! Sor-lekutik hoin urrun, kontseilari bat gabe, adichkiderik gabe, laguntzailerik gabe, salbaiekin ! Trabak baztertzeko, ilhunbeak argitzeko baxharrik ! Baxharrik , ni hoin ttipia, ni hoin ezdeusa, ni hoin jakitaterik gabea ! Oi, ez ninduen gabeziak lotsatzen ez-eta diru eskasak ! Ez ! Bizkitartean hunat ekharri nituen soineko hek aspaldi higatu ziren eta Jainkoak daki zer pildak nerabilzkan ! Zapata pare bat gelditzen zitzautan doidoia, eta hura ere joantchea, eta, begiko ñiña bezala, meza sainduaren emateko begiratzen nituen ! Eta, gehiago dena, bide guziak hetsirik, beldurtzeko baitzen behin-behin ez nuela irinik eta arnorik eskuratuko, igandetako mezaz kampo bertzerik eman gabe egon behar ! Eta arte hortan bathaioak emendatuz baitzoazin, irinik gabe nola egin beharko nuen girichtino berrien Mahain Saindurat hurbilarazteko ?

Urrungoek misionestak urrikari dituzte nekhatzen direlakotz, maiz beharra dutelakotz lege. Bada, deus ez dire horiek, jasaiteko dituzten bihotzmin eta beldur gaichto batzuen aldean. Bainan zer diot ? Misionesta egiazki misionest balinbada, gabeziak eta gaineratekoek ez dute lotsatzen : azkartzen eta sustatzen, ba. Neronek frogatua dut hori. Nik bezala egin dute bertze frangok. Bainan mina barnekoa delarik, ilhundura eta desgustua baxharrik den bati heldu zaizkolarik, ah ! orduan ikaragarri da ! Orduan hameka aldiz jarri naiz Koxameko ibaiaren ondoan, bertze orduz Israelitak Babyloneko

ibaiaren ondoan bezala eta nigarrez hasi :  
Cœpit pavere.

Bi urthe luze iragan nituen nihungo ber-  
ririk gabe. Bideak bethi hetsiak zirenaz  
geroz, banakien Annamen etziotela beraz  
oraino girichtinoeri barkatzen. Noizean  
behinka hango merkatzale ezagun batzuek  
jakinarazten zautedan hango edo hemengo  
girichtino gaicho batzueri oraino oro ebatsi  
ziozkatela, eta larrutu eta biphildurik utzi.  
Bainan merkatarari horiek Ansonekoak bait-  
ziren gutiz gehienak, beraz gerla tokietarik  
aski urrungoak, ez nituen arras sinhesten  
ahal. Zer zoakioten guzien buruan ? Behin  
haatik merkatarari horiek berria ekharririk  
Anamitek gizon churi bizar luze bat preso  
ereman zutela bere adinaren gatik, beldurtu  
nintzen Nere Jaun Cuenot othe zen bederen.  
Hura zen, zorigaitzez. Geroztik jakina dut  
hilaraztekoa zutela, uste gabean hertzetako  
gaitz tzar batek ereman zuelarik ...

Anhartean soldado eta mariñel frantse-  
sak Cochinchina behera guziaz jabeturik,  
nahi-eta ez bakea eginarazi zioten Anami-  
teri eta hitzemanarazi girichtinoeri etzio-  
tela gehiago deusik eginen. Misionestak or-  
dutik nun-nahi ibil zitazken beren erakas-  
penaren hedatzeko. Gizon gazte batek ekhar-  
ri zaukun berri on hori. Bazuen haatik ber-  
ri tzarrik ere, hala nola jaun aphezpikua  
presondegian hil zela, misionest frango ere  
bazela hilik, girichtino hainitz desterraturik !  
Eta holako ! Gizon gazte horrek erran zau-  
kun oraino nola gorde zen Saigonen heriot-  
zeari espakatzeko Aita Herrengt, eta, Aita

Sainduak bertze bat izendatu arte, hura zela gure buruzagi eta nausia. Hitz bat igorri nion berehala chehetasun guziekin. Demboraren buruan orhoit naiz galde hau egiten niola : « Nor dugu Aita Saindu ? » Eta bertze hau ere ba : « Zer du Frantziako errege edo emperadoreak izena ? » Ez dakit nola ez nion ere, bertze orduz Paule ermitauak San Antoni bezala, galdetu oraino : « Etcheak egiten othe dituzte oraino gizonak ? »

Zenbeit ilhabeteren buruko bertze galtze latzgarri bat ukhan ginuen. Nihork etzuen Aita Herrengt horrek baino gei gehiago Nere Jaun Cuenoten kargua hartzeko : « choléra » deithu gaitz ikharagarriak ereman zaukun ! Erromatik jada jakinarazia zioten aphezpikutzat hautatu zutela, bainan aphezpiku-titulua gibelat igorria zuen, bere burua ttipiegi zaukalakotz holako kargu baten bethetzeko. Paperak Erromako bidean ... eta Aita Herrengt jada bertze munduan ! Zer den gizona !

Ez ginakien gehiago zer egin. Nor zen buruzagi ? Nori eman gure berriak ? Jakiteko, goiz batez Annameko bidea hartu nuen.

Hamahirur urthe bazuen salbaietan nintzela. Ez nuen Annameko erresuma ezagutzen. Frantziatik heldu nintzelarik, misionestak etzitazken gauaz baizik ibil. Egia erran, aldi huntan ere aski lotsa nintzen egunaz ibiltzeko. Anamitek segurki hitza emana bazuten bakea utziko zaukutela, hain aise badakite hitzaren jaten. Bertzalde ez nuen paperik eta banakien legearen arabera behar nituela. Binhdinen nihor ez atchemanik,

Saigoni buruz abiatu nintzen demborarik galdu gabe. Bainan urez joan behar bainuen, untzi baten beha gelditu nintzen Giako ondoan. Anamita gazte batek berri on bat ekharri zautan harat: Giako porturat misionest bat ethorri zela. Aita Besombes zen. Bi jauziz joan nintzen porturat eta nere lagun berria gochoki besarkatu. Aita Verdier hilez geroztik, begitarte churirik ez nuen nihun ikusi. Eta badakizue? Aita Besombes frantsesez elheketa hasi eta ez nion aise ihardetsi: frantsesean harroztan hasia nintzen zinez!

Irri frango eginarazi nion. Nere ganat heldu zen Banharren elizadietarat, bainan ez baitzauzkidan nahi nituen chehetasun guziak ematen ahal izan, bere bidean utzi nuen eta nereari jarraiki: « Ahal bezen laster itzuliko naiz haatik, eta hainbertze herritarren Saigonen ikusteko atseginak ez daut ahantzaraziko nere egimbidea Banharretan dela! »

Saigonen iduritu zitzautan Frantzian berean nintzela. Untzi hek ikusi nituelarik soldado eta mariñel frantsesez betheak, karrika luze eder hetan sartu nitzelarik, guziz hango eliza churi eta ederretan kantu batzu aditu nituelarik eta eliza horietako meza eta elizkizun paregabeak entzun, choratu nintzen eta uste izan nuen amets luze batetik atheratzen nintzela. Nigarrak jauzi zauzkidan. Bainan Saigoneko choramenduek etzautedan burua galarazi halare eta ikaste-ko nituenak ikasi orduko, egiteko nituenak egin orduko, begiak eta bihotza laster nere

Banhar maiteetarat itzuli nituen ! Berehala nahiko nuen abiatu, bainan Nere Jaun Lefebvre, Cochinchina behereko jaun aphezpi-kuak nere osasunaren gatik zenbeit egun egonarazi ninduen. Pausatuche nintzelarik eta berritz joaitea deliberatu, egundaino bezala bertze zerbeitek gibelatu ninduen, eta arte hortan Binhdineko eskualdean sekulako nahasmenduak jauzi ziren.

Huna zertako. Aita Besombes bere pape-ekin zen eta nihork etzezoken deusik egin. Chichpa batzu Salbaietarat bazeramatzan : horien ageria ere bazuen. Bainan nola nihor ez baitzen fida Hueko erregeak eginen zue-  
naz, orok hitz baten jateko gei baitzaukaten, Aita Besombes, gu lehen aldian bezala, gauaz eta gordeka ibilki zen. Bera mugazaineri aise espakatu zen eta Banharretarat heldu. Bainan horra nun mugazainek delako chichpak atchematen dituzten. Etzuten bertzerik behar eta nahi han gaindiko aintzindarichka tchar batzuek oihuka eta zalapartaka berritz girichtinoeri jazartzeko. Gaicho girichtinoak ! Doidoia desterrutik itzulirik, beren egoitzen chutitzen eta antolatzen hasterat zoazin !

Horiek aditurik, Aita Besombes chuchen-  
chuchena prefetari joan zitzaion haatik, eta, paper guziak eskuan, bere chichpak galdetu. Hainbertzenarekin aintzindari handi bat harat ethorririk, oro antolatu ziren eta gerla hori phitzarazi zutenek beren karguak galdu zituzten. Jada erran baitugu frangotan Jainkoak bethi badakiela gaizkitik ongiaren athe-  
ratzen, hala egin zuen aldi huntan ere : Hueko erregeak, ikharan bizi baiginen, Banhar-



ren eskualdetako elizadi guziera bere baime-  
na eman zioten, eta misionesteri behar zituz-  
ten paper guziak igorri harat-hunat ibiltzeko.

Saigonetik ez nintzen mugitua, ni, dem-  
bora hortan. Hango erretorgoa emana zau-  
tan Nere Jaun Lefebvrek. Sei ilhabeteren  
buruan hartu nuen baxharrik etcheko bidea.

Ez dakit zenbat herritar eta adichkide  
kausitu edo ikusi nuen Saigonen. Hainitz.  
Eta batzu bertzeak baino maitagarriago !  
Bihotzak zimiko bat egin zautan beraz eta  
begi bat busti agur erraterat joan nitzaiote-  
larik lerro lerro. Ez dut ere sekulan ahantziko  
zoin onak izan ziren neretzat bai Carmeseko  
bai Jondoni Pauloren serora maiteak. Saigo-  
neko girichtinoek ere gogotik atchikiko omen  
ninduten segurki ! Bainan ez nintzen hangoa  
eta untzia hartu nuen joaiteko. Saigoneko  
auzapheza eta hango jauneria gehiena unt-  
ziraino ethorri zitzautan, azken agur baten  
erraterat ! Oi, zer jende onak ! Hoinbertze  
atchikimenduk nola unkitu ninduen ! Binh-  
dinen Aita Besombes nere beha zagon. El-  
garrekin egin ginuen handik goitikako bidea.

## HOGOITA SEIGARREN KAPITULUA

### **Pikota**

Bake osoan bizi zen gure elizadia. Paga-  
noek etzioten gehiago trufarik ez bertzerik  
egiten girichtinoeri eta arthaldea bethi han-  
dituz zoan, eta ni, ni lehen halako ilhunaldiak  
nituen, orai irriz eta kantuz ari nintzen ar-  
dura ! Bihotz guzia loriaz bethea nindagon,

egundaino ukhan dugun zigorraldirik ikaragarriena Jainkoak eman zaukularik. Bi urthez pikotak erhautsi gintuen, eta girichtinoetan hiruetarik bat hil zitzaukun. Pikota zer den salbaiek etzakiten ordu arte, salbu chahar-chahar zenbeitek beren haurrean aiphatzen aditurik. Izenak berak lotsatzen zituen chahar hauk. Zorigaitzez, itchura guzien arabera girichtinoek ekharri zaukuten pikota ! Huna nola.

Girichtino bat beharrarekin borroka ari zen Ansonen eta lotsatu zen, han egonen zeno urtheak etzituela aise gurutzatuko. Bere etchekoekin guri buruz abiatu zen. Ondikotz, bidean zerbeit gisaz pikotak hartu zuen eta Rohaien Aita Doren zerbitzari guziak ohartgabea kutsatu zituen eri dohakabeak. Cochinchinarat joana zen Aita Do, hain chuchen. Bainan aski hurbil bazen bertze misionest bat eta hel egin zioten. Eritasunaren berri jakin zuteneko, salbaiak arrunt lotsatu ziren inguru guzietan eta Komkomeko girichtinoek berek etzuten gehiago gurutzatu nahi Rohaiekoekin. Kanabera punta zorrotuak bi herrien artean landatu zituzten eta !

Nihori etzitzaion haizu Rohaieko erien ikusterat joaitea. Aphezari berari debekatua zitzaion. Bainan bazakien aphezak artzain onak bere ardientzat hil behar duela eta huna nola jokatu zen, eritasuna Rohaien kokatu zeno. Botoinetarik laster ageri baitzen eri batek laster hil behar zuen ala ez, bat hiltzerat zoala ikusi orduko, norbeit lasterka kanabera-punta artez-arte Aitaren bilha

joaiten zen, gauak gauari. Biharamun goizeko eri gaichoak sakramendu guziak hartuak zituen eta, argia gabe, Aita berritz etchean zen. Eta nihor etzen ohartu ! Neronek gero eta gero ikasiak ditut horiek . . .

Zenbeit astez pikota Rohaien egon zen, bainan gero fama hedatzen hasi zen han eta hemen ere agertzen hasi zela. Azkenekotz orotarar hedatu zen. Ez ditake erran mundua nola lotsatua zen ! Etzen gehiago ez ahaidegorik ez adichkidantzarik : eri etzena ihesi zoan ahal bezen laster eta ahal bezen urrun, oihan zokhoetaraino, han zuhaitz erro eta belhar tzarrez biziko bazen ere. Eriak, bakharririk ari behar zuen gaitzarekin borroka. Gose eta egarriak, bertzalde ! Baziren sukhararekin ezin egonez, urerat jauzi egiten zutenak freskatzeko eta han ithotzen, indarrek utzirik. Hilak ere nun-nahi atchewan zitazken, bideetan, oihanetan, landetan, basagathu eta abere gaichto batzuek jada erdi iretsiak ! Herrietan hiltzen zirenek han berean usteldu behar zuten, nihor ez baitzen ehortzeko. Ez da beraz harritzeko gaitza zabaltzen ari bazen egunetik egunerat.

Koxamen nintzen orduan. Gaitza etzitzaukun berehala agertu. Inguruko herri guziak jada erdi hustuak gaitzaren gatik, eta gu oraino ere sendo ! Gau batez athea jo zautan norbeitek eta leihorat erran : « Aita, eri bat badugu etchean, zato laster ikusterat. Ez dakigu ez othe duen pikota ! » Mandatariari jarraiki nitzaion berehala, eta eria ikusi orduko ez nuen dudarik ukhan : pikota zuen. Ez nioten etchekoeri gorde hala zuela. Har-

ritu ziren. Oro ihesari ematerat zoazin berehala, neronek gelditu ez banitu : « Norat nahi duzue joan ? Jainkoak nahi gaitu frogatu : benedika dezagun Haren izen saindua ! Bainan girichtinoek ez dute, paganoek bezala, elgar utzi eta ukatu behar. Herri Guzia neronek bilduko dut bihar eta elgarrekin orok ikusiko dugu zer egin. Ordu arte, ez lotsa ». Eta berehala etche hartako sendoak eta nere meneko Anamitak igorri nituen oihanerat etchola handi baten argiko egiteko. Gero, nihor ohartu gabe, eria harat ereman ginuen. Anamitek etzuten irriskurik, pikota orok ukhana baitzuten haurrean : ez-eta nik, ezen bizpahirur aldiz bederen chertatua izana naiz.

Erran bezala, biharamunean herri guzia bil-arazi nuen herriko-etcherat eta egia ikaragarria salatu nioten : « Bainan, haur maitiak, zer nahi gerta dadien, gauden elgarrekin. Girichtinoek zerbeit badugu hiltzeak baino gehiago lotsatu behar gaituena, hura da aphezik eta sakramendurik gabe hiltzea. Eta bakotcha bere alde joaiten bada ni ez naiz orotarat heltzen ahalko ! » Orok batean ihardetsi zautedan : « Ez, Aita, ez dugu ihesi joan nahi. Hiltzekotz, zure ondoan nahi dugu hil ! »

Etzen guti horren ardiestea. Bertze etchola batzu eginarazi niozkaten, nihor eritzen bazen ere. Lehen eri hura sendatu eta ongi sendatu arte, nere Anamitak eta ni baizik, nihor etzitzaion hurbildu. Bertzerik etzen dembora hortan eritu eta orok uste ginuen Koxam salbu zela. Bainan airea pozoinatua zen eta pikota oihan zokhoetaraino heldua.

Koxam ere hartu zuen beraz eta ederki zafratu. Nik errana baizik etzuten egin halerre Koxamarrek. Norbeit eritu orduko, oihaneko etcholetarat erematen zuten berehala, han arthatzeko. Eri handienak berech han ere. Hauk ikusten nituen maizenik, gorphutzak bezala arimak arthatzeko.

Oi, oihan zokho hartako ikaragarrikeria ! Etzuten gehiago gizonak iduri eriek. Aldean ukhurtua, alde guzietarat zoakioten ustelduraren erdian belhauniko hainitzetan, azken sakramenduen ematen hasten nitzaio-telarik, olio sainduak ez zikhintzeko, erhiak chukatu behar nituen aldi guziz. Zer bihotza behar den holakoetan goitika ez hasteko ! Lehen aldietan bihotzak gaindi egin zautala ez dut gordeko. Geroztik barnea egin zautan haatik ! Ehortzetek ez ninduten bature gutiago lotsatzen, herritik nihor ez baitzen haizu hilari jarraikitzerat ...

Hala hala, zer atseginak ere ez nituen ! Gaicho eriek hain ongi hartzen zituzten beren gaitz eta heriotzeak nun uste baitut oro Jainkoarekin direla zeruan ! Oraino pagano zirenak, bakar batzu salbu, oro bathaiatu nituen, ematen giniozkaten artha onek unkiturik. Oi, Jainkoa zoin ona den ! Hainitz eriarazi du ... salbatzeko ! « Felix calamitas ! » oihu egin dezaket beraz nik ere, guzien gatik : pikota ethorri ez balitzauku, hainitz eta hainitz beren ilhunpetan egonen ziren !

Iduri luke, ikusi ginuenean gaitza ez ginezakela geldi bere bidetan, ez gintuela baitezpada eriak zokho hartarat ereman be-

harko. Bainan ez nintzen airerat ari. Paganoeck etzuten guk bezala egin beren herrietan, eta pikota hainitz lasterrago hedatu zitzaieten. Oro kasik batean eritu ziren eta kampo lanak nihundik etzituzten hortakotz egiten ahal izan. Pikotaren ondotik gose-teak atcheman zituen beraz. Guk aldiz eriak arthatu gintuen, eta kampo lan guziak egin, hainbertze eri ez ginuelakotz batean, eta gero selhauruak bethi bezala bethe ziren.

Eta Aita Besombes nere lagun berria zer ari othe zen dembora hortan ? Nola ez dutan aiphatu zaudete segurki ? Zertako ? Bera eritu zaukulakotz. Etzuen haatik pikotak hartu, bigetan bederen chertatua izana baitzen, bainan oihanetako sukharrak. Lehen ilhabetean ederki ihardoki zuen eta lorietan erraten zautan. « Ikusiko duzu ni ez naizela erituko ! Ez dut egundaino orai bezenbat indar ukhan ! » — « Hobe, adichkidea, hobe, bainan etzatzu lasterregi egin kukuruku : badakit hemengo berri ! »

Eta egiazki gaitzak etzuen ordu arte hartu, gero azkarkiago hartzeko baizik. Sukharrez bertzalde, hazteria zikhin bat ukhan zuen : bai-eta barneko gaindidura batzu. Zainak hala hil zitzaizkon nun deusetako kalipurik ez baitzuen gehiago. Erran ditake beraz, guzien buruan pikota dembora hartan nik baino gehiago ikusi zuela ...

Jada errana dut eta berritz erran nahi : hemen gaindi bada nausien nausi bat, sukharra. Nihork ez dio buru egiten ahal. Salbaiak berak noizean behinka hartzen ditu, bainan kampo tiar bati ez dio barkatzen.

Gutiz gehienak hobirat erematen ditu. Sendatzen direnak, ongi eta ongi ahuldu eta zehaturik uzten ditu. Eta utziko ! Hau ongi jakin dezatela gure ondokoek. Ez diotet lotsatzeko erraten : misionesta deusek ez du lotsatzen, bainan ez ditene lotsa ! Misionest gazte batek hunat ethortzean badu amets bat : martirgoarena. Hemen badute martirgoaren mentura. Zer diot mentura ? Segurantzaz, badute, segurantzaz. Bainan martirgo hori ez da nahi luketen su, azote eta odolarekilako martirgo hura. Bertze bat da, luze eta samina ! Ustea badut, bai eta esperantzaz, huni bertzeari bezen begitarte ona egiten diola Jainkoak ...

## HOGOITA ZAZPIGARREN KAPITULUA

### **Gau latzgarri bat. — Jainkoa gure alde**

Gutik egin zuen pikotak ez bazuen desegin misionesten lan guzia. Solas horri lothu gabe, bertze ichtorio bat nahi dautzuet haatik kondatu, ikus dezazuen Jainkoak nola laguntzen gintuen segurki. Gisa hortan, hein batean bederen, gure Jainkoaren alderako zorra ttipituko dugu ...

Pikota hasi baino urthe bat lehenago, zenbeit koxamar makurtu ziren hauzo batzuekin eta Tolehko herrirat joan egoterat. Toleh hamar bat aneurkin edo kilometretan da. Zazpi joan ziren denetarat : bortz pagano eta bi girichtino. Bertze hirur ere baziren haatik katichiman ibiliak. Pikota etchean sartu zitzaioletarik lotsatu ziren, eta beldur-

tu ifernurat joan beharko zutela. Elgarrekin mintzaturik, muthiko gazte bat ethorri zautan bilha, izerdi uretan. Eguerdi zen. Aintzineko gaua sukharrarekin iragana bainuen neronek, etzana nindagon. Euria ari zen bertzalde parrapatan, eta ibaiak jada handituak ziren. Banakien bertzalde arratsari buruz sukharrak berritz hartuko ninduela. Bainan hirur bathaioren aintzinean etzen sukharrik ez bertzerik: chutitu nintzen berehala eta abiatu. Koxametik Tolehrat joateko ez da lur biderik oren erdi batez: nahi eta ez urez joan behar. Bi Anamita hartu nituen, untziska batean eremateko. Lur-biderat heldu ginelarik Koxamerat itzularazi nituen, ongi eta ongi erranik ilhuntzeko toki bererat ethortzeko, sukharrak han hartzerat utzi gabe, eta oinez jarraiki nitzaion nere mandatarri gazteari.

Erien etchean sartzean halako usainak sudur guzia bethe zautan nun alditchartzer bainintzen. Eri gaichoen loriak berehala phiztu ninduen haatik. Bi oren iragan nituen han, eta beharrenak errepikaturik, hirur bathaio egin nituen. Ikusi bazinute etche hartako zoriona! Huna zer erran zautan emazte gazte batek: « Aita, orai hil naiteke bederen! Ez dut deusen gutiziarik gehiago lurrean! » Gaichoa! Jainkoak aditu zuen eta ondoko gauean berean deithu. Eta segur haren gorphutza ondoko egunetan ez bazitaken usteldura meta bat baizik, arima zeruan zen bederen bathaioko garbitasun eta distiraduran! Bertze bigek gaitza garhaitu zuten eta ez dute segurki ahantzia Jainkoaren dohaina.



Bainan iguzkia aphaltzen hasia zen eta etcherat itzuli behar nuen. Goizeko muthiko gazte bera gidari, ur hegiari buruz taka taka abiatu nintzen. Ondikotz, etchetik ehun urhatsen buruko horra nun hasten zaukun ortzia karraskan! Nere laguna igorri nuen gibelat, bakharrik ere bidea egingen nuela.

Sobera atsegin ukhana nuen arratsalde hartan : Jainkoarekin zorretan ninzen beraz. Euria hasi zuen jauts-ahala ... eta ur hegian nere gizonik nihun ez ageri ! Beha egonik, Koxamerat itzuliak ziren, holako demborarekin eta eri, segurki ez nintzela kaporat menturatuko. Hotz ikarak jada hasiak nituen. Bada, handik Koxamerat badakizue ez nuela lur biderik. Etzen alde guzietarik sasi beltza baizik. Eta horra nun urak atheratzen diren karraskan, zuhaitz eta oro errotik atheraturik berenkin ereman nahi balituzte bezala ! Gaua, gau lodi bat ethorri zen hainbertzenarekin ... eta ni be-thi han ! Han, eri eta atherberik gabe ! Zer egin ? Othoitz kartsuena Jainko Maiteari bihotzaren erdi-erditik eskaini-eta, makhil bat pikatu nuen sasian eta abiatu. Abiatu, nora-peit. Ondikotz, menditik beheiti karraskan ethorririk, ur tzar batek nere bidea hautsi zautan laster ! Etzuen iduri halako urik bazela : sartu nintzen. Belhaunetaraino nuen doidoia, bainan halako indarra eta oldarra zuen nun, ohartu gabe, laur hatzez gora han harat eremana baininduen ! Beharrik Jainkoak ez ninduen utzi ! Haitz ondo baten ondoan iragaitean, adar batzueri aztaparka lotu nintzen, chutitu eta uretik ahal nuen be-

zala atheratu. Erreka bi urhatsetan zoakidan karraska gorrian. Han sartu banintz, nereak egin zuen . . . mirakuilu batez kampo.

Lehertua, lohiaren erdian jarri nintzen den gutieneko bat nerebaitaratu arte. Hotzaren hotzez sua nuen gorphutz guzian. Bainan sukharraren gatik erreka bertzalderat joanez baizik ez nezakela deus egin ikusirik, chutitu nintzen berritz. Han berean etzen bertzalderat iragaiterik. Gorachago erreka hertsichago zitakeela, beraz iragan errechago, gibelat itzuli nintzen hanhemenka galtza eta athorra phuska ederrik utziz. Bainan deus guti dire horiek, gainera-tekoen aldean. Halere, nere erreka tzarra iragan nuen azkenean . . . sei oren handiz hirur kilometra ttipi egin ondoan ! Hameka orenak bezala ziren. Haizea eta euria gelditu ziren hainbertzenarekin. Ilhuna bethi bardin lodi zen haatik. Bi urhatsetan nuen beltz zerbeiti hurbildurik, ongi haztatu nuen eta ikusi zuhaitz lodi bat zela lurretik bi metretan bi aldetarat zabaltzen zena. Chutik ez nindagoken gehiago. Zuhaitzerat igan nintzen beraz, hortzak ederki tinkatuz, eta ichtapeka eman. Han pausatu nintzen, amets batzu bezala egun hartako urhats eta gertakariak gogoan nerabilzkala. Bainan errazue ? Hirur lagun bathaiatzeak ez othe du hoinbertze balio ? Hala heldu zautan bederen gogorat nere zaldi gogorraren gainean : « Ni zer naiz ? Deus, eta deus baino gutiago, bainan gaur bederen erran dezaket egiazki misionest naizela ! Jainko maitea, azkenean urrikaldu zitzauzkit, ezen gau huntan zu-

haitz baten gainean egin behar badut lo, zure amodioak hortaratu nauela erraten ahal dut ! » Ez dut uste ohantze hura munduko tronurik ederrenarentzat trukatuko nuen orduantche . . .

Gau guzia han iragaitea hobe nuela nindagon, hotza sartzen hasi zitzautalarik. Han egotea, hiltzea zen. Jainkoak badakiela oihanean ere bere misionestaren zaintzen, beharrez behar, sasiz sasi abiatu nintzen eta joan, joan, joan bethi, azkenean landa irrisa batetarat heldu arte. Zaintzalearen etchola gogorat ethorririk, eskuin eta ezker bilhatu nuen, eta noizpeit atchemanik, sartu : « Orai banu su ttipi bat, idortzeko bederen ! » Alabainan duen hura behinere etzaio aski gizonari ! Egia erran sukhar harekin eta larruraino bustia, ez da harritzeko nik sua gutiziatu ere ! Nola egin ordean surik ? Zerekin ? Hain chuchen horra nun su phizteko dohakabe bat zarpan atchematen dutan. Ez gero, biga : bat, bat bakharra, dena ere bustia ! Ikharan iraganarazi nuen harri baten kontra . . . eta phiztu. Jainkoak hala nahi duenean, oro alde joaiten zauzkitzu : horra froga. Zer sua egin nuen ! Ez dut uste gau ondar hura nik baino gustuanago iragan zuen gizonik badela munduan, Jainkoari oihuka : « Zoin ona zaren ! zoin ona zaren ! eta zoin ona zaren ! »

Ondoko egunetan haatik, nahi banuen eta ez, nere ohean luze-luzea egon behar izatu nuen, bi bulharrak hartuak eta hatsa korrokan. Ez da behinere deusetaz esantuka ari behar. Nik uste bainuen bulharrak gaitz guziak baino azkarrago nituela, horra !

Behin hiltzerat nindoala beldurturik, ez nion nahi baino lasterrago nere bekatuen barkamendua emanarazi Aita Besombesi, eta harek barkamenduzko hitzak bururatu gabe, jada ezagutzarik gabe nintzen. Gaua hasterat zoan. Biharamunean nere baitaratu nintzelarik, badakizue zer ikasi nuen ? Oliodura Saindua bera ukhana nuela, orok nitaz etsiturik ! Bainan olio sainduarekin Aita Besombesek nere zangoak unkitu zitueneko bera alditchartu zen eta zabal-zabala lurrerat erori ! Herri guzia gure alderat bildu omen zen berehala, nigar marraskaz oro ! Uste dut norbeitek gure ehortzetak ere aiphatu zituen. Bainan Jainkoak ez gintuen oraino nahi. Sendatu nintzen : Aita Besombes ere, ba. Behinere etzela haatik arras ongituko, nere Jaun Charbonnier gure aphezpiku berriak Cochinchinarat deithu zuen. Bidea ahal zuen bezala egin zuen nere lagun gaichoak, noiz-nahi hiltzeko irris-kuan. Aphezpikutegian urthe batez ukhan zituen artha onek hobekitu zuten halere ... eta oraino ikusiko duzue Banharrekin borroka ...

Bainan ez othe da ordu Jainkoak gure elizadi berri maiteari igorri ziozkan frogantza ikharagarriak aipha detzadan azkenean ? Ba naski.

Jada errana dut girichtino batek ekarri zaukula pikota, itchura guzien arabera. Jada baginuen hortakotz mehatchu frango aditurik eskuin eta ezker. Jainkoak bere gazti-gua eman zion haatik, gehien-gehienik gure kontra mintzatu zen dohakabeari : etche gu-

zia hustu zion, lau anaïetarik hasirik azken haurreraino, bera barne.

Debruak dohakabe horri ordainak atche-  
man ziozkan halere gure kontra gerla haste-  
ko edo has-arazteko. Etsaiik ez ginuen alde-  
ko herrietan. Bi egunen bidean bilhatu zituen  
beraz : Xodangetarrak. Hauien chede gaich-  
toak aski laster beharritaratu zitzauzkun,  
bainan ez noiz jazarri beharrak gintuen. Hor-  
ra zertako egun eta gau ikharan ginauden.  
Damurik !

Hirur aldiz abiatu ziren guri buruz. Ro-  
haieko elizadia zuten gehienik begietan eta  
lehen chedetan, herri hortaz jabetuz geroz,  
gaineratekoez aise jabetuko zirela, inguru-  
herriak ez baitziren segurki gure alde agertu  
nahi, kontra ez izana gatik. Lehen aldian lau  
ehun Xodangetar baziren jada bidean, he-  
gaztinak kontrako aldetik hasi zitzaizkote-  
larik kantuz eta gibelat eginarazi.

Bigarren aldian, oraino gerlari gehiago  
bildu zen eta bideari lothu. Hastean hegaz-  
tinak alde agerturik, airean Rohaieko ondo-  
raino hurbildu ziren. Han basa-gathu batek  
bidea pikatu zioten haatik. Basa-gathu bat  
bidean, zer jainkoen mehatchua ! Berritz ere  
ukho egin zuten . . .

Hirugarrenean, bortz ehunez goiti bazi-  
ren. Hitzartua zuten traba guzien gatik bu-  
rurat helduko zirela, eta gauaz Rohaieko on-  
do-ondoraino heldu ziren. Hain chuchen,  
salbu bizpahirur atcho chahar eta zenbeit  
haur, Rohaitar guziak oihanean ziren, egoit-  
za berrien egiten ari. Etsaiak etzuen beraz  
hainitz irriskatuko Rohaien sartu balitz : oro

suntsitzen ahalko zituen nahi-nahirat. Bainan Jainkoa etzagon lo aldi huntan ere eta berritz salbatu gintuen.

Oren erdi baten bidean ziren Xodangetar gerlariak, gure elefantetarik bat, oihanean alhan ibilirik, bidearen erdian tente eman zitzaioletarik. Ilhargi bafada batek oro argiturik hainbertzenarekin, etsaieri odola berehala hoztu zioten zainetan . . . elefant harek, eta etziren nahi baino lasterrago beren etchetarat heldu, zin eginik girichtinoak hilen zituela nahi zuenak : ez, hek ! . . .

Handik zenbeit egunen buruan mezua igorri zaukuten etzirela gehiago hasarre eta adichkidetu nahi zutela : « Egin nahi ginautzuen gerla etzen zuzena, gure jainkoek hirur aldiz trabak igorri dauzkutenaz geroz ! »

Jainkoak lagundu gintuen oraino. Bethi bardin urrikal dakigula . . .

## HOGOITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

### **Aita Besombes, ederki lanean hasi orduko, hiltzen da**

Kasik gure girichtinoen erdia galdu ginuen pikotarekin, eta zorigaitzez, Koxamen bederen hoberen hoberenak. Pikota ethorri aintzinean erran ditake girichtinoek egiten zutela Koxamen legea. Paganoek deusetan etzioten buru egiten behinere eta finka ditake kasik herri hori arras girichtinotua zela, pagano bakhar-bakhar batzuekin. Nola, bertzalde, herriko buruzagiek deus ez baitzuten hasten misionestari bere baimena galdetu

eta baizik, sekulan etzen makhurrik. Herriko buruzagi on horietarik bat baizik etzen haatik gehiago bizi: Hemur. Ondikotz, zahartzen hasia hau ere! Etzioten beraz gehiago hainbertze behatzen. Hemen gaindi nausi izateko, ez da indarra eta bihotza bezalakorik, eta bigak galtzen dire adinarekin. Gaizo Hemur!

Hau ere aithortu behar dut: paganoetan bakhar batzu baziren oraino gure erakaspenari aski begi gaichtoz behatzen zutenak. Aintzinean gordetzen bazuten, kopeta altchatzen hasi zuten girichtinoak gutitzean. Elhea gorachago zuten; jada eztabaida batzuetan zuzen kontra ibiliak! Eta horra nun Koxame hauzo-herri batekin makurtzen den. Pagano eta girichtino, orori erran ginioten berehala zer zuten egiteko, zuzenki ibili nahi bazuten. Ez gintuzten entzun. Ez gintuzten entzun, diot, ezen biga baginen hola mintzatzeko: Aita Besombes berritz nerekin nuen. Begiak argitu zitzauzkun orduan eta ikusi ginuen gure elizadiari erroak eginarazteko, bertze lur batean landatu behar ginuela, edo bertze gisa batetarat bederen.

Hastean pagano herrien erdi-erdian egiten gintuen gure etcheak. Ez ginezaken bertzela egin, egia erran. Hola girichtino berriak irrisku guzien erdian ziren haatik. Horietarik urruntzeko, norapeit herriz kampo ereman behar gintuen beraz. Hala deliberatu ginuen. Bakhotcha gure alde lanean hasiko ginen, toki hoberenetan. Ez ginuen dudarik salbaiek, gure landa ederrak ikusi eta, emeki-emeki gutarik hurbildu nahiko zutela: aski ginuen

orduan guk eman legeak onhartu nahi zituztenak baizik ez hurbiltzerat uztea ! « Hanbat gaichto gure herrietarik urruntzeak kalte zenbeit balinbadu mementoan ! Hala-hala hemen bizitzea baino ez othe dugu hobe bertze nunbeit erroak ongi egitea ? »

Hemen gaindi lurra ez da nihorena. Bakhotchak nahi duena eta on iduritzen zaiona hartzea eta atchikitzea aski. Ez ginuen beraz beldurrik norbeitek kontra egin zezan hauzo-herrietarik. Halere eskuak bethe giniozkaten, lanean hasi gabe, seguragoz. Girichtino batzuekin joan ginen, bakhotcha gure alde, jarraiki nahi etzaizkigunak aphez anamit baten eskuetan utzirik. Hauiekin aise gururatzeko, ez ginen urrunegi joan. Eta lothu ginen lanari, jozak eta emak. Bainan Aita Besombesen lanak aipha detzagun lehenik.

Xolangeko elizadia suntsitucheia zen piktarekin. Hil etziren girichtino bakharrak eskuin eta ezker joaitoko bezperan ziren Hadrongetarren beldurrez. Aita Besombes galdetzerat joan zitzaioten eia nahi zuten herri bat egin harekin. Baietz, gogotik. Bainan guziak ongi adi detzatzuen, hitz bat erran behar dut Hadrongetarrez.

Motongeko hegoaldean badire lehenik zelhai handi batzu, gero mendichka lerro bat, eta gibelean aran eder eta aberatsenak. Haratago, mendi mazelan dagozi, Motongetik bi egunen bidean bezala, delako Hadrongetarrak. Gerla arras maite dute eta tzarrak dire. Lurrak hoberenatarik baitituzte eta ibil-errechak, emazteeri eginarazten diozka-



te lanak, berak Banharren kitzikatzerat joaiteko. Holako itzuli bakhotchuan esklabo bat edo bertze erematen dute hemendik berentzat edo Laostarrerri saltzeko. Gu hunat ethoriz geroztik ere, eskualde hartan ehun bat herri bada gutienetik Hadrongetarren lotsaz husturik. Eta orai horra eskualde bat osoa, hain ibil-errecha litakelarik, larre doana ! Hadrongetarren izena bera aiphatzea aski zaiote hemen gaindiko haurreri ikhara jauzarazteko.

Aita Besombes ibili zen oihanez oihan Xolangetik Hadrongetarren herriraino, nun atchemanen zuen lur hoberena eta herri baten egiteko egokiena. Han elizadi bat egin-eta, Hadrongetarrek etzirela alde huntarat gehiago abiatuko egiten zuen. Guk geronek ez dugu salbai horien beldurrik. Ez daukute egundaino minik ez kalterik egin : berak lotsatuko dire gutarik ttipienari zimiko baten egiteko ere. Bainen gure meneko gizonak gu bezen aise utz othe letzazkete oihanetan, bat edo bertze preso ereman gabe, etzakitelakoan gure meneko zirela ? Hori ez ginakien oraino, bainen Aita Besombes fida zen haren kopetak Hadrongetar tzarrenak lotsatuko zituela eta bide chuchenean atchikiko. Bere lagunekin hitzartu zuen beraz bera joanen zela lehenik hautatu tokirat eta landa bat ederra eginen langile batzuekin, uztaren mementoan makhurrik ez bazen, Xolangetar guziak joanarazteko.

Artean errateko, Aita Besombes bezalako gizon bihotzdun guti da : deusek etzion burua galarazten. Etzakien kechatzea zer den

irrisku handienetan ere. Iduri zuen-eta kasik irriskua etzuela ikusten ! Huna zerbeit Aita Besombes elhe guziek baino hobeki ezagutaraziko dautzuetena. Cochinchinan bizi zen orduan. Gau batez heldu zaizko basa-gathu handi bat badela etche inguruan. Hartzen du bere chichpa eta kamporat badoa. Hara bi argi sasian : basa-gathuaren begiak. Chuchen-chuchena badoa bi urhatsetaraino eta tiro batez, zabal-zabala, marruma bat eginarazi gabe, sasian etzaten du basa-gathua. Bertze holatsuko zer-nahi erraten zuten hartaz, ongi ezagutu zutenek. Horra zertako salbaiek nahiago zuten hari fidatu armada oso bati baino. Horra ere zertako hain aise onhartu zuten harekin herri baten altchatzea, Hadrongetarren bide-bidean izanagatik ...

1866 garren urthearen ondarrean ginen, hola bakhotchak gure alde hartu ginuelarik. Xolangerat joan zen lehenik eta handik oihanerat. Aita Baoren beharrik etzen beraz gehiago Xolangen : Koxamerat igorri nuen, hango lanaren egiteko. Aita Besombes etzen bakharrik joan toki berrirat ; hamazazpi edo hemezortzi lagun ereman zituen berekin. Hautarik sei Anamitak ; bertze guziak salbaiak, ezkondu eta ezkongei. Oro, ordu arte, Aitaren muthil eta zerbitzari zirenak. Etzoazin urrun : doidoia orentsu baten biderat. Bainan sobera zen hori bera goizean eta aratsean egiteko : Aitak berehala etchola handi bat eginarazi zioten beraz han egoteko alderat eta etziren ondoan baizik hasi oihanaren errotik atheratzen landaren egiteko eta irrisaren eraiteko.

Erran gabe doa holakoetan bethi lehen lanak direla bortitzenak eta Aita Besombes etzen hainitz jostatu lehen egunetan. Zentbeit ahuntz baintuen Annametik ukhanak, bizpahirur igorri niozkan. Hola, esne chorta bat bederen bazukeen, hasteko, bainan basagathu batek ebatsi ziozkan. Zaldi bat ere banion emana Xolangerat ibiltzeko : hura ere ebatsi zion basagathu berak edo bertze batek. Zaldirik gabe etzuen Xolangerat joaiterik eta gauak han iragan behar zituen nahi eta ez. Langileak hain lotsa ziren Hadrongetarrentzat, berak uzteko !

Eta egia erran, gaichoek bazuten Hadrongetarrentzat lotsatzeko arrazoina frango. Behin, Aita Besombes norapeit bazterturik, kanabera landare batzuen bilha edo ihizi zerbeiten ondotik, Hadrongetarrak ustegabean gainerat ethorri zitzaizkoten langileeri, eta neskatcha bat ebatsi zioten. Aita itzuli zelarik, oro nigarrez atchewan zituen eta, han irrisku sobera bazela, ihes abiatzeko heinean. Aitak hitzeman zioten, munduko etsai guzien gatik, neskatcha joan bidetik itzuliko zela laster etcherat. Ohoinak nungoak ziren jakin zueneko, bi Anamita igorri ziozkaten eskutitz motz hunekin : « Neskatcha hori aitaso Kinh ongi ezagutzen duzenarena baita, errazue zer gaizki egin dautzuen. Bainan hobenik ez badu eta zuzen kontra ebatsi badiozue, lehenbailehen itzuliko duzue ». Eta Hadrongetarrek neskatcha itzuli zioten. Egundano menturaz etzioten nihori deusek hola itzuli ! Bichtan da berri hori ere laster hedatu zela orotarat eta Ai-

taren fama etzela ttipitu. Langileak etziren gehiago lotsa eta goizetik arratserat gogo onez ari ziren beren oihan zokhoan.

Zuhaitzak atheratu eta tokia garbitu zuten segidan, zikhin guziak errerik. Gero lurra aphaindurik, irrisa erain. Irrisa ederki abiatua zen jada, herriko-etchea landaren erdi-erdian hasi zutelarik. Gero, selhauruen aldi. Ezen selhauruak ere egin behar ziren, irrisa polliki horitzerat baitzoan ! Zer egun gochoen esperantza ! Baduk hoberik : horra nun eritzen den Aita Besombes, bethetan !

Berri hori ekharri zautedanean, berritz ere sukharrekin nintzen. Nere laguna ni baino eriago zitakeela, jeiki nintzen nere ohe tcharretik eta bideari lothu. Lotsatzen hasia zen Aita Besombes. Etzakien batere zer zuen, bainan etzezaken jan eta edanik atchik. Mirikurik ez den tokietan ez da sendagailu bat baizik : othoitza. Gero sendatzea edo hiltzea, Jainkoaren gain !

Gau hura eriarekin iragan nuen. Biharamun goizean hobekichago iduri zuen. Kofesatu nuen halere eta nere etcherat itzuli nintzen, Andredena Mariak han iragaiteko. Bideak sukharra emendatu zautan oraino eta bi egunen buruan mandatua ekharri zautedalarik Aita Besombes gaizkitu zela, ez nintaken higi. Aita Bao joan zen beraz Xolangetat. Elhea galdua omen zuen ordukotz eri gaichoak. Ezagutza bazuen oraino eta zerbeit gisaz Aita Baori adiarazi zion berritz ere bere bekatuen barkamendua nahi zuela, eta Aita Baok barkamenduaren hitzak erratean eskua altchatu zuelarik eriaren gainerat, hu-

ni bi nigar gozo jauzi zitzaizkon begietarik. Berehala oliodura saindua eman zion. Horren beha bezala zagon Aita Besombes azken hatsaren emateko: 1867 garren urthea eta agorrilaren hamaseia zen, Andredena Mariaren phesta biharamuna. Ez da dudarik Ama Onak deithu zuela bere ondotik aingeru eta sainduen egoitza ederrerat sar-arazteko.

Nork erran behinere Jainkoa zer chedek dabilkan ! Horra misionest gazte bat. Gazte bezen kartsua da, eta iduri du Banharren elizadian ez ditakeela deus onik gehiago egin hori gabe. Eta horra nun, lanean hasi deneko, Jainkoak bere ganat deitzen duen ! Gure Aita Zeruetakoa, halere bethi egin bedi zuk nahi duzuna ! Neroni eri eta nere adichkide baxarra hila, nola erran nere bihotzmina !

Ez nuen Aita Besombes ehortzterat uzten ahal oraino arras finkatua etzen herri batean. Lan bat da haatik hemen gaindi gorphutz baten toki batetik bertzerat erematea, ezen salbaiek uste dute kutsua bidean ichurtzen duela. Egitekotz, bideko herri guzieren zerbeit eman behar zaiote . . . kutsuaren urruntzeko. Nik ez nuen holako antolamendurik onhartzen ahal. Gerlarik ere ez nuen behar haatik. Anamita eta langileeri urez bertzaldetik ekharrarazi nioten gorphutza, nihungo herririk unkitu gabe. Gau bat osoa eman zuten bidean Rohaieraino heltzeko eta han neronek egin nituen elizkizun guziak.

Aita Besombes gaichoaz ez erratekorik gehiago izaiteko, berehala huna zer gertatu zen. Ogia utzi ala segitu behar zen ? Hastean

segitzea hobe zela egin nuen eta Aita Do harat igorri. Etzuen hainitz dembora berritz, gurekin zela. Lan handi-handirik ez baitzen oraino eginik, lotsa zitaken.

Ez : etzen lotsatu eta hilak zerutik lagundu zuen. Uzta ederra sartu zen urthe hartan selhauruetan. Gero, orok elgar lagunduz egoitza berri batzu egin zituzten eta, hitzartuak ziren bezala, Xolangeko girichtino guziak ethorri zitzaizkoten han egoterat. Herri berriari « Tou-Er » eman ginion izena, ondo hetako ibai handi baten izenetik. Egungo egunean hirur ehun bat bizitzale bada han. Girichtino baino pagano gehiago oraino, bainan hurbiltzen ari zauzku emeki-emeki hauk ere, eta esperantza dut laster bertze girichtino berri andana eder bat ukhanen dugula.

## HOGOITA BEDERATZIGARREN

### KAPITULUA

**Bertze herri bat : Jo-Ri-Krong. — Lagun berri bat : Aita Suchel eta hunen heriotzea. — Banharren elizadia zertan den.**

Aita Besombes bere oihanean lanean ari zen demboran, hitz dautzuet ni ere ez nindagola eskuak gurutzaturik. Badakizue Koxamen hasten dela Rongaoko zelhai ederra, Bla ibaiaren bi aldetan egun baten bidean hedatzen dena. Eskuineko aldean hautatu nuen toki berria, Koxam eta Rohaien artean. Ez da lur ustel horiek baino aberatsagorik. Tresna on batzuekin laster baratze choragar-

ri bat iduri luke eremu guziak. Urthe guziz uholdeek busti aldi bat ederra ematen diote alde batetik, eta bertzetik ez ditake asma zenbat chirripa on heldu zaion mendietarik ... irrisa aise landa ditaken zokho busti guzia aiphatu gabe. Bainan salbaiek ez dute aski tresna holako lan bati lotzeko.

Eta egiazki orai arte bederen ongi egin dute ez lotzea ! Esku hutsekin edo halatsu egin behar direlarik oro, ez du balio amets handiegitan hastea. Zertako uste duzue salbaiek maldak bilhatzen dituztela, edo mendiak edo oihanak, beren landen egiteko ? Heien etsaiik handiena belharra baita, eta beren irrisa beheretan edo toki urtsu batean egiten badute, laster irrisa horri belharra nautituko baitzaio. Holako toki batean, sarrahalda, belharra sortzen da, eta arratsean ez da ageri goizean nun zer sarratu zen. Gehiago dena, ez da aski belharraren errotik atzeratzea ere, berehala ez erretzekotan : ondoko gauean berean ihintzak egundaino bezala har-araz lezoke.

Koxametik urruntzeko jada eman daukitzuetan estakuruez kampo, berze hau ere banuen beraz : bere lur tcharrekin Koxam niholaz etzitakeela gehiago zabal eta handi, hango patarretan golderik ez baitzitaken higeri. Bada, ongi ikusten nuen girichtino berrieri baitezpada irakutsi behar niozkatela nekhazaritzako molde berriak, oihanetarat joan etziten. Oro toki aberats eta ibil-errech batean bilduz baizik ez nezaken gehiago zerbeit egin ...

Ongi buruan ibiliak nituen oro : nere her-

ri berria laborari etche handi bat izanen zela, eta holako. Nere Anamitak lehenik igorri nituen Hagou deithu salbaietararat, idi eta basa-idi batzuen erosteko. Gero Cochinchinarat joan ziren golde eta gainerateko tresnen bilha. Nik bezala egin zuen Aita Dok, lurrak oraino nereak baino ibil errechago baitzituen, eta hainitz hurbilago. Nik baino lasterrago hasi zituen lan berriak: bainan, orduan eta gero, bethi elgar lagunduz egin ditugu gure urhats guziak.

On da orai bederen erran dezazuegun, izan dadien Europakoa edo Anamita, hemengo aphez batek zer langile eta laguntzaile duen bere etchean eta menean. Lehenik, zenbeit Anamita, berek nahi zutelakotz jarraiki zaizkonak, katichima, prediku eta gainerakoetan laguntzeko. Komentuetan bizi diren fraide kartsu batzuen lan ber-berak egiten dituzte. Katichima eta predikuez bertzalde, ez dire haatik lotsa zer-nahiri lotzeko, ala barnean ala kampoan. Lur-lanetan trebe dire gutiz gehienak. Anamitek irakutsi diote salbaieri goldearen erabiltzen.

Aphez baten etchean bertzalde badire, esklabo izanik, aphezak erosi dituen sehi eta langileak. Eta artean errateko, sos gehiago baginu esklabo gaichoen erosteko! Bainan ... bainan ...! Esklabo hautan, oraino haur hutsak badire: erosi orduko bathaiatzen ditugu. Handiagokoeri katichima irakusten diotegu lehenik, gero bathaiatzeko esperantzian. Nere etchean ez dut esklabo-ohirik baizik. Badire erosi nituelarik jada ezkonduak zirenak. Hautarik ahal bezen guti



erosten dut haatik, zuhaitza ez baita gogortu-  
eta hain aise plegatzen ! Beraz arruntean nere  
sehi eta langileak ongi moldatu eta plega-  
tuak dire eta ez dute errateko handirik. Adi-  
nerat heltzen direlarik, neronek ezkontaraz-  
ten ditut, bakhotchari hobekienik doakion  
bezala. Ez dute ez notarian ez auzaphezaren  
aintzinean iragaitearen beharrik, nere ezkon-  
geiek, egun handia ethorri zaiotelarik. Ko-  
fesatzen ditut . . . eta ezkontzen ! Eta hogoi  
urthe baitu salbaien erdian bizi naizela, hau  
finka dezaket kopeta gorarik : hemen ez dela  
ezkontzako legeak hausten duenik ! Bainan  
berritz itzul gaiten gure elherat . . .

Herriaren egiteko tokia hautatua nuen.  
Koxamarrak jarraikarazterat lehiatu nint-  
zen orduan. Gutiz gehienek baietz ihardetsi  
zautedan lehenik, bainan dudak ethorri zit-  
zaizkoten laster. Berritz bildu nituen . . . eta  
berritz hitza hartu zautedan. Dena dela, Ko-  
xametik joaiteko eguna ethorri zenean, han-  
di handia, bi familia jarraiki zauzkitan ! Ez  
dut ukatuko zerbeit egin zautala segurki  
nere arthalde guziaren han uzteak, bainan ez  
nezaken gehiago gibelat egin, Anamitekin  
bakharrik bizi beharko banuen ere. Jarraiki  
zauzkitan bi familietarik bat ez dut erran  
beharrik Hemurrena zela. Herriz kampoko  
aita-familiako batek galdeturik hura ere ne-  
rekin har nezan, baietz ihardetsi nion gogo-  
tik. Paganoa zen. Hamasei lagun bazituen  
berekin : hiruetarik biga bederen, haurrak  
eta ezkongeiak.

1866 garren urthea zen eta abendoa. He-  
men gaindi hazilatik apherila arte ez baita

euririk ez aro gaichtorik ez ginuen etcholak egin arte lotsatzekorik.

Zenbeit ilhabete lehenago nere langileeri lur batzu ibilaraziak niozkaten, harat orduko irrisaren eraiteko gisan. Ez ginuen beraz landetan demborarik galdu eta egoitzen egiten hasi ginen laster. Arratsak paganoeri katichima egiten iragaiten nituen supazterean. Bertze guziak arraintzarat joaiten ziren dembora hortan. Eta gero, afal ondoan orok batean arratseko othoitza erranik, bakhotcha joaiten zen bere chokhorat, lo chortan baten bilha, lurra mihise eta zerua estalki. Zer bizi ederra osasunean denarentzat.

Nere etchea egin zuten lehenik: alde batean kapera, bertzean nere eta Anamiten egoitza, kapera handi eta ederrago baten gerochago egiteko chedearekin, haatik. Irrisa onthu gabe etche guziak chutik ziren eta uzta eder bat sartu ginuen gerochago, Jainkoari esker. Irrisa hori nik partitu nuen, etche bakhotchari jende arau berea emanaz Urthe hura baino ederragorik ez dut uste ereman dutan nere bizi guzian! Oro bat ziren eta makhur baten itzalik nihun balinbazez, aski nuen ahoa idekitzea. Irrisa berriaren jaten hasi ginen egunean, hamabortz pagano bathaiatu nituen. Herria sortua zen beraz: Jo-Ri-Krong deithu nuen. Ororen loriak etzuen parerik eta Jainkoari eskerrak bihurtu giniozkan gogotik ...

Ondoko urthea oraino aberatsago izatu ginuen, tresna berrieri esker. Hadrongetarrek eman elefant bat Annameko gobernuari diru phuska baten kontra saldurik, bertze

zer-nahi tresna berri eta on erosi nuen. Salbaiek esku-gainik etzuten hortako. Nere tresnak ematen niozkaten beraz beren lanen egiteko. Anamitak han eta hemen nituen egunguziz, tresna horien erabiltzeko moldea irakusteko. Aldeko herrietarik noiz-nahi nere langileen ikusten frango bazabiltzan. Urthe hartako uztak oro harritu zituen. Jo-Ri-Krong bi aldiz handiago zen beraz bertze urthe baten buruko. Ikasleak ere emendatuz zoazkidan arratseko katichimetan: gizon, emazte eta haur, bethi etchearen bethe banuen . . .

Bainan mila aldiz hobe da herri bat ez dadin lasterregi handi. Aise adituko duzue zertako. Salbai bat herrirat baxharrik heldu zitzautanean, nahiko dembora banuen hartaz artha hartzeko eta nere molde berezian moldatzeko. Ehun edo berrehun ethorri balauzkit batean, lanari nihundik ez nion bururik egiten ahalko. Ez nituen beraz galdeak nola-nahi eta berehala onhartzen. Nihor ez nuen herrian sartzerat utziko, gutienetik ez bazioten jainko faltsoeri egiten diozkaten chiminokeria zozoeri berehala ukho egin nahi, eta oraino gehiago, zinez hitzematen beren makhurretan nihori etzirela jazarriko. Alabainan, hemen hasten diren auzi eta gerlak zertarik heldu dire hamarretarik bederatziatan ? Hortarik, jada errana dutan bezala. Nihor ez nuen bortchatzen girichtinotzerat: bortchaz girichtinotua ez litake sekulan girichtino on bat. Nik galdetuak onhartzen zauzkitedan beraz eta hainitzek beren haur ttipiak bathaia-arazten ere. Ethorritz geroz-

tik, ezagutza zutenak laster abiatzen zauzkitan katichiman. Larrietan badire haatik hain bil-errechak ez direnak. Bakhar batzuek deus ez dute aditu nahi. Agian demborak eta Jainkoak bilduko dituzte...

Joanak eta ahantziak dire segurki orai lehen dembora hetako oren latzgarri eta lotsagarriak. Nihork ez gintuen ikusi nahi orduan: gure etchola tcharrak, geronek egin behar gintuen oihanean. Ahal dena jan behar ginen. Orai orotarik badugu: irrisa nahikoa, arthoa ausarki. Artho bihitik ez dugu haatik oraino irin egiterik, ehotzekorik ez baitugu! Errerik jan behar beraz artho burua!

Eskual-Herriko arthoa hemengo irrisa-irinetik egin ogia baino hainitzez hobe da, neretzat bederen. Eyhera bat baginu, hainitz balio luke guretzat: arthoak ez du irriskak bezenbat arthatze beharrik. Ez du belharraren beldur handirik, irriskak bezala, lasterrago handitzen delakotz.

Artho eta irrissaz bertzerik ere badugu orai gure etcheetan: oilo, cherri, ahuntz, idi, basa-idi, uso eta ere zenbeit zaldi. Elefantak bertzalde. Bainan zaldiz ibiltzeko, zerbeit badugu oraino eskas: bideak. Orai arte zaldiz ez dut Aita Doren etcherainokoa baizik egiten ahal, Rohaietik Jo-Ri-Krongerat bide pollit bat eginarazia baitugu geronek! Elefantak, alabainan, karga handien ibiltzeko dire. Badute jada zer egin irrissaren landatik etcherat ekhartzeko. Zenbeit aldiz Annamerat ere igortzen ditugu haatik muthilekin, gatzaren bilha, bai-eta

Frantziatik igortzen dauzkuten phuska guzien . . .

Horiek oro ez dire jada guti. Eta horien gainerat nik hau erran dezaket : Jo-Ri-Krongeko erregea naizela. Egia aithortzeko, nere erregetasuna ez doa urrun, bainan Bezkoitzen edo nun-nahi bigarren baino ez othe dut hobe hemen lehen ? Onik badu nere erregetasun ttipiak : horri esker, laster ez bada noizpeit, hemengo jendea egiazko Jainkoaren ganat itzuliko da. Egin ditudan obra guzietan, ez dut egundaino bertze chederik ukhan. Aita Do Rohaien ni hemen bezen jaun handia da. Handiago ez bada !

Eta halere hau aithortu behar lañoki : lurrean ez dela zorion osorik. Jatekoa ausarki . . . eta ezin gehiago jan, nik ! Hara-girik ezin gehiago har, barnea unhatuegia nuelakotz ! Jatekorik ez ginuen demboran, idi bat janen nuen kasik. Orai idiak ba . . . eta ez jastatu behar ! Zenbeit dembora bazuen jada jaun aphezpikuak errana zautala pausatzerat eta sendatzerat haren ganat joiteko. Herri berria egin - eta joanen nintzela ihardetsia nion. Eta herria egin orduko, Aita Besombes hila ! Ez netzazken salbaiak aphezik gabe utz.

Behin, egun ilhun batekin, gogoetan ari nintzen nere buruarekin, sekulan hiltzerat heldu banintz edo bertze norapeit joaiten, Banharren elizadia berehala suntsituko zela segur. Horra nun urhats arrotz bat aditzen dutan hainbertzenarekin, athean. Itzultzea naiz. Eta zer ikusten dut ? Misio-nest churi bat. Aita Suchet..

Ez ditake asma zer loriak hartu ninduen. Lorietan zagon misionest gaztea ere. Begietarik, begitartetik, bere urhatsetik beretik ageri zuen hala zagola ! Hogoita lau urthe zituen. Bi musu gozoren artetik, huna zer erran zautan : « Aita Dourisboure, Jainkoak igortzen nau zure ganat. Badakit eri zarela eta ezintzen hasia. Nik aldiz indar frango badut, eta ongi lagunduko zaitut ! »

Ongi lagunduko ! Sukharrek berehala hartu ez balute, ba ! Bi ilhabete gabe hil ez baltz, ba ! Jainkoak geroa ezagutarazten balauku, ez litake zorionik. Badaki segurki zer ari den, oro gordez. Aita Suchet ethorri zelako berria laster hedatu zen herrian eta atseginak gaindi egin zuen bihotz guzietan. Nihor etzen lanerat joan egun hartan eta orok, lerro-lerro, itzuli bat egin zuten gure etcheraino Misionest berriari agur baten erateko. Aita Suchetek etzakien mintzaira ; nik ihardesten nioten beraz haren partez : « Ikusten duzue zoin maite zauzten Jainkoak ! Lotsatzerat zinoazten, eri naizelakotz, nere heriotzeak umechurtch utziko zintuztela. Orai nik badut ordaina, eta zuek aita. Nik atsegin handi bat badut bihotzean : zuek ere alegeratu behar duzue nik bezala. Aita berri hunek bere aitamak eta hamahirur haurride etchean utzi ditu : froga hobetik othe ditake egiazki maite zaituztela ? Guziz, zuen arimak maite dituela ? Nola ez duzue beraz ordainez maitatuko ? Eta bereziki zuen arimak nola ez ditutzue hobeki maitatuko ? »

Segurki frogatu nuen laster lagun bat

ona baino hobea igorri zautedala : kartsua zen, ichila eta bihotz onekoa. Ez nezaken adichkide hoberik asma eta gutizia. Hel-eta bizpahirur egunen buruko jaun aphezpikuari hitz bat igorri zion salbaietan jada lakhetua zela. Dembora berean erraten zion ni arras eri nintzela eta segurki jaun aphezpikuak ongi eginen zuela lehenbailehen bere etcherat deitzen baninduen, arthatzeko. Nere Jaun Charbonnier onak galdea igorri zautan beraz. Ondikotz, galde hori heldu zitautanean, Aita Suchet jada hila zen. Sukharrek ereman zuten. Kutcha bat baitzen neretzat egina, hartan sartu ginuen eta ehortzi. Hobiaren gainean azken hitz batzuen erraten hasi orduko bi ilhabetez Aitak eman zauzkun etsemplu eder eta esperantza handiez, nigarrek itho ninduten eta ez nuen ahorik idekitzen ahal izan. Oi, bethi egin dadiela halere Jainkoaren nahi saindua !

Jaun Aphezpikuari berri hauk igorri niozkalarik, ohartarazi nuen berritz nere chokhoari egundaino bezen estekatua nintzela, eta ez nintzela, eri izanagatik, mugituko bertze galde bat ukhan arte. Berehala ihardetsi zautan haatik : « Zer irabaziko dute Banharrek, hor hiltzen bazitzaiote ? Ez othe dute hobe zenbeit dembora zutaz gabetzea, berritz azkartua itzul zakioten ? Ez duzu gehiago luzatzerik : zato. Zatozkit lehenbailehen ! »

Orok uste ginuen Cochinchinako aireak sendatuko ninduela. Gaizkirik baizik etzautan egin ... eta jaun aphezpikuak zenbeit

demborarentzat igorri ninduen ... Frantziarat.

Egungo egunean zortzi-bederatzi ehun Banhar bada bathaiaturik, zazpi herrietan kokatuak oro. Rohai baita erdian, handik herri urrunenerat egun baten bidetsua da. Jo-Ri-Krong eta Rohaieko inguruetan Cochinchinan bezalako irrisa landa eder batzu orai ikus ditazke nun-nahi. Abereak ere badituzte aspaldiskoan salbaiek. Etchaldeek ageri dute gohortzen ari direla.

Aita Dok behin igorri dauzkit Frantziarat hango berriak. Salbaiak nere beha omen daude segurki. Artho opilaren egiten ikasteko erraten daut, eta artho-irin egiteko tresna zerbeit ereman dezadan gibelaratekoan.

Bainan hango elizadiak baluke bertze zerbeiten beharra ere: chichpa zenbeitena. Chichparik ez duteno, gure girichtinoak bethi irriskuan izanen dire, Hadrongetar eta bertze holako batzuen ondoan. Eta aldiz chichparen izenak berak urrunarazten ditu ohoin handienak!

Jainko Onak bethi atchik detzala hango girichtinoak eta egin dezadala berritz heterat itzultzeko grazia!

Liburu hau irakurtuko dutenek othoitz bat egin nahiko dute Banhar gaichoentzat (1)....

Aita DOURISBOURE

---

(1) Liburu hau Koxamen hasi zuen, Aita Dourisbourek eta Franszian burutatu. Irakurtzalea ez dezatela beraz nahas « *han* » eta « *hemen* » batzuek.



## ASKEN SOLAS

---

Adichkide maiteak,

... Nere girichtino gaichoek etsitua ninduten. Asma zazue beraz zer atsegina ukhan zuten berritz ikusi nindutelarik. Oro arras ongi zoatzin. Makhur ttipi guziak bizpahirur ilhabeteren buruko chuchenduak ziren, eta girichtino berri zenbeit egin nituen. Bainan Jainkoak frogatu nahi gintuen oraino, eta martchoan zigorrada bat igorri zaukun behinere baino handiagokoa. Beha.

Irrisaren eraiten hasterat ginoazin. Herra nun bertze orduz Pharaon urguilutsuari bezala Jainkoak otte beltzak igortzen daukun. Zenbeit egunen buruko, ogi, belhar, hosto eta oro iretsiak zituzten. Bizpahirur alditaraino gure eraintzak egin izan behar gintuen debaldetan. Otteak urrundu zirelarik, dembora joana zen deusetako. Gosete ikharagarrienari ginauden. Zorionez, Jainkoa urrikaldu zitzaukun eta euri gozobatek kampoak phiztu zituen, galduak us-te gintuen irrisak parte bederen atheratu ziren eta urtheko doia bildu ginuen.

Hortan gelditu balire guziak, deusik etzen izanen. Bainan nola eskualde hautan egundaino ez baitzen otte beltzik ibili, debruaren mandatariek berehala fama hedatu zuten guk ekharrarazi gintuela segur nunbeitik. Gezurra handiago eta bidea lasterrago egiten du. Hala egin zuen hunek ere eta hainitzek arras begitan hartu gintuzten.

Guri hurbil bizi ziren salbaia gaichoek etzuten haatik holakorik sinhetsi eta gure alde hartu zuten, gure ontasunak heienak bezala larrutuak izatu zirela. Bainan gure etsaiak hain azkarrak ziren ! Eta guk hain haichtur motzak gezurrari hegalak pikatzeko !

Jazartzen hasi zauzkun beraz laster eta gau batez bortz neskatcha ebatsi zauzkuten, preso ereman eta esklabo bezala nunbeit saltzeko. Bertze behin zazpi gizon hil zauzkuten eta berrogoi bat kolpatu. Zenbeit ilhabete ikaragarriak iragan gintuen hola. Gauaz zaintzaileak kampoan utzirik ere, ez nuen lo onik egiten. Gaztean martirgoa gutiziatua nuen segurki eta ez ninduen oraino hiltzeak lotsatzen. Bainan hiltzekotz, Jainkoaren gatik hil nahiko nuen, eta ez otte tzar batzuen gatik ! Guzien buruan horien gatik hil behar banu oraino egun batez egin dadiela Jainkoak nahi duena !

Irriskua joantchea da orai. Ez da gehiago salbai hainitz otteen ethortzea gure gain ematen duenik. Bainan deusek ez daut burutik khenduko hemen gaindi urhats handi baten egiteko, orok chichpa bana eskas dugula bi zangotako gau-chori tzar batzuen urruntzeko herri huntarik eta inguruko oihanetarik. Aspaldi sarraraziko nituen Annamen gaindi, nik, bainan jaun aphezpikua bethi lotsa da.

Lagun berri bat badut zenbeit dembora huntan : Aita Hugon. Bertze bat ere ethortzekoa omen zen : Aita Geoffroy, bainan Annamen geldiarazi dute. Aspaldian ez nuen

Aita Anamitik baizik nerekin. Ikusten duzue beraz aise nahigabe hortan zer jasan dukedan baxharrik, bethi baxharrik ! Ez bainaiz oraino arras lotsatu ! Holakoetan aithortzen da gogotik zoin guti den gizona ! Badakit Parisen ukhan duzuela segurki jasiteko : nik ere ukhan dut nere doia ! Othoitz egizue beraz, eta eginaraz neretzat.

Aita D.

---





# AURKIBIDEA

---

---

	PAIA
Irakurtzaileeri .....	1
Aintzin solasa .....	3
Lehenbiziko Kapituluak .....	7
Bigarren » .....	15
Hirugarren » .....	21
Laugarren » .....	27
Bortzgarren » .....	37
Seigarren » .....	42
Zazpigarren » .....	48
Zortzigarren » .....	54
Bederatzigarren » .....	60
Hamargarren » .....	66
Hamekagarren » .....	75
Hamabigarren » .....	82
Hamahirugarren » .....	87
Hamalaugarren » .....	93
Hamabortzgarren » .....	98
Hamaseigarren » .....	104
Hamazazpigarren » .....	109
Hemezortzigarren » .....	116
Hemeretzigarren » .....	123
Hogoigarren » .....	127
Hogoitabatgarren » .....	132
Hogoitabigarren » .....	138
Hogoitahirugarren Kapituluak .....	144
Hogoitalaugarren » .....	149
Hogoitabortzgarren » .....	155
Hogoitaseigarren » .....	163
Hogoitazazpigarren » .....	169
Hogoitazortzigarren » .....	176
Hogoitabederatzigarren » .....	184
Azken solas .....	195

